


I  
KIMUA

# Paradigma iraultzaile berri baterantz





## **PARADIGMA IRAULTZAILE BERRI BATERANTZ**

Intentsitate politiko handiko garaiak bizi ditugu. Euskal Herrian sobera barneratua dago ETArek existentziari lotutako ziklo politiko iraultzailea amaitu egin dela eta ziklo politiko berri baten hastapenetan gaudela. Ziklo politiko horrek izaera iraultzailea edukiko duen ala ez, bertan diharduten eragile iraultzaileek erakusten duten gaitasunen arabera izango da. Baita baldintza sozial, ekonomiko eta ekologikoez eskaintzen dizkiguten aukeren arabera ere, eta hor behintzat, badago leihoreki ireki ugari. Kapitalismoa mende beteaz ezagutu duen krisi sakonenean murgilduta dago eta mundu mailako eraldaketa sakon bezain erradikala abiarazi du. Osagaiak, beraz, ez dira falta.

Euskal Herrira bueltatuta, esan dugu zenbait eragile egungo egoerari erantzun iraultzailea emateko prestasun eta determinazioa erakusten ari direla. Saiakera horretan buru-belarri diharduten guztiei errespetu eta begirune osoa zor diegu. Hala ere, eta ondoren azalduko dugun bezala, gure ustetan iraultzaren geografian inork ibiliak ez dituen bide, haran eta mendi tontorrek daude oraindik. Eta horretarako gaude hemen. Gure ustetan, badago Euskal Herrian, baina baita Europa eta Mundu mailan ere, gizadiak bizi duen egoera kritiko honi aterabidea eman diezaiokkeen paradigma iraultzaile berri bat eraikitzeko aukera.

Hartzen dugun hautua ez da erraza eta erronkari dagokion konpromisoarekin erantzun behar diogu. Iraultzarako bide berri bat zabaltzen ari gara, paradigma iraultzaile berri bat. Oraindik bide horren nolakotasun eta determinazio asko eta asko ezezagunak zaizkigu, baina ibiltzeari ekiteko moduko oinarri sendoak baditugu dagoeneko. Ibiltzen hasteko eta erortzeko, noski, aurrera egingo dugun bezala jausi ere egingo

garelako. Beraz, honakoa saiakera bat baino ez da, baina ez edozelako saiakera, transzendentzia berezia duena baizik; gure gain ardura iraultzailearen erronka ezartzen duena. Horregatik, gure indar eta gogo guztiakin aurrera ateratzen saiatuko garen saiakera da. Hori da gure hautua.

## **1-Zer da eta zelan eraikitzen da paradigma iraultzaile bat?**

Errealitate sozialaren baitan ematen diren biolentziazko harremanak identifikatu, berauek osotasun bezala ulertu eta osotasun hori errotik gainditzeko helburua daukan prozesu politiko konplexua da iraultza. Horri lotua, paradigma iraultzaile bat, prozesu hori modu zehatz batean egikaritzeko egiten dugun proposamen integrala litzateke.

Ohikoa da paradigma, korronte ideologiko edo ildo bati buruz hitz egiten dugunean, teoriaren garapen zehatz bati buruz aritzea. Hala ere, teorikoki ematen diren ezarpenez gain, paradigma iraultzaile batek espresio praktikoa eta antolakuntza zehatz bat ere barnebildu behar du. Paradigma bati buruz ari garenean, gure jardun politikoa, eta oro har gure bizitza, osotasun bezala ulertu eta gidatzen duen praxi eta ideologiaren konbinazioaz ari gara. Beraz, ikuspegi integral bati erantzun behar dio gure proposamenak; pentsatzen duguna, esaten duguna eta egiten duguna norabide berdinean lerrokatu behar dira. Horregatik, paradigma batek, gutxienez, hiru esparru hauek barnebildu behar ditu:



## **Errealitatearen ulkerera.**

Alde batetik, errealitate sozialaren ulkerera daukagu: lana, gorputzak, erreproduktzioa, ekoizpena, horien gain ezartzen diren jabetza formak eta horietatik eratortzen diren zapalkuntza eta esplotazio formak (alienazioa, jabetza pribatua, patriarkatua, Estatuak, kolonialismoa, kapitalismoa...). Bestalde, errealitate sozial horren oinarrian dauden eta berau zeharkatzen duten aldagai biofisikoak ditugu: materia eta energia zikloak eta bizitza prozesua (atmosfera, lurra, ozeanoak, landareak, animaliak, ekosistemak...).

Errealitatearen dimentsio horien guztien ulkerera eta hartu-emanaren barnebilatu behar du paradigma ideologiko batek.

## **Teoria politikoa.**

Goian aipatutako errealitate hori eraldatzeko egiten dugun garapen teorikoa eta horri lotua aurkezten dugun proposamen politiko askatzailea. Bertan, taktika eta estrategia zehatz bat jasoko dira.

## **Etika iraultzailea, antolakuntza eta bizitza ereduak.**

Egunerokotasunean horrek guztiak hartzen duen antolakuntza forma zehatza eta horri lotua doan jardueraren politikoa. Egituraketa nazionala, lokala, plangintza, antolakuntza iraultzailea eta herriaren arteko lotura, militantzia ereduak eta balio etikoak... Oro har, bizitza osotasun bezala ulertu eta antolatzeko eredu zehatz bat barnebilatu behar du paradigma iraultzaile batek, kultura forma jakin bat eraiki behar duena bere baitan.

Hortaz, argi dugu paradigma iraultzaile baten eraikuntza ezin dela garapen teoriko soil bati lotua joan. Aldi berean,

haren garapen eta izaera ezingo dugu modu linealean ulertu. Iraultza bera prozesu konplexu bezala ulertzen dugun heinean, berari lotutako proposamen politikoak izaera dialektikoa dauka, bat-batean argitu ezin daitekeena. Idatziz eta eztabaidatuz zenbait aurrerapen egin ditzakegu, baina borroka prozesuari lotutako garapena izan behar du; herriarekin bat eginez, zapalduon artean bakarrik topatuko ditugu inguratzen gaituen dominazioaren kontraesan errealak, eta baita gure planteamenduarenak ere. Errealitatearekin etengabeko hartu-eman horretan bakarrik eraiki daiteke benetan iraultzailea izango den paradigma berria.

Beraz, guk, gaur eta hemen, zenbait abiapuntu ezarri ditzakegu eta bideari ekin, baina horrek ez du esan nahi paradigma berri horren jabe garenik. Eta horrek ez gaitu kikildu behar. Hurrengo urteetan zehar ondo lan egiten badugu eta baldintza egokiak ematen badira, paradigma hasiberri honen baitako gaitasunak biderkatuz joango dira eta bere barne garapenean aurrerapauso kualitatibo eta kuantitatiboak metatuko dira. Era berean, paradigma berria oraindik osatu gabe egoteak ez du esan nahi gure konpromiso maila erdizkakoa izan behar denik; hasiera hasieratik gure buruen gain beharrezkoa den ardura maila ezarriko dugu.

## **2-Euskal Herriak paradigma iraultzaile berri baten beharra du?**

Paradigma iraultzaile bat horrela definitzen badugu, gure buruari egin beharreko lehenengo galdera da ea Euskal Herriak paradigma iraultzaile berri baten beharra duen. Horretarako, Euskal Herriko panorama politikoari erreparatzea beharrezkoa da. Goian esan bezala, ETAK abiarazitako ziklo

politiko-armatua agortuta, ziklo estrategiko berri baten atarian gaude. Asko dago esateko aurreko zikloaren garapen eta agorpenari buruz, oraingoan horretan sakonduko ez dugun arren. Hala ere, aipamen txiki bat egitea ezinbestekoa deritzogu, bai egungo agertoki politikoa ulertzeko zein paradigma berriaren eraikuntzaren norabidea ondo kokatzeko.

Gauza jakina da 2000. urteko lehen hamarkadarako Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua estrategikoki agortua zegoela. Kale itsu horri aterabidea aurkitu ezinik, bere azken momentuak bizi zituela esan dezakegu, eta ziklo berria erditzea eragin. Garai kritiko horien irakurketan, ohikoa izan da ikuspegi iraultzaile bat defendatu izan dugunon aldetik sektore erreformista eta sozialdemokrata kokatzea kritika eta erasoaldien jomugan. Zentzu horretan, zalantza izpirik ez dago sozialdemokraziak ordura arteko Ezker Abertzalearen kontrol politikoa hartu eta egitura guztiak erreformaren koordinadetan kokatu zituela, ondorio argi batekin: estrategia iraultzailea alboratzea. Hala ere, gure ustetan, porrot historikoa ulertzeko gako nagusietakoa erreformismoaren jokaldian baino, sozialismo abertzale iraultzailearen huts egitean aurkituko dugu. Hein handi batean, proiektu iraultzaileak bere helburuak betetzeko gaitasun ezak eragin zuen ENAM-en desegitea; erreformismoak abagunea behar bezala probesten jakin izan zuen, besterik ez.

Hortaz, egungo ziklo politikoaren irekiera eragin zuten gertakariak aztertzerako orduan, galdera nagusiak geure buruari (apustu iraultzailearen alde gauden orori) egin beharko genizkioke: zeintzuk izan ziren sozialismo abertzale iraultzailearen huts egiteak? Kanpo faktoreetatik haratago (errepresioa, euskal testuinguru sozioekonomikoaren eraldaketa, mundu mailako aldaketa geopolitikoak...), zeintzuk ziren estrategia eta praxi

iraultzaileak berezko zituen hutsune eta gabeziak? Ziklo politiko berriari aurre egiteko gako asko aurkituko ditugu galdera horiei modu egokian erantzuten badiegu. Aurrerantzean ere, gure ibilbidearen irakurketa kritikoa egiterako orduan hau kontuan hartu beharko dugu; ohikoa daukagun begiradaren noranzkoa aldatu eta besteek egiten dutena epaitzetik, gure barrura begira jartzea. Azken finean, proiektu iraultzailea maila sozialean gauzagarria dela erakutsi beharko dugu, eta hori, oztopoak oztupo, iraultzaileon ardura baino ez da izango.

Hau guztia esanda, gaur egungo panorama politikoa aztertzea dagokigu, modu arinean bada ere. Horretarako, Euskal Herriko eskenatoki politikoa goitik behera analizatu baino, maila nazionalean garrantzia duten eragile nagusietara joko dugu. Paradigma iraultzaile berri bat eraikitze bidean gauden honetan, egun martxan dauden proposamenekiko alderaketa bat beharrezkoa dugu. Alegia, espazio politiko batek dagoeneko gure planteamenduaren oinarri berdinak konpartituko balitu ez luke zentzurik izango paradigma berri baten eraikuntzan hasteak. Horrez gain, ondorengo analisiak izaera kritikoa duen arren, hausnarketok ez ditugu egiten aipatuko ditugun eragileak epaitu ezta mespretxatzeko asmoz. Plano politikoan normaltasunez egin beharreko hartu-eman dialektikoaren baitan kokatzen dugu ariketa hau. Horrela, aurrerago gure oinarriak aurkeztu eta berauetan sakonduko dugun heinean, horien gainean egoki ikusten diren kritikak jasotzeko prestasun osoa erakusten dugu.

Modu horretan, gaur gaurkoz, publikoki eta estrategia zehatz baten baitan egituratutako hiru espazio argi identifikatu daitezke eremu abertzale/euskaldun eta ezkertiarrean:



**-Sortuk** gidatzen duen espazio politikoa. Euskal Herriko mugimendu iraultzailearen nukleo nagusia izan zen aurreko fase historikoan. Borroka armatua eten ondoren, Euskal Herriaren independentzia formala lortzera bidean fronte zabalaren faseari ekin dio, esplizituki sektore sozialdemokratik direnekin aliantzan (EAK ordezkatzeko dituenak). Oinarri horietatik abiatuta babes soziala zabaltzeko borondateak, dominazio harremanak gainditzeko proposamen erradikalei heltzeko aukerak murriztu dizkio, xede iraultzailea eta diskurtsoa lausotuz. Hartara, agerikoa da ikuspegi iraultzailea albo batera utzi duela eta ordezkartzeko demokraziaren dinamika instituzionalean murgilduta dabilela, erreformismoa ardatz politikoa nagusitzat hartuta. Dena den, bere garrantzia eta herri mailan duen oinarri soziala ukazina da, eta hortaz, besterik gabe ezin borrokaren mapatik baztertu. Bide iraultzailea utzi izanak ez du ukatzen zenbait borroka esparrutan kontuan hartzeko eragilea denik. Edozein modutara ere, gaur gaurkoz, alternatiba askatzaile bat eraikitzeko gaitasunak mugatuak dituela argi ikusten dugu.

**-Ildo sozialista** (GKS, IA, Kontseilu Sozialistak, Itaia, Gedar, Erraki, Ekida...). Marxismoaren erroetara jo eta jatorrizko proiektu komunista iraultzailea berreraiki nahian dabilen espazioa. “Alderdi Komunista”ren kontzeptuaren inguruan proposamen estrategiko argi bat eraiki dute eta bizitzaren adierazpen ezberdinak horren baitan antolatzeari ekin diote. Saiakera benetan goraiagarria. Momentuz, testuinguru iraultzailean hegemonia lortzeko aurrerapauso argienak ematen dabilen espazioa da, “disidentziaren” gero eta elementu gehiago bereganatzeko aukerak handituz. Orain arte eginiko bidean zenbait gabezi antzematen baditugu ere, ukatzerik ez dago hartutako norabidean aurrerapen sendoak eman dituz

tela, lan militante serio eta finaren emaitza. Zentzu horretan, etorkizunean, horretarako baldintzak sortuko balira, interesagarria izango litzateke esparru batzuetan elkarlanean aritzeko aukera zabaltzea. Edozein modutara ere, gure ustetan, ezker iraultzailearen baitako gabezia historikoak gaintitu gabe jarraitzen dute, tartean pertsona-subjektuaren ulerkerari dago-kionez (hertsiki arrazionala eta erredukzionista), pertsonaren beste dimentsioei pisu gutxiago emanaz (emozioak, alienazio psikologiko-ideologikoa, *espiritualitatea...*). Ulerkera horren bidez praktika mikropolitikoei ez dirudi behar beste energiarik eskaintzen diotenik (egoa edo aspektu inkontzienteen inguruko lanketa, militanteen artean zein kanpo eragileekin komunikatzeko eta harremantzeko moduak, pertsonalitatearen eraldaketa iraultzailea eta maskulinitatearen lan-keta...). Genero harremanak eta patriarkatuaren gaurkotasuna ulertzerako orduan ere desadostasun nabarmenak antzema-ten ditugu, patriarkatua oraindik indarrean dagoen Domi-nazio Sistemaren zutabe bezala ulertzen baitugu guk.

Horrez gain, gure ustez, gehiegizko bertikalismoan eta zenbaitetan autoritarismoan oinarritutako antolakuntza ere-dua darabilte.

- **Jarki-Jardun.** Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren tradizio iraultzailea berreskuratzen saiatuko den espazioa. Orain arte ezezagunen zaigun espazioa da, diskrezio han-dienarekin ibili baita lanean. Publiko egin dituzten hausnarketeta-tik abiatuta, gidaritza-eragile bat sortu dutela ondorioztatzen dugu, bere baitan Euskal Herriaren askatasunaren alde egiten duten herri mugimendu zein espresio politiko anitzak aglutina-tu eta gidatuko dituena. Momentuz, hainbat herri ekimen edo eragile iraultzaile txiki batu ditu Jardun deitutako bide-orri

taktikoan. Aurreko ziklo politikoaren ardatz izandako “Independentzia eta Sozialismo”rako proposamen estrategiko klasikoa darabilte eskuartean. Planteamenduak bertute ugari ditu eta baliteke etorkizunean zenbait elkargune aurkitzea. Hala ere, ikuspegi estrategiko horren zutabe nagusiak egungo testuiguruan agortuta daudela uste dugu eta berrikuspen eta berreraikitze sakona beharko lukete.

Aurreko hiru espresio antolatuez gain, egun Euskal Herrian pisu nabarmena duen **mugimendu feministari** aipamena egin nahiko genioke. Heterogeneoa den bezala, korronte asko barnebiltzen ditu, eta horregatik ez da agertzen estrategia argi baten baitan egituratuta. Hala ere, bere baitan diharduten korronte horietako batzuk norabide egokian aurrerapausoak ematen dabiltzala deritzogu, eta potentzial iraultzaile handia dute. Izan ere, gure existentzia bera (Kimua proposamenarena) ez litzateke posible izango gutako askok bertan egindako ibilbiderengatik ez balitz. Horrez gain, ukaezina da feminismoaren eskutik etorri direla azken hamarkadan eskenatoki politikoa zeharkatu duten ekarpen nagusietako batzuk. Patriarkatuaren aurkako borroka historikoan laugarren olatu bezala ezagutu den honek berriro ere mahai gaineratu ditu erraztasun handiegiarekin ahazten diren ezarpen ugari. Baita berritzaileagoak izan diren beste asko ere, are lanketa sakonagoa beharko dutenak denon partetik. Hortaz, aurrekoak bezala, Euskal Herriko mugimendu feministak kontuan hartzeko espazio politikoa osatzen du.

Esan bezala, honekin guztiarekin, ez ditugu goiko espresio eragizatiboak epaitu ezta mespretxatu nahi. Horietako bakoitzaren bertuteak, baina baita konpartitzen ez ditugun elementuak azpimarratuz, Euskal Herrian oraindik espazio

politiko berri bat eraikitzeko aukera egon badagoela azpimarratu nahi dugu. Horregatik, gurea ez da aurrekoak ordezkatzera edo garaitzera datorren proposamena. Alderantziz, aurrekoek lantzen ez dituzten eta landuko ez dituzten bide ugari daude, eta horiek jorrazera gatoz gu. Zentzu horretan, ausartak izan beharko garela uste dugu eta huts egiteko beldurra alde batera utzi. Historiak ezarriko du ildo politiko bakoitzaren zein ezaugarrik lortuko duen ugaldu eta gorputz sozialean zabaltzea. Gainera, bide berri horiek jorrazteko aukera ziklo politiko berriaren irekierarekin bakarrik izango da posible; ziklo politiko berria zenbat eta ezarriago egon, are zailagoa izango da ezer berria abiaraztea. Aniztasun ideologikorako garai historiko batean murgilduak gaude Euskal Herrian eta ez dugu aukera igarotzen utzi behar. Edozein modutara ere, berandu baino lehen denok egingo dugu bat Euskal Herriko askapen mugimenduaren baitan, bakoitza bere bidetik irabazitako irakaspenekin. Hori ez genuke inoiz ahaztu behar.

Beraz, Euskal Herrian paradigma iraultzaile berri bat eraikitzeko espazio eta aukera argi bat aurkezten zaigula uste dugu. Eta horrek paradigma berriaren eraikuntza abiatuko duten oinarrizko ardatzak identifikatzera garamatza, aurreko proposamenekiko kualitatiboki ezberdinak diren ardatz bezala aurkezten ditugunak. Aurrerantzean gure bidea gidatu eta paradigma berriaren zutabe bilakatuko diren ardatzak dira ondorengoak:

- **Dominazioa osotasun bezala.** Dominazioa prozesu historiko konplexu bezala eta bere osotasunean ulertu: era integralean, ez modu zatikatu eta bereizian. Gaur egun kapitalaren baitako kategoriak zentralak izanik, aurretik datozen kategoriak (patriarkatuari edo kolonialismoari lotutakoak, esaterako)



Dominazio Sistemaren parte banaezina dira oraindik, eta dominazioak osotasun bezala duen funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoak. Horrez gain, dominaziorako oinarri materialekin batera, mentalitate dominatzailearen garrantzia eta bien arteko lotura ulertu behar dugu.

- **Patriarkatua.** Aurrekoaren baitan patriarkatuak garrantzi berezia du. Bere ulerkera eta dominazioaren baitan betetzen duen papera argitu behar dugu; baita horrek dituen islak teoria politikoan, antolakuntza forman eta izaera militantean.

- **Kolonialitatea eta Nazio Auzia.** Pentsamendu dekolonialean sakondu eta horren eskutik abertzaletasunak eta nazio auziak proiektu iraultzailean izan behar duten lekua berreraiki.

- **Egia eta zientzia iraultzailea.** Egungo sisteman “egia zientifiko” bezala saltzen digutena zientzia burgesak zeharkatua eta ikusmolde positibistaren arabera eraikia dago. Horren aurrean egiaz eta berau antzemateko metodoaz hausnartu behar dugu eta izan dezaketen adierazpen iraultzailean sakondu.

- **Ekologia politikoa.** Inguratzen gaituzten eta gure parte diren aldagai biofisikoak ulertu eta paradigma iraultzailearen erdigunean txertatu.

- **Estatua.** Estatuaren ulerkeran sakondu eta gainditua izateko prozesu iraultzailean bete beharko lukeen funtzio estrategikoaren berrikuspina egin. Horri lotua, erreforma eta iraultzaren arteko loturaren berrikuspina, etapismoaren gaindipena eta baita taktika eta estrategiaren arteko konbinazioarena ere.

- **Kategoria politikoak.** Proiektu politiko askatzailearen kategoria estrategikoak ezarri: Bizitza Askea helburu estrategiko bezala; sozialismoa oinarritzko printzipio gisa, kolektibi

zazioa, auto-antolakuntza eta komunitatearen eraikuntzarako tresna bezala ulertuta; komunen arteko konfederazioa sistema politiko bezala; herri langilea eta oro har klase desjabetuak prozesu iraultzailearen oinarri legez; emakumeak antolakuntza iraultzailearen gidaritzan...

- **Etika iraultzailea eta antolakuntza eredia.** Iraultzaren baitako antolakuntza eredia birpentsatu behar dugu eta horretarako honako elementuak gako garrantzitsuak dira: koadro antolakundea, marko autonomo ez-mistoak, etika iraultzailea, formakuntza eredu integrala, zentralismo demokratikoa, kritika-autokritika... Antolakuntza eredu iraultzailea ulertzerako orduan erreferente ezberdinetatik abiatzen gara; Euskal Herrian eman diren antolakuntza tradizio ezberdinetatik hasita, munduan zehar ikusi ditzakegun erreferentzia erreal eta praktikoko ugarietara; hala nola, Kurdistango Askapen Mugimendua edota Abya Yalan garrantzia izan duten askapen mugimendu ezberdinak.

### 3-Proposamen politikoa eta oinarrizko hipotesiak

Goiko ardatzetatik abiatuta, badaukagu dagoeneko gure ustetan nahikoa sendoa den oinarria. Esan bezala, paradigma berria oraindik ez dago erabat osatua, baina paradigaren bizkarrezurra osatuko duen proposamen politikoa eta berau sostengatzen duten oinarrizko hipotesiak baditugu. Hipotesi bezala aurkezten ditugu arrazoi horrexegatik; oraindik erabat osatu gabe daudelako. Bide luze baten hasieran ematen ditugun pauso txiki bezala ikusten ditugu, jarduera iraultzailea norabide jakin

batean piztu dezaketen txingarrak. Horregatik, hipotesi horietan erantzun garbi eta itxiak aurkitu baino, galdera egokiak topatzen saiatu behar gara.

Proposamen politikoaren kasuan ere modu horretan ulertu behar dugu; oinarritzko hipotesietatik eraikitako saiakera bezala, Euskal Herriari luzatzen diogun interpelazio moduan. Egungo baldintzetatik abiatuta, praxi iraultzailea gorpuztu dezakeen sintesi politiko bezala aurkezten dugu, oraindik burutu gabea egon arren, gure jarduna gidatuko duen erreferentzia marko bezala hartuko duguna.


Hortaz, honakoak dira ondoren aurkituko dituzuen edukiak:

- Proposamen politikoa. Bizitza Askea eta Euskal Herriko Komunen Sistema.
- Oinarritzko hipotesiak.
  - 1-Dominazioaren Sistema. Klase jendartearen erroak eta egungo adierazpenak.
  - 2-Patriarkatua, dominazioaren zutabe.
  - 3-Materia, bizitza, lana. Ekologia politikoaren irakurketa iraultzailerako hainbat ekarpen.
  - 4-Etika iraultzailea eta antolakuntza.

II

PROPOSAMEN POLITIKOA

# Bizitza askea eta Euskal Herriko Komunen Sistema







## **BIZITZA ASKEA ETA EUSKAL HERRIKO KOMUNEN SISTEMA**

Proposamen politiko honetan, liburuxkaren azken atalean sakontzen ditugun oinarritzko hipotesietako edukiak jasoz eraiki dugun sintesia aurkezten dugu. Oinarritzko hipotesiok lau ardatzen gainean hezurmamitzen dira: Dominazioaren Sistema eta klase jendartea; patriarkatua; ekologia politikoa eta etika eta antolakuntza iraultzailea. Proposamen politikoan zehar ardatz horien gainean esandakoak azken ataleko testuetan sostengatzen dira.

Edozein korronte edo paradigma ideologikok proposamen zehatz baten beharra du. Epe luzerako helburu estrategiko bat identifikatzea da horretarako lehenengo pausoa, eta ondoren ikusiko dugun bezala, horrek bere zailtasunak badituen arren, zeregin errazena litzateke. Guk Bizitza Askea bezala definitzen dugu etorkizuneko momentu hori, baina seguru aski, goian aipatu ditugun eragile politiko gehienek epe luzeko antzerako helburu estrategikoa darabilte esku artean. Nork ez du nahi inolako esplotaziorik eta klase sozialik gabeko jendarte askea? Politikaren erronka, are gehiago politika iraultzailea gauzatzeko apustuan gaudenona, hori posible egin dezaketen bide zehatzak arakatzear datza. Eta elkarrekiko zintzoak bagara, inork ez daki gaur egun hori zelan gauzatu. Inork ez dauka dominazioaren aurrean iraultza soziala gauzatzeko errezeta. Bestela ez ginateke gauden egoeran egongo.

Horregatik, honako proposamena saiakera bezala aurkezten dugu. Bertan, bide iraultzaile hori argitzen joateko zenbait gako aurkezten ditugu eta gure ikuspegiaren arabera garatu: gure helburu estrategiko iraultzailearen definizioa; erreforma eta iraultzaren arteko harremanaren nolakotasuna; herri bote

rea eta sozialismoaren ulerkera; Estatuak, nazio askapenak eta independentziak iraultza prozesuan bete beharreko funtzioa; eta prozesu horrek gure lurretan hartu lezakeen forma zehatza: Euskal Herriko Komunuen Sistema.

## 1-Helburu estrategiko iraultzailea

Dominazioaren hari historikoa jabetza pribatua, patriarkatua, kolonialismoa eta Estatuaren bitartez eraikitzen joan den osotasun material eta ideologiko bezala ulertzen dugu, bere azken adierazpena modernitate kapitalistaren eskutik eman delarik. Dominazioaren logika horren pean sistematikoki apropiatua eta subordinatua izan da giza existentzia osatzen duen katea (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena), etengabe birsortzen den egiturazko biolentzia eraginez eta gutxi batzuen botere metaketa ahalbidetuz. Biolentzia kapitalista, beraz, lana eta kapitalaren arteko kontraesanetik eratorria; biolentzia patriarkal eta kolonialarekin konbinazio makurra osatzen duena. Eta Euskal Herrian nazio auziarekin bat egiten duena. Izan ere, gurean modernitate kapitalista Estatu frantses eta espainiarren eskutik inposatua izan da, bertako oligarkiekin aliantzan eta herri eta komunitateen aurka. Estatu egitura inperialista horien bitartez, oro har, euskal nortasuna zapaldua izan da, baina bereziki euskal herri langilea. Kolonialitateari lotua, ezin dugu ukatu euskal langileriaren baitan arrazializatutako kideek zapalkuntza inperialista are modu latzagoan jasaten dutela. Beraz, ezin dugu ahaztu, arrazakeriaz eta kolonialismoz zeharkatutako testuinguru batean, euskal jendarte zuriak (langile zuriak barne) munduan zein Euskal Herrian bertan daukan posizioa.

Horrez guztiaz gain, kapitalismoak berezkoa duen etengabeko hazkundeak, berak bultzatutako bitarteko produktiboen neurrigabeko garapen itsuarekin batera, energia eta materiaren zikloak globalki kolpatu ditu. Ondorioz, ekosistema eta espezie ugari desagertu dira dagoeneko, eta oraindik gehiagoren biziraupena kolokan egongo da hurrengo hamarkadetan zehar. Era berean, gizakiok eragindako krisi ekologiko global horrek gizakion zenbait existentzia forma ere kolokan jarri ditu. Azken finean, giza existentzia bera materia eta energia ziklo horiekiko menpekoa da, ekosistemekiko eta bestelako espezie bizidunekiko estuki lotua dagoen bezala.

Tamainako panoramaren aurrean, helburu estrategiko argi bat identifikatzea beharrezkotzat jotzen dugu. Alegia, berehalakoan eman ditzakegun hamaika erantzunetatik harago, pauso horiek zuzenduko dituen norabide zoli bat ezartzea. Hori gabe noraeza eta nahasmena nagusituko dira kapitalismoak eten-gabe eragiten duen kaos material eta ideologikoaren aurrean. Bide iraultzaileari ekiteko, beraz, zerumuga estrategikoa izatea aurrebaldintza bat da. Gurean zerumuga estrategiko hori dominazio ororekin amaitzea da, esplotaziorik gabeko jendar-te askea eraikitzea; inolako klase banaketarik gabe, genero edo arrazazkoak barne. Eta horretarako, dominazioaren errora jo behar dugu: jabetza pribatua eta harekin batera datorren dominazioaren mentalitatea, gurean pentsamendu liberal-burges, patriarkal eta arrazistaz osatuta dagoena. Horien guztien abolizioarekin bakarrik eraiki ahalko dugu inolako dominaziorik gabe antolatu eta garatu ahalko den bizitzaren adierazpen askea; berdintasunean eta askatasunean oinarritutako giza existentziaren espresioa. Bizitza Askea, hain zuzen ere.

Guk Bizitza Askea gaitasun sozial gisa ulertzen dugu, giza bizitza edo existentzia modu askean antolatzeko gaitasuna, alegia; jabetza pribatua tarteko izan gabe eta mentalitate dominatzailetik aske, jendarte batek bizi prozesu osoa antolatzeko duen gaitasuna. Sintesi sozial bat, zeinetan bertako kideen arteko kohesioa, kontaktua eta harremana mantentzeko, ez den beharrezkoa izango merkantzien trukea, ezta beste inolako apropiazio ez alienazio formarik ere. Harreman horiek zaintza eta elkarlaguntzaren baitan eraikiko dira; bizitza eta existentzia komunala, komunitatea edo komunaren baitan. Barne mailako izaera aske horrez gain, bestelako bizi formekin harreman eraikitzailea eta errespetuzkoa garatzeko gai izan beharko luke sozializazio berri horrek, materia eta energia zikloak orekatu eta aberasteko gai. Giza hedapenak krisi ekologikoak eragiteko duen joera historikoa eten, eta gizakiok ekoizten dugun errealitate geruza hori edertasun eta aniztasun iturri izatea lortu, ez heriotza eta suntsipen iturri.

Berez, Bizitza Askeari esleitzen diogun adiera hori komunismoak bere jatorrian izan zuen adiera iraultzailearekin bat dator. Eta sinonimotzat har genitzake. Izan ere, langile mugimenduaren erroetara joz gero, korronte ugarik (anarkistak barne) zeukaten komunismoa ardatz estrategiko bezala. Arzoa helburu hori erdiesteko egin beharreko bidean dago, hau da, sozialismoa ulertzeko moduan. Eta hor dago gakoa: izatez, jendarte aske bat eraikitzekeo ideia argia da, arras sinplea. Nork ez du nahi askatasunean bizi, inolako zapalkuntza eta esplotaziorik gabe? Aitzitik, mendeetako erresistentzia eta askapen borroken ondoren, oraindik inork ez daki zein den jendarte aske bat eraikitzekeo jarraitu behar dugun bidea. Etikari eskainitako testuan honako ideian sakonduko dugu: gauza

bat da dominazioaren gainean ulerkera zehatz eta gaurkotua lortzea; baita etorkizuneko jendarte askearen gaineko irudikapen garbia izatea. Baina bien arteko lotura erakutsiko digun bide iraultzalearen argipena, hori beste kontu bat da. Hamarkada luzez saiakera goraipagarri kontaezinak egon dira mundu osoan zehar, baina batek ere ez du helburu estrategiko hori erdietsi. Alderantziz, gaur egun Dominazioaren Sistemak, bere adierazpen kapitalistaren bitartez, inoiz baino izaera global eta hegemonikoagoa du.

Beraz, badaukagu abiapuntua, Dominazioaren Sistema, eta baita helmuga ere, Bizitza Askea. Prozesu iraultzailean aurrera egiteko gakoa, ordea, batetik bestera egin beharreko bidean asmatzea da, sozialismoa eraikitzeko proposamenean asmatzea, alegia.

Historiak erakusten digun bezala, eta egungo mundu mailako egoerari erreparatuta, ez da makala aurrean daukagun erronka.

Gauzak horrela, iraultzarako aukerak agortuta egotetik urrun, bere horretan jarraitzen dutela uste dugu. Izan ere, historiak aurrera darrai eta horrela, dominazioa dagoen bezala, erresistentzia ere badago. Dominazioak berak, berezko dituen zapalkuntza, biolentzia eta desorekarako bultzadak hamaika kontraesan azaleratzen dituztelako gertatzen da hori; barne mailan, bere baitan bizi garen desjabetuon aurka denetariko zapalkuntzak gauzatu. Kapitalisten artean ere, konpetentzia gero eta latzagoa sortuz eta zailago bihurtuz gainbalioaren ekoizpena eta metaketa. Kanpora begira, aldiz, sistema sostengatzen duten baldintza material eta energetikoen gain desorekak eraginez. Horrekin guztiarekin, Dominazioaren Sistema gaur egun pairatzen ari den krisia azken hamarkadetan eman

den handiena da. Ez bakarrik Euskal Herrian; Estatu espainiar zein frantziarrean edo Europa mailan ere. Mundu mailako krisi sozial, politiko, ekonomiko eta ekologiko larri baten aurrean gaudela ezin du jadanik inork ukatu. Kontraesan horietan guztietan, eta horietatik eratortzen diren erresistentzia borroketan, aurkituko dugu iraultzarako bidea argituko digunugarra.

## 2-Bide iraultzailea eta herri boterea

Beraz, zailtasunak zailtasun, orain arte ikusitakoarekin bide iraultzailearen nolakotasuna antzematen has gaitzkeela uste dugu. Hona hemen prozesu iraultzaileari ekiteko zenbait gako:

Lehenengo eta behin, Bizitza Askea ezin da isolatutako esperientzia bat izan, jendarte kapitalistaren bazterrean bizi den esperientzia “alternatiboa” edo komuna hippya; lehenago edo beranduago kapitalismoak zuzenean zanpatuko luke, edota merkatuko sareek irentsi. Gainera, horrelako esperientzia mikro-politikoek izan ditzaketen bertutez harago, gure proposamenak osotasun soziala barnebildu behar du: hau da, jendarte osoari erantzun bat emateko gai izan behar da, eskala sozialean aplikagarria den proiektua. Era berean, herrialde bakar batek, bere osotasunean bada ere, ezingo dio inoiz bere kabuz bide horri ekin. Mundu mailako kapitalismoaren aurrean, komuna hippyaren antzera zanpatua izango litzateke, edo are txarrago; autodefentsara bideratutako zurrunbilo militarista eta autoritario hutsean agortuko litzateke. Beraz, Bizitza Askearen ezarpen erreal eta osoa, mundu mailako prozesu iraultzaile baten bidez soilik gauzatu daiteke.

Hau da, Bizitza Askea eraikitzeke proposamenak, ezinbestean, izaera internazionalista eduki behar du.

Marko orokorra hori izanik, borroka iraultzaileak abiapuntu bat izan behar du. Eta gure ustetan, erresistentzia abertzaleak bizirik dirauen herriontzat behintzat, prozesu iraultzaileak abertzalea ere izan behar du. Hau da, guretzako klase borrokaren garapenerako eta Bizitza Askearen eraikuntzarako markoa Euskal Herria izan behar da. Hartara, euskal lurretan ezingo da inolako askapen prozesurik gauzatu lurralde horiek espainiar eta frantziar Estatuaren kontrolpean jarraitzen duten bitartean. Aldi berean, Euskal Herrian askatasunaren bidean ematen dugun pauso bakoitzak borrokan diharduten gaitzetzeko herrien askapen prozesua elikatuko dutela ziurtatu behar dugu.

Bestalde, bide iraultzaileak aurkituko duen beste zailtasunetako bat dominazioa sostengatzen duten oinarrizko egituretan dago: egiturek egon badaude eta egitura horien mugen barruan ere mugitzeko gaitasuna erakutsi behar du prozesu iraultzaileak. Patriarkatuarekin argi ikus dezakegu hori. Esate baterako, abortua legeztatzerako orduan, legearen baitan gauzatzen den lorpen bat da. Horren bitartez, emakume gisa gure posizioa ez bairik gabe hobetzen da, baina hobekuntza hori patriarkatuaren mugen barruan gertatzen da, bere kategoriak ez baitira gaitzitzen. Abortua legeztatuta ere, sexu-genero diskotomiak bere horretan jarraituko du, emakumeon gorputzen gaineko sexualizazioak edota familia nuklear heterosexualak jarraituko duen bezala. Bortxatuak eta erailak izaten jarraituko dugu, baina orain, abortatu ahal izango dugu. Emakumeok gizonetikiko dugun distantzia soziala murriztuko da, baina, berriz diogu, patriarkatuak ezartzen dituen mugen barruan



gertatzen da hori. Gure jarduera politikoak horrelako hobekuntza erlatiboak jaso behar ditu, noski, baina horrek ez dio gure jarduerari izaera antipatriarkal iraultzailea esleitzen.

Salarioarekin, eta oro har merkatu harremanekin antzera gertatzen da. Soldatapeko lana botere burgesaren sorburua da, gainbalio eta kapital berriaren iturria, enajenazio kapitalistarako bektorea. Jendarte aske batean ezingo litzateke lan asalariaturik egon. Hala ere, gaur egun, langile klasearentzat salarioak biziraupenerako baldintza suposatzen du; janaria, etxebizitza, sozializazioa posible egiten duten produktu eta zerbitzuak... soldataren bitartez soilik daude eskuragarri langile klasearentzat. Suntsitu beharreko harreman soziala da salarioa, bai, baina gaur berari lotuak bizi gara. Gauzak horrela, patriarkatuarekin bezala, bere burua iraultzailatzat duen mugimendu batek kapitalaren eta soldataren mugen barruan ere langile klasearen bizi baldintzen hobekuntza ziurtatu behar du. Berez, salarioaren baitako borroka ez du gauza handirik konpontzen; soldata igotzeko edota alokairua merketzeko borrokatzen garenean, burgesarekiko langile moduan dugun posizioa hobetzen dugu; gure lan-indarraren ordaina igo eta gure erreprodukziorako gastuak gutxitzen dira.

Baina hobekuntza horiek kapitalaren mugen barruan gertatzen dira, bere kategorien arabera; merkantzia, dirua, soldatapeko lana, gainbalioa... eta beraz, esplotazioak bere horretan jarraitzen du.

Mugimendu kooperatibistarekin, edo azken aldian bogan dagoen “ekonomia sozial eta eraldatzailearekin”, inon baino argiago ikusten da hori. Merkantziaren baitan justizia sozialerako eta sistema ekonomikoaren eraldaketarako espazioa dagoenaren ustetan, esperientzia kooperatibista ugari jarri

dira martxan azken hamarkadan Euskal Herrian. Azpimarratu nahiko genuke hemen, merkantzien ekoizpen eta salerosketak, bereziki erabat globalizatua eta elkarlotua dagoen kapitalismoaren baitan, kapitalaren legeei bakarrik erantzuten diola. Horrela, merkantzien ekoizpena lotuak mantentzen diren bitartean, *balio* formak inposatzen dizkien mugetan harapatuta egongo dira esperientziok. Are txarrago, kapitalismotik kanpo dabilzanaren ilusioarekin, sozializazio forma kapitalistaren barruan (jabetza pribatua, merkantzia, soldata, dirua) gero eta sakonago hondoratzen ikusiko ditugu. Merkaturik irten ezinik, kompetentziaren logikan kateatuta egongo dira beti: jarduera ekonomikoa errentagarri bilakatzera behartuta egongo dira, kualitatiboki zein kuantitatiboki etengabe haztera behartuz. Modu horretan, arinago edo beranduago, hurbilago edo urrunago, merkantzia katearen lekuren batean esplotazioa eta zapalkuntza eragitera kondenatuak daude. Aitzitik, errentagarritasun hori ezin badute ziurtatu, enpresaren bideragarritasun faltaren aurrean porrot ekonomikoa letorke. Kasurik txarrean, errentagarritasun falta horren aurrean norbere buruaren auto-esplotazio tasa ikaragarri altuak onartzera bultzatuta egongo dira, ekintzaile, ekoizle txiki edota kooperatibista bezalako figuren pean klase nortasuna erabat desitxuratua.

Honek guztiak ez du esan nahi kooperatibarik eraiki behar ez dugunik, edo merkatuaren baitako baliabideak erabiltzeari uko egin behar diogunik, ezta salarioaren baitako borroka suspertzera indarrik bideratu behar ez dugunik ere. Baina kooperatiba batek, edo lan baldintzen hobekuntzaren aldeko borrokak, bere horretan, ez dio kapitalismoari alternatiba bat aurkezten, kapitalismoaren adierazpen alternatibo bat baizik.

Erreforma hutsak dira mugimenduok; Dominazio Sistemaren baitan, eta bere kategorien bitartez gauzatu ditzakegun hobekuntza kuantitatiboak: 1.000€ irabaztetik, 1.500€ irabaztera; alokairuaren prezioa 800€tik 500€ra pasatzea... Aitzitik, bere horretan ez digute kualitatiboki ezer ezberdina eraikitzeko aukerarik irekitzen. Ez dute dirua, merkantzia eta jabetza pribaturik gabeko errealitate sozialik eraikitzen. Are gehiago, modu isolatuan ulertzen baditugu, horren kontrako norabidea har dezakete; dominazioaren logikaren barruan leku erosoagoa, bizigarriagoa edota *alternatiboa* badagoela sinestera hel gaitzke.

Garrantzi handiko ezarpenak dira honakoak, erreformak eta iraultzak izan behar duten harremanaz ari baikara hemen; erreforma eta erreformismoaren arteko ezberdintasunez, hain zuzen ere. Hau da, iraultzaren zerbitzura dagoen erreforma, alde batetik; edota iraultza ordezkatzeko duen erreformismoa, bestetik. Edozein iraultzailek argitasun kristalinoarekin ulertu beharreko ezberdintasuna da hori. Eta zelan jarri erreforma iraultzaren zerbitzura? Bada, erreformaren baitan gauzatzen den mugimendu oro, indar eta baliabide metaketa bezala gertatu behar da, botere forma burges, patriarkal eta kolonialetik at eraikitzen joango diren adierazpen politiko, produktibo eta sozialak elikatzerako bideratuko direnak. Jabetza pribatua, *balio* forma eta soldatapeko lanetik at, kolektibizazioan eta zaintzan oinarritutako sozializazio eta ekoizpen espazioak elikatzerako. Azken finean, Bizitza Askearen baitako botere forma berria zuzenean eta berehala elikatu eta eraikitzerako bideratuta egongo direnak. Bakarrik horrela lor daiteke erreforma aurrerapen estrategikoak sostengatu eta elikatzeko norabidean jartzea; soilik modu horretan lor daiteke sozialismoak mugimendu errealki iraultzaile bezala jardutea. Alegia, gaur ematen dugun

pauso bakoitzak etorkizuneko Bizitza Askearen prefigurazioa izan behar du; egiten dugun bideak berak helburua erakutsi behar digu. Hori lortu ezean, iraultza adierazpen teoriko soil bezala aurkezten bada, erreferentzia alegoriko huts bezala, ezer gutxik ezberdinduko luke sozialismo iraultzailea eta erreformismoa.

Horregatik guztiagatik, prozesu iraultzailea izaera kualitatibo ezberdina duten bi mugimendu forma uztartzeko gai izan behar da: alde batetik, Dominazioaren Sistemaren mugen barruan zapalduen egoera erlatiboki hobetuko duten mugimenduak; eta beste alde batetik, sozializazio forma berriaren edukiak gaurdanik eraikiko dutenak. Horretan datza Herri Boterearen eraikuntza; ibilbide luzeko aurrerapauso estrategikoekin batera, berehalako hobekuntza eskainiko diguten pauso labur-taktikoen konbinazioa dialektikoa.

### **3-Estatua, sozialismoa eta nazio askapena**

Herri Boterearen forma horrek, gure ustetan, Nazio Askapenerako Mugimenduetan garrantzi handia izan duen etapismoa inpugnatzen du. Horren arabera, nazio askapenerako prozesuak, gutxienez, bi fase edo etapa izango lituzke. Lehenengo, independentzia nazionala ziurtatuko duen fasean indarrak bildu, burgesia nazionalarekin aliantza exijitzen duena, eta hortaz, izaera burgesa duen Nazio-Estatu propio bat eraikitzea ahalbidetuko lukeena. Independentzia formala erdietsiko litzateke horrela, kategoria juridiko burgesen arabera eta nazioarteko legeari begira, subjektu independente bezala gauzatuko litzatekeena. Ondoren, Estatu berri horrek eskainiko lizkioken tresnekin sozialismoaren eraikuntzari ekingo lioke askapen

mugimenduak. Horregatik Independentzia *eta* Sozialismoaren aldarria; lehenengo bata, eta gero bestea. Aurrerapauso taktiko eta estrategikoak modu konbinatu eta dialektikoan eman behar direla aldarrikatzen dugunean, nazio askapenaren, eta oro har, iraultzaren izaera etapista kolokan jartzen dugu. Eta horrekin, Estatuaren gaineko kontrolak prozesu iraultzailean zehar jokatu beharreko papera ere kolokan jartzen dugu.

Estatua, Neolitoan jaio zenetik, botere metaketa eta dominazioa eskala sozialean inposatzeko egitura da. Modernitatea-ekin batera izandako moldaeren ondoren, botere burgesaren adierazpen gorena bilakatu zen. Merkatuak igortzen duen isla politikoa, masa jendarte industrialia kudeatzeko: eskola, kartzela, armada erregularra, polizia, burokrazia... Bat eta banaezina izan beharko lukeen bizitza prozesua zatikatu eta berau modu berezian administratzeko egitura da Estatu modernoa. Beraz, botere burgesaren adierazpena da Estatua; errealitate sozialak dominazioaren logikapean jarraituko duenaren bermea, hain zuzen ere. Horregatik, jendarte aske batean ezin da Estaturik egon, eta sozialismoaren betebeharra, Bizitza Askera gidatuko gaituen prozesu bezala, Estatu hori desagitea da. Baina zelan egiten da hori? Soldata edo diruarekin gertatzen den bezala, ezin dugu Estatua, besterik gabe, existituko ez balitz bezala egin. Nola edo hala Estatuarekin kontaktuan jarri beharko gara.

Zentzu horretan, askok aldarrikatu izan dute Estatua sozialismoa eraikitzeko tresna dela. Gure ustez, Bizitza Askera hel- tzeko bidea sozialismoa dela esan badugu eta bere betebeharra Estatua suntsitzea bada, kontraesan larri baten aurrean gaude; darabilgun tresna (Estatua) eta tresna horrekin suntsitu behar duguna (Estatua) ezin dira gauza bera izan. Audre Lordek zioen bezala, “jabearen erremintek ez dute inoiz jabearen etxea

suntsituko”. Horren aurrean, iraultzarako tresna sozialismoa izan beharko litzateke beti, ez Estatua. Hau da, sozialismoa ezingo da inoiz Estatuaren bitartez eraiki; sozialismoa Estatuaren aurka eraiki behar da beti. Besteak beste, Estatua ez delako kontinente hutsa; badituelako berariazko edukiak, bere izaera eta autonomia propioa, beti dominazioaren norabidean lerrokatuko dutenak. Horrek ondorengo ondorioztatzera garamatza: Estatuarekin ezertan hasi baino lehen sozialismoa martxan egon behar den prozesua izan behar da; hau da, indar sozial auto-eratu bezala ageri behar da, bere burua birsortzeko gai, jendartean zehar hedatu eta hazteko gai. Ondoren bai, antolakuntza iraultzaileak modu ezberdinetan jaurti dezake sozialismoa Estatuaren kontra.

Beraz, gure ustetan, Estatua ezin da inoiz sozialista izan. Indar sozialista batek klase borroka dominazioaren erraietara eramateko gai ikus dezake bere burua eta Estatuaren zenbait egituretan txertatu, berauek sunsitzeko asmoz. Baina horrek ez du Estatua subjektu sozialista bilakatzen, eta hortaz, iraultzaileok ez genuke Estatu Sozialistaren aldarria luzatu beharko. Estatu egiturak ezin dira sozialista bilakatu; dirua edo merkatua sozialistak izan ezin daitezkeen bezala. Horregatik, sozialismoa Estatuaren bitartez eraikitzeko proposamenak asimilazio eta erreformismoan itotzera kondenatuak daude.

Ondorioz, indar iraultzaileak Estatutik kanpo, eta Estatuaren kontra, izan beharko du beti bere erdigune, bihotz eta erabakigune estrategikoa. Sozialismoa Estatutik kanpo antolatutako subjektu autonomoa izan behar da beti. Hartara, Estatuaren erraietan sartzea erabakitzen badu, behin dominazioaren lokatzetan lepora arte murgiltzeko prest dagoenean, hori izan-go du bidean galduko ez denaren berme bakarra; norabide

iraultzailea iparrorratz izaten jarraituko duenaren bermea. Horregatik guztiagatik, aurrerapen estrategiko iraultzailearen funtsa Estatutik kanpoko eremu hori elikatzean datza, eta horretarako, Estatuarekin ezertan hasi baino lehen, eremu iraultzaile hori egotea ezinbesteko baldintza da.

Hori da Herri Boterearen oinarrizko printzipioa: botereak Estatuaren bitartez hartzen duen forma suntsitzen hasi, Estatutik kanpo eraikitzen doan botere forma berria elikatuz doan bitartean.

Aurreko guztia nazio askapenerako borrokara ekarrita, ez dugu esan nahi Euskal Herriaren independentzia formala bultzatu behar ez dugunik. Lehenengo eta behin, balizko euskal Estatu horrek zenbait hobekuntza objektibo lor litzake, batez ere euskalduntzeari begira eta oro har euskal kulturaren indartzeari begira. Horrez gain, euskal Estatu lortu zein ez, independentzia formalerako prozesuak berak ezegonkortasun garai bat zabalduko luke. Mugimendu iraultzaileak horren baitan agertu litezkeen botere hutsuneak probestu ahalko litzuke prozesu iraultzaileari bultzada emateko. Hala ere, independentzia formalaren aldeko prozesuak ez luke askoz ere gehiagorako emango. Ulertu beharra daukagu finantza-kapitalismo globalizatuan Estatu gero eta tresna zaharkituagoa dela. Are gehiago Euskal Herria bezalako herri txiki batentzat, Europako erdigunean kokatuta dagoena. Formalki independentea litzatekeen Estatu horrek zinez gaitasun gutxi izango litzuke. Merkatu finantzario globalari lotua, programa sozialista iraultzailean inongo aurrerapenik egiteko aukerarik ez litzateke egongo Estatu egitura horien bitartez. Eta horretarako determinazioa erakutsiz gero, erraztasun handiarekin hondoratuko lukete indar kapitalistek. Egun, Euskal Herriarentzako

subjektu ekonomikoa, ehun produktiboaren gaineko kontrola duena, gero eta gehiago Europa mailako eskalan ebazten da. Hortaz, posizio geopolitiko horretan, bakarrik kapitalismoaren muga hertsien barruan, norabide liberal edo sozialdemokratan jardun ahalko luke balizko euskal Estatu independente batek. Eta hor ere, kapitalismoaren egungo egoera ikusita, programa sozialdemokrata praktikara eramateko zailtasunak ikusten ditugu.

#### **4-Komunen Sistema eta independentziaren adierazpen komunala**

Horrekin guztiarekin, subjektu sozialista iraultzailea eratu eta indartu gabe euskal Estatuaren gainera badatorkigu, kinka larrian legoke prozesu iraultzailea; sozialdemokraziak alde batetik eta euskal burgesia handiak bestetik, zirrikitu oro beteko lukete. Kasu horretan, iraultzarako aukera bat baino, kale itsu bat aurkituko genuke independentzia formalerako prozesuan. Horrexegatik, iraultzaileon betebeharrak nagusia, gaur egun, sozialismo iraultzailea berreraikitzea da. Eta horren bitartez, Herri Boterea gorpuzten joan, Komunaren eraikuntza aurre-rapauso estrategikoen erdigunean jarritz.

Komuna prozesu iraultzailearen oinarrizko unitate bezala ulertzen dugu, klase desjabetuak modu gero eta kualifikatuagoan antolatzea ahalbidetuko duena. Hasiara batean, etorkizuneko Komuna iraultzailearen ernamuina izango direnak herri edo auzo bilgune edo asanblada bezala martxan jarri daitezke; baita elkarlaguntza edo langile autodefentsa sare bezala ere. Auzo eta herri mailan errotuta egongo diren hasierako subjektu kolektibo hauetan, dominazioaren baitako hobekuntza erlatiboak



elikadura, emakumeon eskubideak, lan baldintzak...)). Herri langilearen berehalako bizi baldintzak hobetuko genituzke horrela. Aitzitik, aldi berean, dominazioaren logikatik kanpo, balio forma eta soldatapeko lanetik haragoko produkzio eta erreproduktzioarako formulak garatu beharko lituzkete espazio horiek. Kolektibizazioan eta zaintzan oinarritutako sozializazio eta produkzio espazio askeak, hain zuzen ere. Zentzu horretan, despatriarkalizazioa lan lerro estrategiko bezala ezarri beharko lukete: lan erreproduktiboen kolektibizazioa gauzatu, gizonezkoen jarrera matxista eta patriarkalak deseraiki, botere harremanak orekatu... Eta horretarako, sare horien baitan txertatuta egonda ere izaera autonomoa edukiko duten antolakuntza marko ez-mistoak orokortzea ezinbesteko ikusten dugu.

Bestalde, sozializazio berri baten argitzea ez da bitarteko produktiboen kolektibizaziotik automatikoki ematen; aldagai sinboliko eta kulturalen eraldaketa kontziente eta politiko baten beharra du. Kapitalismoan nagusi den miseria emozionalari ere erantzun bat eman beharko litzaioke. Mentalitate dominatzailea gainditzea, beraz, eta bere ordean, eredu etiko eta kultural iraultzailearen eraikuntza.

Hartara, balio etiko iraultzaileen inplementazioarekin batera, komunek euskalduntzea eta euskal kultura izan beharko dute ardatz. Gure herriko ohiturak, azken hamarkadetan pairatu duten folklorizazio eta merkantilizaziotik berreskuratu, eguneratu eta jendarte eredu berriaren zutabe bilakatu. Zentzu horretan, euskal memoria kolektiboan leku esanguratsua duen baserriar jendarteak, bizitza askearen ezaugarri ugari zituenak, askapen borrokan inspirazio iturri bilakatu behar ditugu: komunitatea, ekonomia naturala, auzolana, elkarrekin harremantzeko logi

ka kolektiboak, herri-lur komunalak edota oinarrizko egitura demokratiko-komunalak (kontzejoak, batzarrea, biltzarra).

Era berean, ulertu beharra daukagu gaur egun Euskal Herria osatzen duten lurraldeetan euskal kultura zuri eta katolikoarekin bat ez datozen bestelako adierazpen linguistiko eta kulturalak egon badaudela. Jatorri (arabiarrak, latinoak, beltz afrikarrak, andaluzak, txinatarrak, ijitoak...) zein sinesmen (musulmanak, ortodoxoak, katolikoak, ebangelistak, ateoak...) ezberdinen konbinazioz sortutako komunitate horiek lekua izan behar dute nazio askapenerako prozesuan. Euskalduntze prozesua alde batera utzi gabe eta euskarak prozesu iraultzailean izan beharreko egiturazko funtzioa aitortuta, nazio askapenerako prozesuak egungo errealitate multikulturala kontuan hartu behar duela uste dugu. Eta errealitate hori borroka marko abertzalean txertatzeko ahalegina egin. Horretarako, ezinbestekoa da aberriaz eta nazioaz daukagun ulerkera aldatzea. Gure ustetan nazioa bere dimentsio politikoan ulertu beharko genuke, lurralde jakin bateko komunitateek adierazten duten borondate politikoari lotua, ez ezaugarri etniko edo kultural zehatz batzuei atxikita. Aberria, aldiz, nazio edo lurralde horren baitan klase borrokak hartzen duen intentsitate momentu bezala ulertzea dagokigu. Hau da, euskal nazionalismoan hegemonikoa izan den nazioa eta aberriaren ulerkera etniko/kulturala gainditzeko garaia dela uste dugu, Euskal Herriaren existentzia nazionala, oinarri kultural bakar eta homogeen baten existentziari lotua zihoana. Hortaz, nazio askapenerako prozesuak ezin ditu oinarri kultural euskaldunarekin bat ez datozen adierazpen kulturalak ezabatu edo gutxietsi (izaera inperialista eta orohartzailea hartzen ez badute, noski). Alderantziz, egungo euskal langileria osatzen duten espresio kultural

anitzek bat egingo duten kultura iraultzaile bat eraikitzea lortu beharko genuke. Bakoitza bere erroa mantenduz eta erro horretatik egin ditzakeen ekarpenekin, Bizitza Askearen erai-kuntzan bat eginez. Aniztasun horren baitan, euskarak kultura iraultzaile horren eroale izatea lortu beharko luke, espresio kultural horiek guztiak lotuko dituen haria bilakatu, borrokarako hizkuntza bihurtu, desjabetu orok bere bizi baldintzen hobekuntzarekin eta etorkizun aske batekin lotuko duen hizkuntza.

Gure ustetan, lanketa guzti hau martxan jartzeko ez diogu inolako etapa edo faseri itxaron behar. Lan ildoak argiak dira eta gaurdanik has gaitzake horretan. Abiapuntua xumea izango da, baina pazientzia eta konstantzia da iraultzaileon izaera ezaugarritu behar duen balioetako bat. Gainera, txikitasunetik hasteak akatsen identifikazioa eta zuzenketa erraztuko du. Era berean, Komunen garapenak aurrera egin ahala, ematen diren aurrerapausoak defendatzeko gai den autodefentsarako jardun eta egiturak eraiki beharko dira. Zentzu horretan, lurraldean errotutako esperientziak izango diren heinean, lurraldearen beraren defentsarako jarduna barnebilduko du autodefentsak. Bestalde, autodefentsaz harago, komunek elkarren artean sartzeko bultzada izan behar dute hasiera hasieratik; elkarren arteko aliantzak, konfluentziak eta konfederazioa, Komuna Sistema gorpuztuz joango dira, beraien gaitasunak biderkatuz. Hemen prozesu guztiaren gakoetako bat egongo da; batasunerako prozesu honek koordinazio eta zentralizatorako tendentzia izan beharko du ezinbestean, funtzioen banaketa eta maila bateko espezializazioa. Bada, zentralizatorako tendentzia hori, benetan demokratikoak izango diren kontrol mekanismoez zeharkatuta egon beharko da; hau da, behetik gorako norabidean eta kritika-autokritikan oinarrituak. Ohikoak

ditugun forma burokratizatu, hierarkizatu, burges eta parlamentarioetatik at, alegia.

Horrekin guztiarekin, ez dugu ahaztu behar Euskal Herri osoari erantzungo dion helburu estrategikoa darabilgula esku artean. Horregatik, Komunen Sistema ekimen politiko nazional bezala proiektatu behar da bere hastapenetatik, eta norabide horretan aurrerapausoak eman etengabe. Era berean, gero eta oinarri sozial zabalagoa sortzeko gai izan behar dira komunok, jendartea eraldatzeko prozesu bati buruz ari baikara, ez jendartetik kanpo alternatiba isolatu bat eraikitzeari buruz. Horretarako, Komuna Sistema konpromiso eta inplikazio maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar da, oraindik bere baitan ez dauden herri geruzekin bat egiten jakin beharko duen bezala. Euskal Herritik kanpo ere, oinarri antzerakoak dituzten mugimenduekin aliantzak egitea lehentasuna izango da, Euskal Herrian gertatzen diren aurrerapausoak prozesu internazionalista baten baitan eman daitezen bultzatuz.

Horrela, Komunen Sistemaren eraikuntza salto kualitatibo ezberdinak ematen joango da, barnean daramatzen potentzialitateak askatu ahala eta koiunturaren arabera topatzen dituen zirrikitu eta aukerak probestuz. Garapen horren baitan, lurralde, eraikin, lantegi, auzo, bitarteko produktibo edota espazio mota ezberdinak birjabetuz hazi egingo da. Modu horretan, gaur egun merkatua eta Estatuaren barruan bakarrik gauzagarriak diren funtzioak bereganatuz joango da, eta horrela, giza existentziaren (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena) gero eta adierazpen gehiago bere gain hartuko ditu. Komunen Sistemak lurraldea eta espazioaren gaineko kontrol efektiboa suposatuko du, hasieran modu sakabanatuan bada ere; dominazioaren logikatik at garatzeko gune liberatuak, sozializazio

eta botere forma berri baten lehenengo adierazpena. Horrela, komunitatearen berreraikuntzarako espazio eta esperientzia hauek, desjabetuontzat eta oro har zapaldu guztiontzat erreferentzia gune bilakatu behar dira. Horrekin guztiarekin, modu honetan eraikiz joango den Herri Botereak boterearen forma berri baten oinarriak argituko ditu, etorkizuneko jendarte askearen bizkarrezurra izango den botere forma berria.

Orain arte esandako guztia, urteetan zehar luzatuko den prozesu konplexu bezala irudikatzen dugu, zalantzarik gabe behin eta berriro birformulatu behar izango dena. Horregatik, modu hipotetikoan hitz egitea besterik ez daukagu, hori guztia posible egin dezaketen baldintzak lortzetik oso urrun baikaude. Hartara, Komunen Sistema horrek auzo, herri eta eskualdeetan zehar modu arrakastatsuan hedatzeko gaitasuna erakutsiko balu, eta heldutasun maila nahikoa erdietsi, hurrengo fasea irekitzeko garaia izango litzateke. Momentu horretan, Euskal Herriko Biltzarra deituko litzateke; Euskal Herriko lurralde oro eta jendarteko sektore guztiak (hezkuntza, hizkuntza, lana, osasungintza, gazteria...) ordezkatuak izango diren espazio politiko konfederatua izango da hori: Euskal Herriko Komunen Konfederazioaren hazia. Euskal Herriko Biltzarrak komunen sistema garatuz eta sakonduz jarraituko luke, aliantza internazionalistekin elkarlana sendotzen joan bitartean. Momentu batetik aurrera, Komunen Sistemen garapenak, bere inguruan eraikitako oinarri eta zilegitasun sozialarekin batera, Prozesu Eratzailea abiarazteko beharrezkoak liratekeen gaitasun politiko, produktibo eta sozialak eskainiko litzuzke. Horren ondotik, Euskal Herriko Komunen Konfederazioa sortuko litzateke.

Fase honetan, prozesu iraultzailea Euskal Herriaren osotasunaren gaineko prozesu bezala gauzatuko litzateke. Momentu

horretarako sendotua legokeen Komunen Sistemak, eta bere baitan haziz joan den Herri Botereak, beharrezko euskarria eskainiko lioke prozesu iraultzaileari Estatu egiturak interbenitzeko eta botere burgesaren egiturak deuseztatzeko. Ehun produktiboaren gaineko kontrola ezarriko litzateke eta Komuna bizitza antolatzeko oinarritzko egitura bezala zabalduko litzateke Euskal Herriko txoko guztietan zehar. Ordu-ra arteko Komuna Sistemak ebatziko ziren funtzioak momentu horretatik aurrera eskala sozialean egikaritu ahalko lirateke, eta horrela, prozesu iraultzaileak, prozesu sozial orokor bilakatu-ta, barnean daramatzen potentzialitate guztiak askatu ahalko litzuzke. Zer esanik ez du azkeneko fase guzti hau ezingo lukeela Euskal Herriak bere kabuz burutu; aldeaz aurretik ehunduz joango liratekeen aliantza internazionalistekin koordinazioan abiatu beharko litzateke, elkar elikatuz eta lagunduz. Behin Euskal Herriko Komunak Konfederazioa finkatuta, Bizitza Askerako bidean sakontzea letorke, inguruko herri eta lurraldeetan indar eta prozesu iraultzaileak hauspotzarekin batera.


Modu horretan egikaritutako litzatekeen independentziari, guk, independentzia komunala deritzogu. Behetik gora eraikiz joango den prozesu iraultzailea; esperientzia txiki eta lokale-tatik hasita jendartearen osotasuna barnebiduko duen prozesu organizatibora. Lehenengo, Herri Boterearen oinarriak ezarri. Ondoren, Komunak Sistema ardatz hartuta, oinarri horiek kuantitatiboki eta kualitatiboki gero eta eskala handiagora zabaldu. Euskal Herriaren independentzia formalarekiko modu paraleloan garatuko den prozesu independentista da aldarrikatzen duguna, inongo Estaturik itxaron behar ez diona. Bidean, bi independentzia prozesuek elkar elikatzeko aukerak zabal daitezke, bultzatu beharreko sinergia iturri

izan daitezkeenak. Zentzu horretan, euskal Estatuaren independentzia formala gerta daiteke ala ez. Hori gertatzekotan, espainiar eta frantziar Estatuaren deskonexio formala eginga legoke, baina funtsean, prozesu iraultzailearen zeregin nagusiek bere horretan jarraituko lukete: Estatu egiturak deuseztatu, burges boterea, kolonialismoa eta patriarkatua suntsitu, jabetza pribatua gainditu, mentalitate eta kultura dominatzailea deseraiki... Eta horien guztien ordeztu sozializazio eta botere forma berria hedatu. Finean, Bizitza Askearen inplementazioa euskal lurretan.



# OINARRIZKO HIPOTESIAK

---



**Dominazioaren sistema.  
Klase jendartearen  
erroak eta egungo  
adierazpena**





## **DOMINAZIOAREN SISTEMA. KLASE JENDARTEAREN ERROAK ETA EGUNGO ADIERAZPENA**

Egungo errealitate soziala irauli eta mundu berri bat eraiki nahi dugunontzat, errealitate horren osagaiak eta funtzionamendua ulertzea ezinbesteko abiapuntua da. Dominazioak egun hartzen duen forma modu zehatz eta gaurkotuan irudikatzeke gai izan behar gara, bere baitan diharduten kategoriak antzeman eta horietako bakoitzarentzako azalpen argi bat eskaini: lana, ekoizpena, pentsamendua, gorputza, jabetza formak eta horietatik eratortzen diren zapalkuntza eta esplotazio formak (alienazioa, jabetza pribatua, patriarkatua, Estatuak, kolonialismoa, kapitalismoa...).

Paradigma iraultzaile berriaren eraikuntza kategoriatu horien guztien gaineko ulerkera egokian oinarritu behar da, hori egin ezean, arriskua baitago ematen ditugun aurrerapausoetan dominazioaren adierazpen berritu bat birsortzen ariteko. Gaitza behin betiko desagerrarazi nahi badugu, sustraiak ondo identifikatu behar ditugu. Era berean, ezin dugu ahaztu dominazioarena gai konplexua dela eta bere ikerketari beharrezkoa den esfortzu eta dedikazioa eskaini behar diogula. Ezin dugu sinplifikazio edo erredukzionismoetara jo, ezta dominazioak suposatzen duena zatikatzerara eta partzialki aztertzerara ere. Osotasun bezala ulertzeke gai izan behar gara, osotasun bezala gaintitu ahal izateko.

Horregatik, ezingo dugu espero ulerkera hori testu soil baten irakurketarekin lortzea; helburu hori eztabaida eta hausnarketa prozesu dialektiko baten emaitza bezala bakarrik gauza daiteke. Bai gure kideen artean emango dena, bai inguratzen gaituen eta ulertzen saiatzen garen errealitate sozial horretan murgilduz bakarrik posible izango dena. Hor topa

tuko baititugu inguratzen gaituen dominazioaren kontraesan errealak, eta baita gure planteamenduarenak ere. Beraz, ondorengo testua gai honi egiten diogun lehenengo hurbilpena da, oinarri sendoa ezartzen duena eta haziz eta aberastuz joango dena halabeharrez.

## 1-Lanaren izaera eta dominazioaren sistema

Dominazioaz hitz egiteko, gure ustetan, ezinbestekoa da lanaren gainean hitz egiten hastea, dominazioaren zutabe nagusietako bat lanaren apropiazioan oinarritzen baita. Hala ere, lehenengo gatazka eta txarto-ulertuak hemen hasi daitezke, modu askotan ulertu daitekeelako lana. Esate baterako, lana kategoria ekonomiko huts bezala ulertzen badugu, kapitalismoaren fase zehatz bati sinbolikoki lotua gainera (garai industrialetako fabriketako operario gizon zuria, esaterako), dominazioaren gainean izango dugun ulerkerak erabat partziala eta antzua izango da. Horregatik, lanaren gainean eta, oro har dominazioaren gainean daukagun ulerkerak argitzea beharrezkotzat jotzen dugu eta hori da lehenengo atal honen helburua.

Helburu horri erantzunez, guretzako, gutxienez bi modu daude lana ulertzeko. Alde batetik, egun orokortua dagoen lanaren adiera legoke; hau da, kapitalismoari dagokion gertakari sozial bezala ulertzen dena. Lan asalariatua litzateke hori, giza jarduera jakin batzuk merkantzia bilakatzen direnean agertzen dena. Lana merkantzia forman, lan merkatuan saldu eta erosten dena. Lan forma hori bizitza prozesuarekiko jarduera bereizi bezala aurkezten zaigu, banatua, enajenatua; alde batetik “lanerako denbora” egongo litzateke eta bestetik, gure

gainontzeko bizitza denbora (aisialdirako denbora, lotarakoa, jatekoa, familiarekin egotekoa...).

Lan abstraktua da, balioaren arabera konfiguratutako giza jarduera. Lana esplotazioaren sinonimo bezala, kapitalismoaren ezaugarri bereizgarria.

Baina badago lana ulertzeko beste modu bat: gizakioi dagokigun kategoria unibertsala. Kasu horretan, pentsamenduak errealitatea eraldatzeko duen gaitasuna litzateke lana, eta jardue-  
ra horren emaitza, ekoizpen edo sorkuntza bezala gauzatuko litzateke. Horrela, lana litzateke lur bat goldatu eta bertan babarrunak ereitea; baita horretarako beharrezkoak diren tresnak ekoiztea ere (aitzur edo traktore bat). Lana litzateke baita ere umetan entzundako doinuekin abesti bat sortzea babarrunak batu bitartean kantatzeko. Behin babarrunak jasota, lana izango litzateke horiekin plater berezi bat sukaldatzeko errezeta ekoiztea ere, liburuak irakurriz edo ingurukoek dakitena entzunez. Era berean, lana izango litzateke lapiko, su eta osagai ezberdinekin plater hori sukaldatzea/ekoiztea; eta nola ez, lana izango da haur bati babarrunak jaten eman, eta babarrunak nola landatu eta nola sukaldatu irakastea (gorputz eta pentsamendu berri bat sortzea). Lan-ekoizpen prozesu horren pauso bakoitzean beti daude 1) baldintza material zehatzak, 2) ideia bat (pentsamendua), 3) bitarteko batzuk, 4) errealitatearen eraldaketa, eta ondorioz, 5) aurretik existitu ez den errealitatearen konfigurazio berri bat, ekoizpena edo sorkuntza.

Lana, beraz, pentsamenduaren bitartez ematen den errealitatearen eraldaketa bezala ulertzen dugu; pentsamendua eta materiaren arteko harreman bezala. Hemen baina, ulertu beharra daukagu pentsamendua bera ekoizpen bat ere badela:

errealitatea esanahitzeko darabiltzagun ideiak baldintza zehatz batzuen baitan eraikitako kategoriak direla. Gizakiok, aldez aurretik existitzen diren baldintza materialetatik abiatuta (gure gorputza bera eta inguratzen gaituen errealitate fisikoa), testuinguru sozial, ekonomiko eta historiko jakin baten arabera sortzen ditugu mundua deskribatzeko ideiak. Eta ideia horien bitartez, mundua eraldatzen dugu. Beraz, ezin ditugu pentsamendua eta materia modu banatuan ulertu: ekoizpenaren pauso bakoitzean beti dago pentsamendua eta errealitate materialaren eraldaketa, pentsamendua bera materialitatearen emaitza ekoiztua ere badelako. Horrela, lan-ekoizpen prozesua etenik ez duen kate bezala ulertzen dugu, pentsamendua eta materia, dialektikoki elkar elikatzen.

Horrekin guztiarekin, lana giza jarduera unibertsala litzateke, giza existentzia bera definitzen duen jarduera. Lana kategoria antropologiko bezala ulertuta, ez kategoria ekonomiko bezala. Hartara, edozein giza talderen errealitate material eta sinbolikoa lan prozesu horren emaitza izango litzateke, bakoitza bere berezitasun eta ezberdintasunekin. Hortaz, historikoki jendartea antolatzeke egon diren modu ezberdinak, lan-ekoizpena ulertu eta antolatzeke modu ezberdinen emaitza lirateke<sup>1</sup>.

---

1 Galdetzea dagokigu hemen ia "lan" eta "ekoizpen" kontzeptuak egokienak diren zentzu antropologiko horrekin giza jarduera unibertsal horri erreferentzia egiteko. Ulertzen dugu eztabaidarako gaia izan daitekeela, baina testu honetarako, hitz egokiagorik ez topatzeaz gain, kategoria horien zentzu analitikoa lehenesten dugu, bakoitzarentzat aurkeztu dugun definizioari jarraiki. Horrela, aurrerantzean lan-ekoizpen prozesua giza existentziaren adierazpen unibertsal bezala ulertuko da, eta orokortasun horren baitan testuinguru bakoitzean hartzen duen forma zehatzak deskribatuko dira: lanak kapitalismoan hartzen duen forma, patriarkatuan hartzen duena, lanaren adierazpen askea...

### **Lan erreproduktiboa, gainlana, gainekoizpena, gainbalioa.**

Gizadiaren historiari erreparatzen badiogu, ohartuko gara lanak daukan lehenengo adierazpen historikoa komunismo primitiboa edo ekonomia naturala bezala ezagutzen denaren bitartez ematen dela. Giza komunitate bat bere inguruarekin modu zuzenean harremandua eta jabetza komunala oinarri hartuz, autokontsumora zuzendutako ekoizpen modua litzateke. Momentu horretan bertan, lanak bi dimentsio hartu ditzake: alde batetik, lan erreproduktiboarena, eta bestetik, gainlanarena. Lan erreproduktiboaren baitan, giza komunitate batek bizi eta lan egiten jarraitzeko beharrezkoak dituen baldintzak birsortzeko egiten duen lan guztia barnebiltzen da. Hori beteko ez balu, komunitatea iraungiko litzateke. Horregatik ezinbesteko lana ere esan diezaiokegu.

Kontua da behin lan erreproduktibo hori asebeteta, gainlanerako aukera zabaltzen dela: esate baterako, giza talde batek urtean zehar bizirauteko beharrezkoa duena, sei hilabeteetan ekoiztuko balu, gainontzeko sei hilabeteetan egindako lana, gainlana izango litzateke; eta gainlan horrekin sortutakoa, gainekoizpena, metatu egin daitekeena. Noski, giza talde bakoitzak nahi erara kudeatu dezake gainlanerako aukera hori; deskantsuzera bideratu dezake edo ospakizunak antolatzeko probestu. Aukera bi horiek modu orokortuan ikusi ditzakegu komunitate kanpesino eta ehiztari-biltzaile ugaritan munduan zehar. Aitzitik, aurreko sei hilabeteetan bezala lanean jarraitu dezake eta, esate baterako, gainekoizpenaren bitartez metatutako elikagaiak, komunitatea handitzeko erabili ditzake. Edo lurraldean zehar komunitate berri bat sortzeko. Era berean, elikagaien gainekoizpen hori komunitateko kide batzuk elikagaiak ekoizteari utzi diezaioten probestu

dezake. Bestelako lanetan espezializatu ahalko dira horrela, lanaren banaketa sozialean sakonduz eta taldearen gaitasun produktiboak handituz. Bestalde, gainekoizpen hori merkanztzia bezala saldu daiteke. Truke-balioaren forma hartuko luke horrela, kapitalismoarekin batera orokortuko dena, balioa eta gainbaliorako aukerak zabalduz (testu honetako bigarren atalean, “Dominazioa modernitate kapitalistan”, honetan sakontzeko aukera izango dugu). Berez, lehenengo hiru kategoriak (lan erreproduktiboa, gainlana eta gainekoizpena) edozein giza taldek garatu ditzake bere baitan eta sistema sozial guztien oinarrian daude.

### **Jabetza pribatua, apropiazioa, esplotazioa, botere metaketa, Estaturia eta dominazioa.**

Orain arte azaldutako lan-ekoizpenerako prozesu hori bakarrik sozialki edo kolektiboki zentzua duen prozesua da. Jatorrizko lehenengo giza komunitateetatik hasita, kide guztien lanaren konbinazioaren emaitzak bakarrik posible egingen du kide bakoitzaren bizitza eta lan zehatzetarako aukera. Ingurukoek egindakoaren batuketarekin bakarrik da posible sortzea jaten dituen elikagaiak, janzten duen arropa, lo egiteko behar duen etxea, kantatzen dituen abestiak... Bakoitzak bere aldetik, modu isolatuan, ezingo luke inoiz hori guztia sortu. Lana beraz, fluxu sozial bezala ulertu behar dugu, osotasun banaezin bezala, norbanakoek egindakoaren batuketa sinergiakoaren emaitza dena. Gizataldearen tamaina handitu ahala are agerikoagoa bilakatzen da hori. Horregatik, lan-ekoizpenaren gaineko jabetzak hartzen duen lehenengo adierazpen historikoa, eta unibertsalki sortzen den bakarra, jabetza komunala da. Eta horregatik, jabetza pribatuaren agerpene biolentziazko

gertakari sozial bezala ulertu behar dugu. Hau da, norbanako batek kolektiboki sortu dena bereganatzen duenean, injustiziazko printzipio bati erantzunez egingo du beti, bakarrik kolektiboki posible den prozesu baten gainean, ez baitago jabetza pribaturako aukera zilegirik. Norberari ez dagokiona bereganatzeko jarduera hori apropiazioa litzateke.

Apropiazioaren logikak, beraz, botere metaketarekin harreman zuzena du. Askok egindako lana bakar baten eskutik geratzen denean, lan horren bitartez sortutako errealitate sozialaren gaineko kontrola eskuratzen du pertsona horrek. Gogoratu, lana bidezkoa soziala sortzen duen oinarritzko giza jarduera bezala ulertzen dugula, giza existentziaren abiapuntua; hortaz, apropiazioaren bitartez existentzia horren gaineko boterea eskuratu eta metatu daiteke. Zentzu horretan, boterea eskala handian metatzeko gaitasuna, sistema sozial batek erakusten duen gainlanerako eta gainekoizpenerako neurriarekin lotua dago. Esate baterako, lan erreproduktibo hutsarekin bizirauten duen komunitate bati beraien existentziatik harago ezingo diegu ezer apropiatu, ez baitute sortzen soberakin bezala metatzen den lan sozialaren adierazpenik. Apropiatu dakiekeena ez da gutxi (euren gorputzak, edo bizi diren lurraldeetako lehengaiak; ura, baliabide energetikoak, lurra, basoak...), baina beraien jardueratik eratorri daitekeen botere metaketa mugatua da komunitate horietatik haratago.

Beste behin historiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu Neolitik aurrera hasi zela gainekoizpena edo soberakinak modu sistematiko eta erregularrean sortzeko aukera, eta beraz, horiek modu sistematikoan apropiatzeko aukera; hau da, esplotaziorako aukera. Horrekin batera, soberakin horien baitan kondentsatua agertzen zen boterea modu esanguratsuan zen



tralizatu eta metatzeko aukera ireki zen lehenengo aldiz. Estatua, apropiaziorako logika horrek eskala sozial orokortuan eman ahal izateko mekanismo moduan, momentu horretatik aurrera bakarrik da posible. Dominazio Sistemen garai historikoa irekitzen da modu horretan.

Estatuaren sorrerari dagokionez, zenbait kontu argitzea komeni da. Lehenengo eta behin, jendar-tearen barnean ematen hasiak ziren tentsio eta kontraesanak kudeatzeko asmoarekin sortutako dispositibo moduan ulertzen dugu. Esan bezala, garai horretan eman ziren teknifikazio eta hazkuntza demografikoari esker, gainezkoizpenerako eta hiritartzeko aukerak irekiko ziren, Estatu bezala ezagutzen dugun egitura berri hori sostengatzeko beharrezkoak zirenak. Estatuaren sorrera hori oso modu geldoan eman zela ulertu behar dugu, garapen eta aldaketa txikien bitartez. Lurraldearen gaineko jabetza pribatu eta lukurreria, diruaren sorrera eta merkantzien komertzioa, lanaren banaketa soziala... bezalakoen bidez, komunitate primitiboko antolaketa eta erabakimen-egiturak zein ohiturak desagertzen joan ziren.

Sortzen ari zen errealitate berri hori erregulatzeko mekanismo desberdinak jarri ziren martxan, bai eta jendar-teak onartu eta horrekiko obedientzia eta diziplinamendua bermatzeko, neurri moral eta punitiboen bidez. Erregulazio diziplinamendu saiakera horren adibide dira lege eta kontratuak ezartzea (idaztearen garapenari esker ezarri zirenak) erabakimen-guneen burokratizazio eta hierarkizazioa, indar errepresiboen eta funtzionario edo kargu publikoen sorrera...

Hori da mentalitate dominatzailearen garrantzia Estatuaren sorrera ulertzerako orduan, Estatua, eta oro har dominazioa, ezin delako adierazpen ekonomiko soil baten emaitza

bezala ulertu. Bere erroan diharduten egiturazko biolentzia, apropiazioa eta esplotazioa bakarrik posible dira alienazio eta mentalitate dominatzaileari esker. Eta erro horretara jotzen badugu, Estatuaren sorreraren aurretik martxan zegoen dominazioaren lehen espresio historikoarekin topo egingo dugu; patriarkatuarekin. Izan ere, Estatua bera, patriarkatuaren baitan askoz ere lehenagotik hezurmamituz joan zen dominaziorako logika eskala sozialean materializatzearen emaitza izan zela esan dezakegu. Hortaz, dominazioaren jatorria ulertu nahi badugu, ezinbestean patriarkatura jo beharko dugu.

### **Patriarkatua eta Dominazioaren Sistema.**

Behin puntu honetara helduta, uste dugu lan erreproduktiboaren analisisan sakondu behar dugula, hau da, lana eta bizitza bera posible egiten duten jardueretan. Dominazioa ulertzeko zenbait gako bertan topatuko ditugu, gainlanerako edo gaine-koizpenerako aukerarik ez baitago lan erreproduktiborik gabe, ezinbestekoa den lanik gabe. Azken hau gauzatzen ez bada, ez dagoelako inolako lan motarako aukerarik, ez apropiaziorako aukerarik, ez esplotaziorako aukerarik, ez dominaziorako aukerarik. Gizadia iraungitzen da.

Esan bezala, lan egiteko gaitasuna birsortzeko egin beharreko lana litzateke lan erreproduktiboa: janaria lortu, lo egiteko espazioa eraiki, arropak ekoiztu, ezagutzak transmititu, egoera emozional egoki bat ziurtatu, gaixotasunak osatu, hori guztia egin ahal izateko tresnak eta bitartekoak ekoiztu...

Eta nola ez, denborarekin agortuz doazen gorputz berriak sortu. Azken hau garrantzi handiko elementua da, lana, gizakioi dagokigun jarduera unibertsala izanik ere, ez delako gertakari independentea. Hau da, lan prozesu ororen oinarrian, giza

gorputzaren existentzia biologikoaren beharra dago; pent-samendua bera egon ahal izateko, behar ditugu neuronak, behar ditugu belarriak, ahoa, odola, ehunak eta gure gorputza osatzen duten organo guztiak. Aurrebaldintza gorpuzdun eta biologiko hori gabe ez da existitzen inolako lanerako aukerarik, giza bizitza eta existentzia deuseztatzen dira. Eta horrek norabide ezberdinetan zuzentzen gaituzten inplikazio sakonak ditu.

Bide horietako batek giza existentzia sozialak (lan-ekoizpen prozesuak) orokorragoa den prozesu batekin duen lotura estua ulertzea eramango gaitu; bizitza prozesuarekiko duen dependentziazko harremana ulertzea, hain zuzen ere. Bizitza prozesua bera materia eta energiaren lege eta zikloekiko menpekoa den bezala. Gure ustetan, materia, bizitza eta lanaren arteko harremana ulertzea ezinbesteko pausoa da, ez bakarrik harreman sozialen esparruan ematen diren gatazkei erantzuna emateko, baizik eta gizakion existentzia bera bermatzeko. Edozein modutara ere, honako testuan ez diogu gai honi helduko, ekologia politikoari eskainitako testuan baitago honen guztiaren gaineko garapen sakona.

Bestalde, gorputza eta lanaren arteko dependentzia horrek dimentsio erreproduktiboa aztertzea garamatza. Esan bezala, giza gorputz oro denboraren poderioz makalduz doa, gaixotuz, zaharkituz eta azkenik hil egiten da. Beraz, moduren batean edo bestean gorputz horiek birsortu behar dira. Hala ere, giza gorputzen artean, batzuk bakarrik dira gai beraien baitan gorputz berri bat sortzeko. Horrela, honek guztiak beste inplikazio sakon batera garamatza; izan ere, historikoki “emakume” bezala ezagutu izan diren gorputz horien gainean lan prozesu guztiaren iturri izateko karga jausi da, giza existentziarako oinarrizko baldintza izatearen karga. Karga horrek adierazpen

antagonikoak hartu izan ditu, testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren arabera. Horrela, kultura matrilinealetan bizitzaren iturburu izate hori goraipatua eta ospatua izan da, emakumeoi egitura sozialetan posizio zentrala eskainiz. Aldi berean, baina, kontrako adierazpena ere hartu izan du; emakumeoi gorputz eta gaitasun erreproduktibo hori sistematikoki apropiatua izatearena, dominaziorako lehenengo urrats historikoa bilakatur. Jabetza pribatuak hartu zuen lehenengo forma izan zen apropiazio hori; aitasuna, matrimonioa eta herentziaren bitartez, gizonak emakumearen gorputza eta baita lana ere bereganatu zueneko, horien gaineko jabetza titulua ezarri zenekoa. Horrela eraikia izan zen patriarkatua; sexu-genero dikotomiaren arabera egituratzen zen gorputzen eta lanaren gaineko apropiazio mekanismo bezala. Eta horrela, testuinguru patriarkal horietan, “emakumea” lehenengo klase zapaldu bilakatu zen.

Familia eredu patriarkala hedatu ahala, mundua ulertzeko modu bat ere hedatu zen; mentalitate patriarkal-dominatzailea. Behin familiaren mugak gaindituta, mentalitate patriarkal horrek dominaziorako baldintza ezin hobeak eskaini zizkion Estatuaren sorrera eta zabalkunde prozesuari. Lehenengo Estatu horiek ar dominantearen isla sozial bezala egikaritu ziren, eta hala ikus daiteke mendeetan zehar, Estatu eta Inperioen barne logika eta antolaketan.

Aurrerantzean, dominazio sistema historiko ezberdinen oinarrian egongo da emakumeon lana eta gorputzen gaineko apropiazio materiala, baina baita patriarkatuak ekoizten dituen baldintza ideologikoak ere (mentalitate dominatzailea, dominazioaren erreproduktio ideologikorako ezinbesteko baldintza bezala). Oinarri horietatik abiatuta, dominazio sistema historiko bakoitzean, klase zapaltzaileak mekanismo propioak

garatuko ditu giza existentziaren adierazpen ezberdinak bereganatzeko (gorputza, pentsamendua, lana, ekoizpena) eta apropiazio hori ahalik eta modu zabalenean eman ahal izateko.

\* \* \*

Honenbestez, giza existentziaren oinarrian, ondorengo kate dialektikoa egongo litzateke: gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena. Kate horren emaitza Giza Kultura litzateke, giza talde bakoitzean modu espezifiko hartzen duen osotasun material eta sinbolikoa. Duela milaka urtetatik tentsio bat egon da giza existentzia horren baitan: alde batetik, zenbaitek existentzia hori subordinatu eta apropiatu nahi izan dute; bestetik, zapalkuntzatik ihesian edo erresistentzian modu ahalik eta askeenean bizitzeko ahaleginean iraun dutenak ditugu. Klase borroka historikoaren tentsioaz ari gara. Bada, jabetza pribatua, patriarkatua eta Estatu-Inperioaren inguruan historikoki erakitzen joan zen dominaziorako azpiegitura material eta ideologiko hori Dominazioaren Sistema bezala definitzen dugu. Osotasun horren azken adierazpen historikoa modernitate kapitalistaren eskutik eman da, muturreko zapalkuntza eta esplotazioa planeta osora hedatzeko gai izan dena, kualitatiboki eta kuantitatiboki modu berri batean.

Dominazioa, beraz, ezin dugu gertakari ekonomiko soil bat bezala ulertu, errealitate soziala bere osotasunean hartzen duen prozesu bezala baizik. Horretarako, kontuan hartu behar dugu bere oinarri materiala (lan-ekoizpen prozesua eta jabetza harreman zehatzak) eta baita sinbolikoa ere (ideologikoa, politikoa, kulturala, judiziala...). Bere garaian azpiegitura-gainegitura bezala izendatu ziren bi eremuen arteko erlazio dialektikoan oinarritzen den prozesua da dominazioarena. Hots, era mekanikoan eta norabide bakarrean ulertu ezin den bi eremu

horien arteko elkarrekintza. Gainegitura jendartearen oinarri materialen konfigurazio zehatz baten emaitza den bezala, ezinbestekoa da ulertzea adierazpen sinboliko, ideologiko eta politikoek azpiegitura hori moldatzen dutela. Pentsamendua eta materiaren arteko harremanean ikusten genuen bezala, maila sozialean ere oinarri materialaren eta geruza sinbolikoen arteko harremana norabide bietan eta era dialektikoan ematen da.

## **2-Dominazioa modernitate kapitalistan**

Gaur egun kapitalaren logikak Euskal Herria bere osotasunean hartua du. Kapitalismoak kolonizatutako beste edozein eremutan bezala, jatorrizko metaketa bezala ezagutzen den prozesua burutu behar izan du hemen ere azken mendeetan zehar: emakumeon gorputz eta gaitasun erreproduktiboak are gehiago diziplinatu eta subordinatu; aurreko jabetza formen ordez (komunala edo feudala) jabetza pribatu burgesa inposatu; lan-indarra desjabetu eta askatu (merkantzia bezala askatasun osoz erosi eta saldu ahal izateko baldintzak orokortu); merkantziekiko menpekotasuna orokortu, desjabetuek lan-indar hori saltzera behartuta egon daitezten. Azken finean, bizitzarako beharrezkoak diren osagaiak (bitarteko produktibo eta erreproduktiboak, lurra, lurrak gordetzen zituen errekurtsio naturalak, lan-indarra...) merkantzia bilakatu.

Ondoren, ekoizpen modu kapitalista nagusi den garai historiko honetan, Dominazioaren Sistemak hartzen duen forma zehatza aztertzea dagokigu. Horretarako, harreman eredu kapitalistetatik eratoritzen diren biolentzia, apropiazio eta esplotazio moduei erreparatu beharko diegu; baita aurreko fase

historikoetatik datozenek kapitalismoaren baitan hartu duten forma berriari.

### **Merkantzien ekoizpen kapitalistaren zirkuitua.**

Lehenengo eta behin, kapitalaren oinarritzko kategorien errepasoa egingo dugu, bakoitzarentzat azalpen argi bat eginez. Honakoak dira kategoriok:

- 1- Jabetza pribatu burgesa eta merkantzien zirkulazioa.
- 2- Erabilera-balioa, truke-balioa, merkantzia, dirua eta fetitxismoa. Botere soziala kapitalismoan.
- 3- Dirua eta kapitala. Merkantzien zirkulazio sinplea eta anpliatua.
- 4- Langilea eta burgesa.
- 5- Esplotazioa kapitalismoan. Lana, lan-indarra, salarioa eta gainbalioaren iturria.
- 6- Salariora eta jabetzaren izaera soziala.

1- Jabetza pribatu burgesa eta merkantzien zirkulazioa Edozein jendarte kapitalistatan bezala, gurean ere jabetza pribatu burgesa (merkantzia bezala saldu eta erosi daiteken jabetza) orokortua dago. Baita merkatuarekiko dependentzia ere. Horrek esan nahi du, gaur egun, bizitzarako beharrezkoa duguna merkatuan baino ez dugula aurkitzen: janaria, arropa, aisialdia, etxebizitza... Munduarekiko lotura, errealitate sozialarekiko kontaktua, oro har, merkantzien bitartez bakarrik gauzatu daiteke. Beraz, jabetza pribatu burgesa orokortua dagoen jendartean, merkantzia horien erabilera eskubidea lortzeko diruz erosi behar ditugu. Eta dirua eskuratzeko, aurretik

beste merkantzia bat saldu, aurretik erosi izan dugun beste merkantzia batetik eratorria dena. Merkantzien etengabeko salerosketa hori merkantzien zirkulazioa da. Hortaz, zirkulazio horri lotuak, etengabe dirua lortzera kondentzen gaitu jendarte kapitalistan bizitzeak. Diruaren inperioan bizi gara, eta munduarekiko lotura poltsikoan daramagu.

2- Erabilera-balioa, truke-balioa, merkantzia, dirua eta fetitxismoa. Botere soziala kapitalismoan.

Diruarekiko dependentzia orokor hori hobeto ulertzeko, diruak ordezkaten duenarekiko dependentziaz ari garela argitu behar da; hau da, gainontzekoen lanarekiko dependentziaz. Horri azalpen egoki bat emateko, ekoizpena jotzea merezi du.

Edozer ekoizten dugunean, ekoiztutako horrek badu adierazpen material zehatz bat. Esate baterako, lehenengo ataleko adibidean ekoiztu ditugun indabak lipidoz, proteinaz eta gluzidoz osatutako hazi borobil-zilindrikoak dira, beraien baitan etorkizuneko indaba landarea izango denaren enbrioia daramatenak. Goian aipaturiko abestiaren kasuan, airean eragindako bibrazioen multzoa izango litzateke, intentsitate, erritmo eta tonu jakin batekin errepikatzen direnak, eta modu ezberdinetan erreproduzitu ahal izango direnak; gure ahots kordak, instrumenturen bat, frekuentziak igortzeko dispositiboren bat...

Ekoizpen horiek bere horretan erabilera-balio zehatz bat daukate, barnebiltzen duten konposizio material horren eta sortuak izan diren testuinguru kulturalen hartzen duten esanahiaren arabera gauzatzen dena. Horrela, indabak jan ditzakegu barruan daramatzaten energia eta materia gure gorputzak probestu ditzan. Kolore polita badaukate, ordea, zu



latu eta lepoko bat egin genezake. Izan ditzaketen erabilera ezberdinen arabera balio bat dute indabek. Kantuarekin ere berdina gertatzen da; berau kantatuz inguruko kideen artean dantzatzeko gogoia piztu dezakegu edo lasaitasuna eragin, doinu horiek gudan hartzen duten esanahi kulturalaren arabera.

Aldi berean, ordea, ekoizpen horietako bakoitza beste batengatik trukatu genezake, eta horrek, truke-balio bat erantsiko lieke. Momentu horretan ekoizpen hori merkantzia bilakatu da; erabilera-balioa eta truke-balioa dituen ekoizpena, alegia. Hemen arazo batekin egiten dugu topo: zelan ezartzen da truke-balioa? Erabilera-balioarekin ez bezala, truke-balioak ez du ekoizpenaren konposizio material zehatzarekin harremanik. Esate baterako, posiblea dugu abesti hori sortzea eta ondoko lagunari indaben truke aldatzea. Baina indabek eta abestiek ez dute inolako ezaugarri komunik konpartitzen, ez behintzat bakoitzaren konposizio zehatzari erreparatuta (proteina kapsula txikiak eta airearen bibrazioa). Hala ere, edozein truke egiterako orduan ekibalentzia bat egitea beharrezkoa da; nire abesti batek balio ditu zure hainbeste indaba kilo. Beraz, zeren arabera berdintzen dira indabak eta abestiak? Zer ezaugarri konpartitzen dituzte ekibalentzia hori ezartzeko beharrezkoa den konparaketari eutsiko diona? Arreta jartzen badugu, ikusiko dugu badutela gauza bat komunean: sortuak izateko behar izan den lan kantitatea. Hau da, ekoizpen orok badu beharrezkoa izan duen lan kantitate jakin bat, eta truke-balioak hori adierazten du. Truke-balioaren bitartez, merkantzia batek bere baitan duen lan denbora kantitatea adierazten da. Hartara, urte oso batez aritu izan banaiz kanta sortzen, urte oso bateko lanarekiko baliokide den indaba kantitatea eskatuko diot lagunari.

Baina jendarte kapitalistan ekoizleak ez daude isolatuak, merkatuaren bitartez merkantzia ekoizle guztiak elkarlotuak geratzen baitira. Modu horretan, esate baterako, nik urte osoan zehar ekoiztutako indaba kantitate berdina, kalitate berdinarekin, gainontzeko ekoizleek sei hilabetetan ekoiztea gerta daiteke. Testuinguru horretan nire indabak sei hilabeteko lanaren baliokideagatik trukatzera behartuta ikusiko dut nire burua, hori baita indaba mota horiek merkatu kapitalista zehatz horretan hartzen duten balioa. Hortaz, sistema kapitalista osotasunean hartzen badugu, merkantzia bakoitzak ekoiztua izateko beharrezkoa duen lan kantitate minimo bat dauka. Hori da *balioa*: merkantzia bat ekoizteko sozialki beharrezkoa den lana.

Garrantzi handiko kontuak dira hauek guztiak, merkantzia oro lana eta ekoizpenarekin lotua dagoela erakusten digutelako; hau da, lana eta ekoizpenaren esparruan ematen diren gertakariei lotua. Askotan, merkantzia soilei erreparaturaz, bi pertsonak merkantziak trukatzeko dituztenean, pentsa genetzake pertsona horiek objektuen (merkantzien) bitartez harremanak direla, modu erabat neutralean. Merkantzien zirkulazioak sortzen duen ilusio horrek, fetitxismo horrek, azpitik gertatzen dena ezkututzen du. Baina ez du desagertarazten. Alegia, zirkulazioaren esfera horren azpitik, sal-erosketaren azpitik, pertsonen arteko lan-ekoizpen harremanak daude, harreman sozialak errealki (ez fetitxizatuta) ematen diren esfera. Aurrerago ikusiko dugun bezala, zirkulazioaren esfera eta ekoizpenaren esferaren arteko lotura ulertzea kapitalismoa ulertzeko ezinbesteko urratsa da.

Merkantzia eta diruarekiko dependentziara bueltatuta, errazago ikusiko dugu orain dirua bitartekotza hutsa baino ez

dela; diruak ordezkatzeko duenarekiko dependentziaz ari gara. Hau da, gainontzekoen lanaz. Eta beraz, diruz erosten ditugun merkantzia guzti horien edukia gainontzekoen lana dela. Modu horretan, dendan erosten dugun patata kiloa, berau ekoizteko behar izan den ehunka langileen lanaz osatuta dago; soloan ibili den nekazariarena, traktorea konpondu duen mekanikoarena, patata garraiatu duen garraiolariarena, petrolio ustiatu duenarena eta findegian diesela ekoiztu duenarena, supermerkatuan patatak apalean jarri dituenarena... Diruaren bitartez lan horiekin nolabait kontaktuan jarri gaitezke eta horien emaitza den patata kiloa eskuratu dezakegu. Horregatik diogu diruak ez duela balio bere konposizio zehatzaren arabera (txanponen metala, edo billeteen papera), baizik eta trukea ordezkatzeko duen gaitasunagatik. Truke-balio soilez osatutako merkantzia da dirua; bere erabilera-balioa truke-balioa ordezkatzeko duen gaitasunean datza.

Honek guztiak diruak kapitalismoan duen dimentsioa azalerraten du; lana bera merkantzia bilakatu deneko sistema sozialean, diruak gainontzekoen lanarekiko aginte gaitasuna suposatzen du. Beste era batera esanda, kapitalismoan botere soziala diruaren bitartez adierazten da, diruak lanaren gaineko kontrola duelako eta lanak gutariko bakoitzaren bizi baldintzak sortzen dituelako.

### 3- Dirua eta kapitala. Merkantzien zirkulazio sinplea eta anpliatua

Diruak kapitalismoan hartzen duen dimentsioa ulertuta ere, orain artekoarekin, pentsa genezake jendarte kapitalistan denentzako dela berdina; pobreenak zein aberatsenak diruaren beharrez bizi direla ezinbestean. Horrela, merkantzien zir

kulazio etengabe horretan nolabaiteko neutraltasuna dagoe-  
la pentsa genezake; guztiek, salbuespenik gabe, merkant-  
ziak saltzen dituzte dirua lortzeko, diru horrekin merkantzia  
berriak erosten dituzte, berriro ere salduko dituztenak dirua  
lortzeko, horrela etenik gabe. Merkantzien zirkulazio sinplea  
da hori, Merkantzia-Dirua-Merkantzia (M-D-M) formularen  
bitartez adierazten dena. Kateatuz doazen zikloen bidez  
segida infinitu batean jarraitzen du merkantzien zirkulazio  
sinpleak (M-D-M-D-M-D-M...). Batzuk diru gehiagorekin,  
besteak gutxiagorekin, baina biak merkantziaren zirkulazioan  
parte hartuz modu kualitatiboki berdinean. Itxuraz hala da,  
kapitalismoan denok baikara diruaren menpeko; merkatuaren  
aurrean, formalki baino ez bada ere, denok gara berdinak;  
denok dugu merkantziak saldu eta erosteko eskubide bera.  
Baldintza horietan, batzuen ustez, arrakasta lortzen ez duenak  
erabaki egokirik hartu ez duelako izango da, edo nahikoa  
esfortzu jarri ez diolako saiakerari.

Kontua da neutraltasun itxura horrek oso bestelako errea-  
litatea ezkututzen duela. Marxek ondo erakutsi zigun bezala,  
gauza bat da errealitate sozialak hartzen duen itxura (kasu  
honetan merkantziaren fetitxismoaren bitartez adierazten  
dena), eta beste bat errealitate horrek bere baitan gordetzen  
duen esentzia. Goian ikusi bezala, hori baita merkantzien fe-  
titxismoa; uste izatea pertsonen arteko harremana objektuen  
bitartez ematen dela (merkantzien bitartez, alegia, zirkula-  
zioaren esferan); merkantzia horien azpian, edo barruan,  
sozialki esanguratsuak diren harremanak ematen direla ahaz-  
tuz (lan-ekoizpenaren esfera). Ekoizlearen (lanaren esfera)  
eta ekoiztutakoaren (merkantzien esfera) arteko  
banaketa hori da alienazio kapitalistaren iturria, kapitalis-

menduaren erdigunean dagoena. Errealitate soziala ekoi-  
zten duenak (langileak), errealitate hori gertakari arrotz bat  
bezala ikustetik dator alienazio hori, eta kapitalismoaren  
esentzia eta itxuraren arteko arrakala mantentzen eta han-  
ditzen laguntzen du. Arrakala horren ondorio da “ekonomia”  
bezala ezagutzen duguna gertakari neutral eta natural bezala  
ulertzea; hau da, gizakion emaitza historikoa diren merkant-  
zia, balioa, dirua edo kapitalismoa bera, fenomeno ahistoriko eta  
unibertsal bezala ulertzea. Banaketa horri esker, alienazio ho-  
rri esker, kategoria horiek autonomia propioa hartu eta beraien  
sortzaileen kontra (gizakion kontra, alegia) jarri daitezke.

Bada, itxuratik esentziara doan bide hori egin ahala ja-  
betuko gara neutraltasun eta berdintasunetik urrun, jendarte  
kapitalistan bi modu daudela merkantzien zirkulazioan parte  
hartzeko, hau da, gure bizitza gauzatzeko: diruaren bitartez,  
alde batetik, eta kapitalaren bitartez, bestetik. Hemen merezi  
du kapitala zer den azaltzea, eta batez ere, dirua eta kapi-  
talaren arteko ezberdintasuna argitzea, antzerako zerbait direla  
ematen baitu. Nolabait esateko, kapitala diruaren forma  
eboluzionatua da, baina ezaugarri kualitatibo ezberdinak ditu;  
kapital guztia potentzialki dirua izan badaiteke ere, diru guztia  
ez da zertan kapitala izan. Horrela, goian esan bezala, diruak  
gainontzekoen lanaren gaineko boterea adierazten du, mer-  
kantzien zirkulaziotik irten den truke-balio hutsaren objekti-  
bazioa. Baina behin merkantzia zirkulaziora bueltatzerakoan  
desagertu egiten da, gastatzen da. Euro batekin zerbeza bat  
erosi eta edaten dugunean, merkantzia horren erabilera-balioa  
kontsumitzen dugu, eta horrekin, bere baitan zuen truke-balioa  
ere desagertzen da. Euroa desagertu egiten da, xahutzen dugu;

zirkulazio sinplean gauden bitartean (M-D-M), gugandik urruntzeko tententzia izango du beti diruak.

Kapitala, berriz, merkantzia zirkulazioan sartuta, berreskuratu egin dezakegu, eta ez hori bakarrik; hasieran zuen balioa baino balio handiagorekin datorrigu bueltan. Garagardoaren adibidearekin jarraituz, euro bat izan ordez, 1.000.000€ izango bagenitu, garagardo fabrika erosiko genuke. Fabrikak ondo funtzionatuko balu, urte gutxira 1.200.000€ izango genituzke. Oraingo honetan, nire euro bakoitza 1,20€ bilakatu da; ez da gastatu, inbertitu egin da. Hots, ez da bakarrik bere baitan gordetzen zuen botere soziala erreproduzitu, baizik eta erreproduzio hori modu anpliatuan eman da. Kapitalak botere metaketa ahalbidetzeaz gain, botere hori erreproduzitu eta handiagotzen du. Aurreko formulara joz, oraingoan honako hau izango genuke:

D-M-D'

Hau da, dirua desagertu edo balio berdina bueltatu ordez, diru kantitate gehiago daukagu zikloaren amaieran: D'. D' horrek gainbalioa dakar berarekin batera; hasierako dirua, kapital bilakatu da. Zirkulazio anpliatuaz ari gara hemen, eta zirkulazio sinplean ez bezala, diruak joera zentripetoarekin dihardu zirkulazio horretan, nolabait dirua erakarriz.

#### 4- Langilea eta burgesa

Beraz, ezberdintasun handia dago kapitala dutenen eta ez dutenen artean. Kapitala dutenek, esan dugun bezala, berau inbertitu dezakete, eta oraindik kapital gehiago lortu. Hau da, gainbalioa eskuratu dezakete. Gainera, inongo lanik egin gabe lortu dezakete hori; kapitala inbertituz, beste batzuen lana erosten dute (garagardo fabrika erosterakoan, bertako langileen sol

datak ere ordaintzen dituzte), eta beraz ekoizpena martxan jarri daiteke. Hemen kapitalismoaren misterio nagusia ageri zaigu: lan-ekoizpen prozesuaren azken pausoan sortzen den gainbalioa bereganatzen dute, baina berez, beraiek ez dute lanik egiten, ez dute ezer ekoiztu. “Misterio” horren bitartez, kapitala dutenek gainontzekoen lanarekiko agente gaitasuna metatu eta handitzen dute, baina ez dute zertan lanik egin. Eta hori da kondizio burgesa: jabetza kapitalista, sozialki esanguratsua den jabetza, eta horrek posible egiten duen lanarekiko emantzipazioa eta irabazi kapitalista. Hots, botere sozialaren metaketa eta handitzea. Horiek dira burgesak.

Pertsona guztiek, ordea, ez dute kapitala izateko aukerarik, izan ere, jendartearen gehiengoak ez du kapitalik. Gehiengo horrek, burgesek bezala, jendarte kapitalistan bizirauteko diruaren beharra du; baina burgesek ez bezala, ez dauka diru hori “sortuko” duen kapitalik. Posizio horretan gaudenontzat, merkatuan aurkezteko dugun bakarra (gure diru iturri bakarra), geure lan-indarra da. Lan-indar hori salduz baino ezin dezakegu bizitzeko behar dugun dirua lortu. Berez, salmenta horren ordainean geure erreprodukzioa gauzatzeko beharrezkoa dugun diru kantitatea jasoko dugu: janaria, etxebizitza, arropa, ikasketak, aisialdia... Ondorioz, hilabete bakoitzaren amaieran diru kantitate hori agortua egongo da, bizirauteko behar genuena zelako, geure burua berriro ere lan merkatura jotzera behartuz. Etengabeko ziklo horri (lan egin eta gure existentzia hutsa erreproduzitzeko adina diru eskuratu) salarioa deituko diogu, eta modu horretan egindako lanari, lan asalariatua. Ziklo erreproduktiboa ere deitu diezaikegu horri. Eta horixe da langileon biziraupenerako kondizioa kapitalismoan: desjabetza (kapitalik eza), lan-indarraren salmenta

rekiko beharrezkotasuna (lan egiteko beharrezkotasuna) eta bere baitan etengabe agortzen den salarioa. Hau da, langile kondizioa.

#### 5- Esplotazioa kapitalismoan. Lana, lan-indarra, salarioa eta gainbalioaren iturria

Puntu honetara helduta, honen guztiaren atzean dagoen “misterioa” argitzea dagokigu: nondik ateratzen da burgesak metatzen duen gainbalioa? Zelan da posible kapitalaren inbertsioaren bitartez dirua “erakartzea”? Berak ez du lanik egiten... baina lan prozesuaren azken emaitza den gainbalioa bereganatzen du. Ematen du bere kapitala inbertituz dirua “lanean” jarri duela. Hala ere, dagoneko denok dakigu dirua lanaren isla dela eta beraz, diruak ezin duela lanik egin; lana, pertsonok egiten dugu. Hortaz, agerikoa da gainbalio hori, erakarri egiten duen gaindiru hori, langileok egindako lanetik dator. Baina non dago tranpa? Berez, langileriari hilero-hilero ordaintzen diote...

Lehenago esan bezala, langileari bere erreprodukzioa bermatzeko beharrezkoa duen dirua bakarrik ordaintzen zaio, hau da, bere lan-indarragatik ordaintzen zaio (edo lan egiteko gaitasunatik). Horregatik hilabete bakoitzaren amaieran diru hori agortu egiten zaio eta behin eta berriro lan-merkatura jotzeko beharrezkotasun aurkitzen da. Baina gauza bat da lan egiteko gaitasuna (lan-indarra) eta bestea gaitasun horrekin egiten duen lana. Eta hemen dago kapitalismoaren bihotzean dagoen esplotaziozko harremana ulertzeko gakoa: langileari, zortzi orduz lanean egoteak balio duena ordainduko diote; ez zortzi ordu horietan lan eginda benetan sortu duen balioa.



Kontraesan horri erreparatzen badiogu konturatuko gara errealki lan egin dituen zortzi orduetatik, lehenengo orduetan bere erreprodukziorako beharrezkoa den balioa sortua duela; hor egin du beharrezko lana. Hortik aurrera egindako lan guztia gainlana litzateke, gainbalioa sortuko duena. Hau da, langileak ekoiztutako balio guztia bere lan-indarrak balio duena baino askoz handiagoa da, eta ezberdintasun hori da gainbalioaren iturria; kapitalaren iturria. Horrela, langileari ez zaio egin duenagatik ordainduko baizik eta hori egiteko duen gaitasunak balio duenagatik (lan-indarra). Eta honek guztiak ondorio argi bat dauka: kapital oro lanari xurgatutako balioz osatuta dago erabat; ez dago beste kapital iturririk gainontzekoen lana ez bada. Gainontzeko horiei ordaindu ez zaien lana, hain zuzen ere. Hori da kapitalismoak bere baitan daraman kontraesana, lana eta kapitalaren arteko kontraesana. Horrela gauzatzen da esplotazioa kapitalismoan. Modu eskematikoan formulatuz, merkantzien azpitik dagoen errealitatea agerian geratzen da orain:

$$D - M \text{ (lehengaiak + ekoizpen bitartekoak + lan-indarra)} \xrightarrow{\text{Ekoizpen kapitalista}} M' - D'$$

**D:** Hasierako dirua.

**M:** Hasierako diruarekin erosten diren merkantziak.

**M':** Ekoizpen kapitalistaren bitartez, merkantzia berriak sortu dira, hasierakoek zutena baino balio handiagoa dutena.

**D':** Merkantzia berri horiek salduz, hasieran genuena baino diru gehiago daukagu.

*1-Itudia: Merkantzien ekoizpen kapitalistaren zirkuitua.*

Burgesia kontraesan hori kudeatzen saiatu daiteke, ezkutatzen, arreta desbideratzen; baina ezingo du inoiz saihestu. Egiturazko biolentzia bezala, moduren batean edo bestean, beti azaleratuko zaio: batzuek lan egin, langile klasea; besteek lan horren emaitza poltsikoratu, klase burgesa. Kolektiboki sortutako aberastasun soziala, jabetza pribatu burges bilakatu, etenik ez duen emari baten legez. Hori da kapitalismoaren zioa.

#### 6- Salariora eta jabetzaren izaera soziala

Aurrera egin baino lehen, salarioa eta jabetzaren izaeraren gainean hausnartu nahiko genuke, askotan nahasmen handia baitago kontzeptu horien gainean ematen diren definizioetan. Salariorari dagokionez, gaur egun, formalki ezartzen den kontratu laborala bakarrik ulertu ohi da salario bezala, eta kontratuean diharduen langilea bakarrik langile asalariatu bezala. Ikuspegi hori, baina, arazo iturri etengabea da egungo fase kapitalista ulertzeko orduan. Esate baterako, asko dira salarioa betetzen ez duten kontratu laboralak (minijobak, esaterako) eta beraz, langileak kontratu laboral ezberdinak batu beharko ditu salarioa bete ahal izateko.

Era berean, gaur egun gero eta ohikoagoa da kontratu laboralik gabeko salarioa agertzea: esplotazio maila handian lanean diharduten autonomoak (banatzaileak, gazte “ekintzaille” asko, nekazari txikiak...), horren adibide argia dira, hilabete amaieran euren salarioa betetzeko gai baino ez direnean. Kasu horietan, izaera formalik gabeko salarioaren aurrean egongo ginateke; autonomo asalariatuak. Horiek ere langile kondizioaren baitan leudeke, eta langile klasearen baitan ulertu behar ditugu; zenbait kasutan, kontratu formal bat dutenak baino esplotazio maila handiagoan egonik, gainera. Kontrara,

badaude langileari salarioaz gaindiko ordainsaria ematen dioten kontratu laboralak; hau da, bere lan-indarra erreproduzitzeko beharrezkoa den balioaz gaindiko ordainsaria ziurtatzen diotenak langileari (esaterako, mediku bat edo erdigune inperialistan agertzen diren zenbait lanpostu industrialen kasuan). Ondorioz, langile horrek aurrezteko eta dirua metatzen hasteko gaitasuna dauka. Amaieran ikusiko dugun bezala, klase konposizioaren azterketarako garrantzi handiko ezarpenak dira hauek, besteak beste, langile klasearen baitako interes batasuna oztopatu baititzakete, bere eraketa politikoa zailduz.

Edozein modutara ere, egun kapitalismoak hartzen duen forma ulertzeko ezinbestekoa da kontratu laborala (lan-indarraren salmentak hartzen duen forma juridikoa) eta salarioaren (lan-indarraren balioa) arteko ezberdintasuna argi izatea: kontratu laborala formala da, juridikoa, izaera abstraktua duena. Salarioa, ordea, sozialki erdietsia da, erlazionala; lan-indarraren erreprodukzioa asebetetzeko beharrezkoa den balioaz osatua dago.

Jabetzarekin antzerako zerbeit gertatzen da. Aurretik aipatu autonomo asalariatu horrek, formalki, lanerako erabiltzen duen jabetzaren bat eduki dezake, furgoneta bat, esate baterako. Jabetza horrek, halere, erlazio produktibo kapitalistekin harremanean jartzean ez dio gainbaliorik sortzen, ekoizlearen salarioa ziurtatzeko baino ez baita gai. Era berean, langile familia batek etxebizitza bat, kotxe bat edo ordenagailu bat eduki dezake formalki jabetzan, baina jabetza horiek guztiak familia horren erreprodukzioa bermatzeko baino ez dira gai. Horiek guztiak erreprodukzio bitartekoak baino ez dira. Horregatik, kapitalismoan gainbalioa ekoizteko gai den jabetza da garrantzi soziala daukana. Honenbestez, salarioarekin be

zala, ez genuke jabetza bere forma abstraktuan ulertu beharko (delako jabetza tituluen kontrola izan), baizik eta harreman sozial bat bezala: jabetza juridiko horren kontrolak, erlazio produktiboekin kontaktuan errealki sortzeko gai den botere maila. Hau da, jabetza hori kapital bilakatzeko duen gaitasunari erreparatuz. Kontratu laboralik gabe langile hutsa izan zaitezkeen bezala, merkantzia soil baten jabetzak ez zaitu burges bilakatzen. Merkantzia horrek bitarteko produktiboa izan behar du, gainbalioa ekoizten duen bitartekoa hain zuzen ere; merkantzien zirkulazio sinpletik anpliatura salto egitea ahalbidetuko dizuna.

### **Lan-indar merkantziaren zirkuitua edo ziklo erreproduktiboa kapitalismoan.**

Honekin guztiarekin pentsa genezake dena nahiko argi dagoela eta iraultzarako bide orria zehaztera pasa gaitezkeela. Guk ezetz uste dugu, badaudela oraindik argitzeke dauden elementuak. Horien artean, lan-indarraren izaerari lotutakoa dago. Ohikoa da entzutea, eta guk ere horrela azaldu dugu goian, langileak kapitalismoan “daukan” gauza bakarra bere lan-indarra dela. Baina baieztapen horrek ez du kontuan hartzen langileak, berez, lan-indarra ere ez “daukala”. Beste edozein merkantzia bezala, kapitalismoan lan-indarra ez da pertsonok daukagun berezko ezaugarri bat, eta beraz, ekoiztu egin behar da, edo zehatzago esanda, erreproduzitu.

Aldi berean, lan-indarrak badu beste merkantziek ez duten ezaugarri berezi bat, hil ala biziko garrantzia duena kapitalismoarentzat: lan-indarra da merkantzia berri bat sortu dezakeen merkantzia bakarra. Aurretik esan dugu merkantzia guztiak lanaz osatuta daudela, baina berez, merkantzia batean

aurkezten zaigun lan hori hilda dago; aurreko merkantzia ziklo batetik datorren lan biziaren metaketa edo solidifikazioa da. Milioi bat euroekin erosi dugun goiko garagardo fabrika horretan kupelak eduki ditzakegu, garagarra, ura, botilaratze-ko makinak... Guzti horiek lana daukate beraien baitan, baina lan hila da. Bere horretan uzten baditugu ez dute ezer egingo; ez da garagardorik ekoiztuko bertan. Lan-ekoizpen prozesu ororen abiapuntuan dagoen lan bizia behar da, orainaldiko giza lana eta ez iraganekoa, merkantzia multzo hori martxan jartzeko eta guzti horri balio geruza berri bat eransteke.

Kapitalismoak, beraz, nola edo hala, lan-indar merkantzia bezala eskuragarri izango duela ziurtatu behar du. Oro har, lan-indarra egunero-egunero lanpostura bueltatuko dela ziurtatu behar du; lanpostuan zortzi orduz (edo beharrezkoak direnak) lan egiten egoteko gaitasuna eta aukera bermatua izan behar du beti. Aurreko paragrafoan esan bezala, gaitasun hori ez da espontaneoki edo naturalki agertzen; moduren batean edo bestean lanerako gaitasun eta aukera hori sortu egin behar da, ekoiztu behar da. Langile horrek egunero jan behar du, lo egin behar du, jantzi behar da, lan jarduera modu egokian egiteko beharrezkoa dena ikasi, gaxotzen denean osatu, emozionalki egoera onean egon... Lan-indar horren obedientzia ere bermatua egon beharko da, obedientzia hori beharrezkoa baita egunero lanpostura agertzeko. Azkenik, pertsona horren gorputza eta pentsamendua agortuz doazen heinean, nola edo hala, baten batek kargu hartu beharko du dagoeneko lan egin ezin duten horien existentziaz; eta horrekin batera, ekoizpen katean bere lekua hartuko dutenen gorputz eta pentsamendu berria sortu.

Prozesu hori guztia gauzatzearen emaitza lan-indarraren erreprodukzioa da. Kapitalismoan, erreprodukzio ziklo horretan parte hartzen duten zerbitzu eta produktu horietako bakoitzak balio bat du eta balio horien batuketak osatzen du salarioa. Goian azaldu bezala, langilea, desjabetua den heinean (ez du kapitalik), ziklo erreproduktibo horretan harrapatuta bizi da. Dirua behar du, baina saltzeko daukan bakarra lan-indarra da; alabaina, lan-indar hori ere ez daukanez, hasierako salmentarekin lortzen duen diru guztia, lan-indarra bera birsortzera bideratu behar du. Hau da:

$$M \text{ (lan-indarra) } - D - M \text{ (kontsumo artikulua) } \xrightarrow{\text{Erreprodukzioa}} M \text{ (lan-indarra) } - D$$

**M:** Hasierako merkantzia, lan-indarra.

**D:** Lan-indarra salduz dirua, salarioa, lortzen da, kontsumo artikulua erosteko erabiliko dena. (**M**).

**M:** Erreprodukzioaren bitartez, kontsumo artikuluek merkantzia berria bilakatzen dira, lan-indar merkantzia alegia, hasierako balio berdina duena.

**D:** Lan-indarra salduz, berri ere dirua lortzen da.

*2-Irudia: Lan-indar merkantziaren zikloa edo ziklo erreproduktiboa.*

Formula horri erreparatzen badiogu, ohartuko gara lan-indarraren erreprodukzioak zirkulazio sinplearen formula berdinari erantzuten diola ( $M-D-M$ ). Beraz, bere baitan etengabe agortzen den ziklo horretatik irten ezinik dabilen bitartean, kapitala dutenek, bere lan-indarra gainbalioa ekoizteko eta metatzeko erabiltzen dute ( $D-M-D'$ ).

Horrez gain, ondorengo eskeman ikusi dezakegun bezala, kapitalismoan ziklo erreproduktiboa banatua agertzen da. Alde batetik, lan-indarraren salmentaren bitartez zuzenean lanpostuan egiten den lana daukagu, lan-indar horren erre

produkzioarako beharrezkoak diren balioak sortuko dituen (salariora). Bestetik, lan-indarra bera erreproduzitzeko monetarizatu gabe diharduten lanak ditugu. Ziklo erreproduktibo horren guztiaren gibelean, gainlana eta gainbalioaren ekoizpen eta apropiazioa daukagu:



Kapitalismoan ematen den ziklo erreproduktiboaren zatiketa horrek bere funtzionamendu erreala estaltzen laguntzen du. Beste behin, merkantzien fetitxismoarekin gertatzen zen bezala, itxura eta esentziaren arteko banaketa areagotzen ikusten dugu, errealitate sozialaren ulerkera integrala zailduz. Kasu honetan, kondizio asalariatuan bizi den oro ziklo erreproduktibo horretan harrapatua dago; etxean lan-indar merkantzia sortzen dutenak edo lan-indar hori lanpostuan saltzeaz arduratzen direnak, denak daude zirkulazio sinpleak inposatzen dizkien muga hertsien barruan. Eta horrekin ez dugu esan

nahi muga horien baitan bizirauten dutenak neutraltasunean edo berdintasunean harremantzen direnik. Ondoren ikusiko dugun bezala, ziklo erreproduktiboaren baitan ere posizio antagonikoak daude, dominazioaren ulerkeran zentralak direnak.

Azken honi lotua, ziklo erreproduktiboarekin erlazionatuta dagoen beste ezaugarri bat azpimarratu behar dugu. Lan-indarraren ekoizpen eta birsortze prozesu horrek izaera kolektiboa du beti; familiaren baitan ematen da nagusiki, baina ez bakarrik. Jendarteak bere osotasunean ere parte hartzen du prozesu horretan; hezkuntza sistema, osasungintza sistema, aisialdi baliabideak... Eta hemen kontraesan batekin egiten dugu topo; lan-indarraren ekoizpenerako prozesua kolektiboa da bai, baina langileak, norbanako bezala sinatzen du lan-indar horren salmenta. Eta salarioan barnebiltzen diren balio horien gaineko jabetza pribatua lortzen du horrela. Goizean etxetik irteterakoan ekoizpen prozesu kolektibo bezala ematen dena, gauero etxera jabego titulu indibidual bezala heltzen da. Kapitalarekin bezala, kolektiboa den prozesu bat jabetza pribatu bilakatzen da, baina ezberdintasun kualitatibo handi batekin; jabetza hori salarioaren gainekoa da, ez kapitalaren gainekoa, eta horrek inplikazio sakonak ditu. Ez du maila sozialean botererik metatzen eta etengabe agortuko da langile horren bizitzarako beharrezkoak diren merkantziak kontsumitzen. Aldi berean, baina, familia barneko erreprodukzio zikloarekiko botere maila handia eskuratzen duela ukazina da eta horrek ere esangura handia du.

### **Patriarkatuaren gaurkotasuna dominazioaren logikan.**

Askotan patriarkatuaz edo genero zapalkuntzaz hitz egiten dugu



nean erreprodukzioari lotutako hausnarketetan txertatzen ditugu egin beharreko aportazioak. Segur aski, batek baino gehiagok faltan bota du aurreko atalean horren gaineko aipamenik egon ez izatea. Gure ustez, ezin dugu patriarkatua erreprodukzioari lotutako fenomeno soil bezala ulertu, familia edo etxearen baitan ematen den fenomeno bezala. Hori ere izanik, bizitza sozial osoa (gorputza, pentsamendua, lana, ekoizpena) zeharkatzen duen dominaziorako oinarrizko baldintza bezala ulertu eta aztertu behar dugu patriarkatua. Osotasunaren osagai bezala ulertu beharra dago, eta horregatik azterketa ardatz propioa behar du. Hasieratik esan dugu patriarkatua Dominazioaren Sistemaren abiapuntuan dagoela eta dominazioak hartu izan dituen forma ezberdinen bizkarrezurra osatu duela. Ondoren ikusiko dugun bezala, kapitalismoan dominazioak hartzen duen forma zehatzean ere horrela gertatzen da.

Lehenengo eta behin, gorputzen birsortzeak emakumeon gaitasun erreproduktibo biologikoen gainean jarraitzen du (haurdunaldia, erditzea, edoskitzea). Horrek emakumeon gorputzak, nola edo hala, subordinatuta mantentzearen beharra dakar, Dominazioaren Sistemak momentuan dituen beharrianei erantzun ahal izateko.

Momentuz eta zenbait lekutan bestelako tendentziak antze-man ahal baditugu ere, kapitalismoan familia nuklear heteropatriarkala da birsortze biologikorako marko zentral eta nagusia.

Horri lotua, eta goian ikusi dugun bezala, lan-indarraren erreprodukzioak ez du bakarrik gorputzen birsortze biologikoa barnebiltzen. Gorputz eta pentsamendu berri horiek elikatu, jantzi, maitatu eta hezi egin behar dira. Osasuntsu haziko direla eta sozializazio egoki bat izango dutela bermatu.

Dagoeneko helduak direnak ere zaintzen jarraitu behar dira, lan-ekoizpen katean modu egokian txertatuak jarrai dezaten. Erreproduktio biologikotik haratagoko lan erreproduktibo horien zati handi bat familiaren mugen baitan ematen jarraitzen da, familia eredu nuklear eta heteropatriakal horietan hain zuzen ere. Berezko izaera kolektiboa duen erreproduktio prozesu horrek, lan-indarraren salmentaren ondoren, kontrol pribatuaren forma hartzen duenean, patriarkatuaren beste adierazpen batekin egiten dugu topo. Izan ere, sistematikoki goizero etxean lanean emakumea geratzen denean eta gauero lan-indar kolektibo horren salmentaren titularitatea gizonak dakarrenean, lan erreproduktiboaren apropiazio patriarkala ematen dela esan dezakegu. Burgesak langileak egindako gainlanaren emaitza bereganatzen duela esaten dugunean (apropiazio kapitalista), kontuan hartu beharko genuke gizon langileak familia osoaren lan-indarra baino ez duela ordezkatzeko; testuinguru horretan, gizonak emakumeak etxean egindako lan erreproduktiboa sistematikoki bereganatzen du (apropiazio patriarkala).

Alargun pentsionisten kasuan ezin argiago geratzen da hori: senar eta semeek lanpostuetan urteetan zehar egindako milaka lan orduetako bakoitza, berez, familiak kolektiboki egindako lan erreproduktiboaren emaitza izan da. Hemen, gizonak ere, ziklo erreproduktibo horren zati bat egin du; kolektiboki ekoiztutako lan-indar hori saltzerakoan ziklo erreproduktiboa ixten duela gogoratu behar dugu. Hau da, ziklo hori ixterakoan bakarrik ordaindu ahalko baita etxeko janaria, arropak, alokairua... Horregatik komeni da langile familia unitate bezala aztertzea eta gizonak lanpostuan egindako lana ere ziklo erreproduktiboaren barruan kokatzea; gizonak lanpostuan egiten

duen gainlana ere emakumeari dagokion era berean. Unitate osoaren parte hartzeaz bakarrik da posible lan erreproduktiboa zein gainlana. Arazoa hemen, familia osoari zegokion ordainsaria gizonak norbanako bezala jaso izan duela da eta horren ondorioz, orain alargunak bere pentsioa osatuko duen kotizaziorik ez duela. Berari zegokion kotizazioa gizonak jaso du. Argiki ikusten da hemen nola emakume horien gain, bi apropiazio forma ezberdin gauzatu diren; alde batetik, kapitalismoaren kategorien bitartez (salerosketa, merkantzia, soldata, dirua...), burgesak bere lan-indarra ere bazen horretatik gainbalioa xurgatu dio. Beste aldetik, kategoria aurrekapitalisten bitartez (ahaidetasun harreman patriarkalak), bere senarrak biena zen lan-indarra saldu eta ordainsaria norbanako bezala bereganatu du.

Horrez gain, gizon horrek erreprodukziora bideratutako lanean (bere kasuan lanpostuan) diharduen ordu kopurua emakumeak etxean diharduena baino gutxiago izan ohi da. Horrela, emakumea etxeko eremuko lan erreproduktiboetara (lan domestikotzat jo dezakegun horri) bideratzen da, aisialditik, militantziarako aukeratik... aldenduz, eremu publikotik aldenduz, edo beste era batera esanda, kapitalismoan deskantsu eta gozamenerako espazioetatik zokoratuz edo berau iraultzeko antolakuntza espazioetatik urrunduz.

Egia da, gaur egun, apropiazio patriarkal hori kapitalismoaren mugen barruan eta kapitalaren mesedetara ematen dela, baina batak eta besteak erabiltzen dituzten bitarteko dominatzaileak ezberdinak dira eta hori kontuan hartu beharko genuke. Kapitalaren kategorien barne logikari bakarrik erreparatzen badiogu ez dugu ikusiko logika horretatik kanpo gertatzen dena. Bestalde, badago esango duenik familia eredu

patriarkal tradizionala desagertuz doala eta gurea bezalako jendarte batean apropiazio forma horrek gero eta garrantzi txikiagoa duela. Ukatzerik ez dago familia eredu tradizional horrek azken hamarkadetan garrantzia galdu duela erdigune inperialistako populazioaren zenbait geruzatan. Hala ere, agortzetik urrun dagoela uste dugu. Esate baterako, mendebaldean erlijio monoteista patriarkalen arabera antolaturiko familiak (katolikoak, ortodoxoak, ebangelistak, musulmanak...) oraindik ugariak dira eta ikertu beharko genuke joera goranzkoa edo beheranzkoa den. Oro har, emakumeok etxetik kanpo diru truke lan egiten dugun kasuetan ere, ikertu beharko litzateke familiak jasotzen duen salario osoaren kontrol erreala nork daraman. Eta honez guztiaz gain, azpimarratu behar da, familia eredu patriarkal hain argia ez duten familietan ere, emakumeok etxe barruko lanen gehiengoaz arduratzen gara. Zenbat familietan gara emakumeok, umeak izan ondoren, etxetik kanpoko lanari uko egin eta lan domestikoari lehenetasuna ematen diogunak? Zer esanik ez aisialdi, militantzia, adiskidetasunei... uko egiten diogunean lan domestiko eta lan asalariatuaren arteko oreka lortze bidean.

Argi dago beraz, kapitalismoak patriarkatua barnerratu duela bere baitan ematen den ziklo erreproduktiboaren kudeaketa marko bezala. Erdigune inperialistatik haratago, mundu osoa jartzen badugu ikusmiran, are agerikoagoa da hori. Bestalde, familiaren baitan ematen den lan erreproduktiboaren apropiazioaz gain, patriarkatuak baditu beste adierazpen forma batzuk egungo jendartean. Familiaren mugetatik kanpo, emakumeok gure lan-indarra saldu behar dugunean, feminizatuak dauden lanpostuetara bideratuak gaude; esate baterako, lan domestikoaren baitan monetarizatuak izan diren

(etxeak garbitu, ume eta edadekoak zaindu...). Horrez gain, gure lan-indarra saltzerako orduan, salmenta hori gizonekin konparatuz modu devaluatuan gauzatera behartuta gaude. Hau da, lanpostuan ere, kategoria kapitalisten bitartez apropiatua zaigun gainbalioaren proportzioa handiagoa da.

Honetaz guztiaz gain, patriarkatuaren oinarrian dagoen emakumeon gorputzen gaineko dominazioa daukagu. Hasieran aipatu dugun erreproduzio biologikorako gaitasunetik haratago, emakume bezala sozializatua izateagatik egiturazko biolentzia patriarkala jasotzen dugu: egunero kolpatzen gaitu umilazioak, gutxiespenak, jazarpen psikologikoak, bortxaketek, erailketek eta abar. Bortxaketa, eta oro har, biolentzia sexualaren kasuan, apropiazioa ez da hainbeste lanaren gainean ematen, gorputzaren gainean baino. Ondorioz, emakume gorputz sexualizatu bezala sozializatuak izan diren gorputz guztiek jasaten dute potentzialki biolentzia forma hau; lanaren arabera ezarritako posizio sozialarekiko modu independentean. Honekin lotua, harreman eredu hetero-patriarkalarekin bat ez datozen erlazio formak egiturazko biolentzia jasatera kondenatuak daude baita ere. Patriarkatuak ezartzen duen sexu-genero dikotomiarekin bat ez datozen gorputzak ere, antzerako goieran daude.

Honek guztiak erakusten digu patriarkatuak aspaldi utzi ziola familia egitura soil bat izateari. Familiaren mugetatik haratago gauzatzen diren hamaika adierazpen forma ditu eta are esanguratsuagoa dena; muga horietatik at, denetariko bitartekoak erabiltzen ditu bere birsortzea bermatzeko: komunikabideak, kirola, internet, eskola, zinema edo musika, gizon eta emakumeen sozializazio espazioak... Familiaz haratago, jendartea bere osotasunean zeharkatzen duen errealitatea da

patriarkatua, eta honekin, patriarkatuak hartzen duen beste adierazpen bat geratzen da agerian, askotan aipatua izaten ez dena. Alegia, Dominazioaren Sistemak historikoki hartutako forma ororen bihotzean egon den ezinbesteko baldintzaren sortzaile izatea: mentalitate dominatzailea. Jabetza pribatuaren sorburutik, harreman sozial patriarkalek dominazioa sostengatzeko baldintza ideologikoen bizkarrezurra ekoiztu dute; ondokoa zapaldu, umiliatu, bortxatu edota mespretxatzeko aukera, gutariko bakoitzarengan errotua dagoen mentalitate dominatzaileari esker bakarrik izan da posible. Eta mentalitate dominatzaile horrek, gaur egun ere, patriarkala izaten jarraitzen du. Egungo testuinguruan pentsamendu liberal-burgesa eta koloniala ere mentalitate horren zutabe zentral bezala identifikatzen ditugu.

### **Nazio auzia, kolonialitatea eta abertzaletasuna.**

Orain arteko ezaugarri eta kategoriak maila globalean ulertu ditzakegu, azken finean, Dominazioaren Sistemak maila planetarioa hartu baitu kapitalismoaren eskutik. Mendeetako hedapenaren ondotik, Lur planetako txoko ia guztietara zabaldu da. Hala ere, dominazioaren irudikapen orokor horrek lurralde bakoitzean hartzen duen forma eta espresio zehatzak ez dira homogeenak. Kapitalismoa gune inperialista batzuen eskutik zabaldu zen, eta hortaz, munduak zabalpen eredu horren araberrako forma hartu du; erdigune inperialista eta periferia kolonialaren arabera banatuta agertzen zaigu. Garai historiko ezberdinetan egin izan duen bezala, gaur egun ere Dominazioaren Sistema nazio eta arrazaren arabera eraikia den banaketa horretaz probestu da lan-ekoizpen kate guztiaren gainean esplotazioa eta apropiazioa ahalik eta modu

eraginkorrenean emateko. Gorputzen apropiazioa eta lan erreproduktiborena, pentsamenduaren alienazioa edota gain-lana eta gainbalioaren esplotazioa ez lirateke posible izango kolonialismoak eta nazio zapalkuntzak ezarritako baldintzen-gatik ez balitz.

Hemen azpimarratu behar dugu kolonizazioa ez dugula fenomeno ekonomiko soil bezala ikusten, truke desorekatuak ahalbidetzen duen arpilatzean oinarritzen dena eta kolonizatutako herriaren azpigarapena eragiten duena. Euskal Herria, esate baterako, nazio moduan gaur egun ez dago horrelako posizio kolonialean. Hortik haratago doan fenomenoaz ari gara, gehienetan prozesu historiko luze eta mingarri baten emaitza dena. Dominazioaren Sistemak lurralde eta herri zehatz baten bizitza sozial osoaren gain erabateko subordinazioa inposatzea lortzen dueneko prozesua da guretzat kolonizazio prozesua. Eta bere puntu gorena mundu mailan modernitate kapitalistaren orokortzearekin dator; gure testuinguruan espainiar eta frantziar Estatuaren eskutik.

Hortaz, kolonizazio prozesua dominazioa osotasun bezala posible egiten duten biolentzia espresio ugariz josia dago: kolonizazio ekonomikoa badago noski, baina baita pentsamenduarena eta gorputzena ere; hizkuntzen kolonizazioa, edo musikarena, dantza eta janzkerena; edota herri batek berezkoak dituen bestelako adierazpen sinboliko eta politikoaren kolonizazioa. Praktikan klase borroka historikoaren forma hartzen du: komunitateek Estatuaren aurka egiten dituzten gerrak, emakumeek patriarkatuaren aurka, langileek burgesiaren aurka, herriek Inperioaren aurka. Zoritxarrez, askotan borroka horretan zehar komunitateak disolbatu egiten dira, hizkuntzak desagertu, emakumeak emazte bilakatu,

lana merkantzia bihurtu, jabetza komunala jabetza pribatu, herriek autonomia ekonomiko eta politikoa galdu eta pentsamendua alienatu.

Hartara, gure ustez, kolonizazio fenomeno, bere osotasunean ulertuta, erdigune inperialistari dagokion fenomeno ere bada. Izan ere, mundu mailan zabalpen kolonial eta inperialista abiatu baino lehen (batzuetan aldi berean), potentzia inperialistek barne mailako kolonizazio eta homogeneizazio prozesuak burutu behar izan zituzten. Europako Estatu moderno guztien genesian, beraien mugen barruko komunitate eta herriak zapalduak, suntsituak eta asimilatuak izan ziren mendeetan zehar. Era berean, dominazioaren hedapen eta ezarpen inperialistak ez du beti zertan “kolonia” egitura bat sortu. Horrela, bere garaian barne mailako kolonizazioa pairatu zuten Europako lurralde horiek, gaur egun ez dute kolonia moduan funtzionatzen, erdigune inperialistara txertatuak izan baitira, eta mundu mailako testuinguruan posizio horretatik jokatzen baitute. Ondoren ikusiko dugun bezala, Europan nazio auzia ulertzeko orduan garrantzitsua da hori guztia kontuan hartzea.

Edozein modutara ere, kolonizazio prozesu integral horren gauzapena, dela periferia kolonialean, dela gerora erdigune inperialista bilakatuko ziren lurraldeetan, ez da modu baketsuan eman. Klase borrokaren historiak erakusten digun bezala, altxamenduz, matxinadaz, erresistentziaz eta gerraz jostia dago. Bada, guretzako erresistentzia hori da aberria.

Aberria kontzeptu gatazkatsua izan da, esanahi ugari hartu izan dituena testuinguru historiko eta sozialaren arabera. Euskaraz, Sabino Aranak XIX. mende amaieran eginiko *patria* kontzeptuaren euskaratzea da aberria. Aranak euskal aberria



modu esentzialistan ulertzen zuen, erro katoliko eta arrazistatik eraikia; euskaldunok nolabaiteko patu batek gidatutako “berezko” herria edo arraza ginateteke; Jaungoikoak gure odolean txertatu duen zori eta izaera erromantikoa, alegia. Gaur egun azalpen jainkotiarrak eta arrazazkoak nahiko baztertuak egon arren, ikuspegi esentzialista horrek badu oraindik ere babes handia euskal jendartean: askok uste dute euskaldunok badugula zerbait, berezko sen bat, gainontzekoengandik ezberdintzen gaituena.

Baina ez da hori aberriak izan dezakeen interpretazio bakarra. Modernitatea baino lehen, gaztelerazko *patria* kontzeptuak esanahi ugari izan zituen. Esate baterako, nekazal komunitateetan *patria* hitzak pertsona baten jatorri den bailara, eskualde edo herrixkari egiten zion erreferentzia. Lurraldetasun eta komunitate bati lotua zihoan *patria chica* (aberi txikia) bezala ulertzen zen hori, ondoren etorri ziren Nazio eta Estatu modernoekin zerikusirik ez zuena. Kontzeptuaren beste adiera interesgarri bat Abya Yalan jasotzen dugu, bertako askapen borroka deskolonialen bihotzean garatua. Fidel Castro kubatarrak horrela hitz egiten zuen aberriaz:

*“El campesino sin tierras, el negro discriminado, el trabajador explotado, los perseguidos, los desconocidos, los maltratados, los humildes, esos son los que han demostrado tener un verdadero concepto de la dignidad nacional; tener un verdadero concepto de la patria, tener un verdadero concepto del honor y tener un verdadero concepto del deber, que no han demostrado —¡y cómo iban a demostrarlo!— los que gozaban de todas las prerrogativas y de todos los privilegios, a base de explotar al pueblo.”*

Argi ikusten dugu hor aberria zapaltzaile eta zapalduon arteko lehian ebazten dela. Esentzialismotik haratago, interes

kontrajarrien etengabeko talka horretan kokatzen da aberria, gizaldietan zehar zapaltzaileen aurrean altxatu diren horietan. Gure ustetan, hor aurkituko dugu aberriaren osagai nagusia; askatasunaren aldeko etengabeko borrokan, erresistentzian. Euskal Herrira bueltatuz, XX. mendeko bigarren zatian, Nazio Askapenerako Mugimendua garatu ahala eta sozialismo abertzalearen eskutik, aberria eta abertzaletasunaren nozioak interpretazio horietarantz hurbildu ziren. Euskaldun izatea, arraza eta erlijio batekin baino, hizkuntza bat maitatzearekin, lurralde batean bizi eta lan egitearekin lotuz joan zen gero eta gehiago, baita horren guztiaren defentsarako borrokaekin ere.

Edozein modutara ere, oraindik ere euskal aberria erro kultural homogeen batekin lotzen da, euskal kultura zuri eta katolikotik eratortzen dena batik bat. Ez dugu esan nahi erro hori guztiz ukatu behar dugunik, Euskal Herrian bizi diren asko eta askoren sustraiak ukatzea bailitzateke hori. Are gehiago, sustrai horiek elikatzen duten baserriar jendarte tradizionalan baditugu Bizitza Askearen eraikuntzarako inspirazio iturri izan daitezkeen elementu ugari: komunitatea bera, ekonomia naturala, auzolana, elkarrekin harremantzeko logika kolektiboak, herri-lur komunalak edota oinarrizko egitura demokratiko-komunalak (kontzejoak, batzarrea, biltzarra...). Esan gabe doa, komunitate aurremoderno horiek biolentzia espresio ugari zeharkatuta zeudela eta beraien egituretan txertatuak ageri zirela espresio horiek; izaera patriarkala zuten, koloniala, feudala... Beraz, ezin ditugu idealizatu eta begirada zorrotz eta kritikoaekin aztertu behar ditugu.

Hala ere, egun Euskal Herrian bizi diren beste askok eta askok ez dute erro kultural hori konpartitzen. Jatorri (ara

biarrak, latinoak, beltz afrikarrak, andaluzak, txinatarrak, ijitoak...) zein sinesmen (musulmanak, ortodoxoak, katolikoak, ebangelistak, ateoak...) ezberdinen konbinazioz sortutako komunitate ugari, dagoeneko lurralde hauetan errotuak daude. Euskal kultura tradizionalak bezala, adierazpen kultural horiek guztiak badituzte beraien baitan askapen borrokan balio handikoak izan daitezkeen ezaugarriak. Komunitate horietako asko, gainera, euskal jendarte zuriak arrazializatzen ditu, klase jendartean posizio are latzagora bultzatuz. Horregatik, eta errealki askatzailea izango den borroka prozesu nazionala abian jarri nahi badugu, Euskal Herriko nazio eraikuntzan lekua izan behar dute ezinbestean. Baina horretarako, aberria eta nazioaren gainean daukagun ulerkera aldatu behar dugu, egungo proposamen abertzale eta nazionalen zaila baita horretarako lekurik aurkitzea. Izan ere, euskal nazionalismoan hegemonikoa izan da (eta izaten jarraitzen du) nazioa eta aberriaren ulerkera kulturala, Euskal Herriaren existentzia nazionala oinarri kultural/etniko bakar eta homogeen baten existentziari lotzen duena. Ikuspegi hori gainditzea hil ala biziko kontua da egungo testuinguruan. Horretarako, nazioa bere dimentsio politikoan ulertu beharko genuke, lurralde jakin bateko komunitateek adierazten duten borondate politikoari lotua, ez ezaugarri etniko edo kultural zehatz batzuei atxikita. Aberria, aldiz, nazio edo lurralde horren baitan klase borroka hartzen duen intentsitate momentu bezala ulertzea dagokigu.

Norabide horretan, egungo euskal langileria osatzen duten espresio kultural anitzek bat egungo duten kultura iraultzaile bat eraikitzea lortu beharko genuke. Bakoitza bere erroa mantenduz eta erro horretatik egin ditzakeen ekarpenekin Bizitza Askearen eraikuntzan bat eginez. Aniztasun horren baitan,

euskarak bete beharreko funtzioa ere azpimarratzea dago. Alegia, euskararen biziraupena bermatu nahi badugu (hizkuntza bizi eta aske bezala, kapitalaren eta inperialismoaren atzaparretatik at), euskarak kultura iraultzaile horren eroale izatea lortu behar du. Nola edo hala (eta ez da erraza izango), espresio kultural horiek guztiak lotuko dituen haria izan behar da, borrokarako hizkuntza bihurtu, desjabetu orok bere bizi baldintzen hobekuntzarekin eta etorkizun aske batekin lotuko duen hizkuntza. Erresistentziaren hizkuntza bilakatu, hain zuzen ere.

Aberria eta nazioaren birformulazioan sakonduz, askotan aberria Nazio-Estatuarekin nahasten dela uste dugu, eta guretzako hori ez da guztiz zuzena. Aberria klase borrokak lurralde jakin batean hartzen duen adierazpenari lotua doala esan badugu, aberria askatasunerako bektorea izan behar da, ezin da inoiz Dominazioaren Sistema inposatuko duen bektore izan. Aberria, beraz, beti doa nazio zapalkuntzari lotua; klase borrokaren historiaren ondorioz herri zapaldu batek metatzen duen kapital politikoaz osatua legoke. Klase borrokak lurralde eta denbora zehatz batean hartzen duen espresioa da aberria, eta hortaz, herri batek bere existentziarekiko duen kontzientzia mailaz osatuta dago, auto-antolakuntzarako eta auto-defentsarako erakusten duen gaitasunaz. Horregatik, gauza bat aberria da eta beste bat Inperioa. Esate baterako, Estatu espainiarra, eta oro har, España beraren ideia ezin da aberri izan. España Inperioa da.

Bere sorreratik, España modernitate kapitalista inposatzeko egitura politikoa izan da, Dominazioaren Sistema hedatu duena bere egitura guztietan zehar. Frantziari buruz ere antzerakoa esan dezakegu, baita gainontzeko potentzia inperial europarrei buruz ere. Horrek ez du esan nahi egun

Estatu espainiarrak edo frantsesak kontrolatzen dituzten lur-  
rren baitan aberririk ez dagoenik. Gaztelako nekazal komuni-  
tateak aberri izan ziren XVI. mendean espainiar koroaren aur-  
ka borrokatu zirenean. Kanarietako eta Andaluziako lurretan  
ere era bertsuan gertatu zen. Modu orokorrago batean, mat-  
xinada eta gerra kanpesinoak orokortuak izan ziren Europan  
zehar, Erdi Aroaren amaieratik hasita eta modernitatearen  
behin betiko ezarpena gertatu zen arteko trantsizio mende-  
tan zehar. Euskal Herrian entzunak izan ziren XVII eta XIX  
mendeen artean izandako matxinadak, karlistadekin burutu  
zen garai gorabeheratsua ezaugarritu zutenak. Azken hauen  
amaierarako, euskal lurretan modernitate kapitalista erabat  
abiarazita geratu zela esan dezakegu. Zinez, Erdi Aroa eta Aro  
Modernoaren arteko trantsizio gorabeheratsu horretan ikus-  
ten dugunaren zati handi bat modernitate kapitalista jendarte  
kanpesinoekin kontaktuan sartzean gertatu zen talkaren on-  
dorio izan zen. Talka horren muinean europar kanpesinatuan  
oraindik bizirautean zuten jendarte naturalaren aztarnak aur-  
kituko ditugu (komunitatea, jabetza komunala, batzarrea eta  
kontzejuak...), kapitalismoaren lehenengo garai horietan kon-  
traesan eta erresistentzia iturri nagusietakoa suposatu zutena.

Kasu horietan guztietan, aberri horien arrastoak oraindik  
nabarmenak dira, baina gehienetan eraldaketa sozialerako  
duten gaitasuna oso mugatua da, Estatuaren zapalkuntzaren  
azpian iraungita geratu baitziren. Beste kasu batzuetan, or-  
dea, borrokatu ziren aberri edo erresistentzia horiek osasuntsu  
bizirautea lortu zuten XX. mendera arte. Euskal Herria edo  
Herrialde Katalanak dira horien adibide esanguratsuenak.  
Nazionalismo kulturalak erresistentzia aurremoderno horiek  
mahai-joko etnikora eraman bazituen ere, sozialismo abertza

le eta iraultzaileak eduki askatzailez janztea lortu zuen. Horregatik uste dugu Euskal Herriak gaur egun aberria izaten jarraitzen duela, bere baitan askatasunerako pulsioa mantentzen duelako, iraultzarako eta erresistentziarako kapital politikoa gordetzen duelako oraindik ere.

Baina aberri izateari utz diezaioke. Esan bezala, aberria ez da herri batek esentzialki duen ezaugarria, klase borroka historikoaren emaitza dialektikoa baizik. Beraz, desagertu daiteke: bai iraungi dezaketelako, bai Inperio bilakatu daitekeelako. Lehenengorako aukera espainiar eta frantziar Estatuaren aurkako borrokan ebatziko da; bigarreneko aukera, aldiz, barne mailan argituko da, mendeetan zehar metatzen doan tentsioaren ondorioz. Izan ere, Euskal Herriak gaurdanik badu izaera inperialista, gure ustez izaera abertzaleari oraindik nagusitu ez zaion arren. Hau da, herri edo nazio orok izaera abertzalea eta inperialista daramatza bere baitan eta bata edo bestea nagusitzea klase borrokaren araberrako indar korrelazioaren arabera ebatzen da. Horrela, testuinguru historikoaren arabera eta barne tentsio horren isla bezala, garai batzuetan pulsio abertzalea gailenduko da eta beste batzuetan inperialista.

Euskal Herriari dagokionez, Euskal oligarkia Erdi Aroaren amaieratik proiektu inperialistarekin lerrokatua dago eta Ameriketako kolonizazioan parte hartze zuzena izan zuen. Euskaldun batzuek eraman zituzten Dominazio Sistemaren forma aurreratuenak lur haietara. Tradizio horri jarraiki eta erdigune inperialistan kokatutako lurraldea izanik, gure ehun produktibo kapitalista (eta hein batean, bertan diharduten langileak) posizio inperialista horretatik abiatzen dira mundu mailako merkatu konpetentziara. Honekin guztiarekin,

europarrok kolonizatu eta pobretutako herrietatik gero eta migrante gehiago datozkigu. Zer esanik ez dago euskal herri-tar arrazializatu horiek ez dutela, inondik inora, euskal langile klaseko zuriak duten posizioa egungo jendartean. Patriarkatuarekin gertatzen den modu antzeratsuan, arrazismoak eta pentsamendu kolonialak euskal jendartea goitik behera zeharkatzen dute, arrazializatutako herri-kideak euskaldun zuriak baino egoera nabarmen okerragoan utziz; bai lana-kapitalaren baitako logikan, bai kapitalaren metaketarako logikan irrazionalak izan daitezkeen bestelako biolentzia formak jasaterako orduan. Bada, lehen esan bezala, arrazializatutako euskaldun horiek borroka abertzalera batzea da Euskal Herriak bere baitan duen deriba inperialistari aurre egiteko aukera. Horretan datza euskal aberriaren biziraupenerako gakoetako bat.

### **3-Dominazioaren sistemaren baitako sintesia**

Dominazioaren analisiarekin amaitzeko, zenbait ondorio azpimarratu nahiko genituzke. Laburbilduz, dominazioaren hari historikoa jabetza pribatua, patriarkatua, kolonialismoa eta Estatuaren birtartez eraikitzen joan den osotasun material eta ideologiko bezala ulertzen dugu, bere azken adierazpena modernitate kapitalistaren eskutik eman delarik. Dominazioaren logika horrenpean sistematikoki apropiatua izan da giza existentzia osatzen duen katea (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena), etengabe birsortzen den egiturazko biolentzia eraginez eta gutxi batzuen botere metaketa ahalbidetuz. Gaur egun, ekoizpen modu kapitalista nagusi den garai historiko honetan, lana eta kapitalaren arteko kontraesana Dominazioaren Sistema eta bere baitan gertatzen den esplotazioa egituratzen duen kontrae

sana da. Lan-ekoizpen katearen azken espresioa kapitalaren bitartez adierazten den honetan, kapitalaren gaineko kontrola dutenek, burgesek, errealitate sozialaren kontrola dute. Dominazioa ulertzeko eta berau gainditzeko gako nagusietako bat hemen topatuko dugu.

Aldi berean, Dominazioaren Sistemaren baitan badago biolentzia eta apropiazio forma ugari, jatorri aurrekapitalista izateagatik kapitalaren kategoria soilen bitartez ulertu ezingo ditugunak. Barne logika ezberdin bat darabiltelako gertatzen da hori, patriarkatuaren kasuan argi ikusten dugun moduan. Gorputzen eta lan erreproduktiboan apropiazio patriarkala ematen den kasuetan, esate baterako, sexu-genero banaketaren arabera ematen dira, dirua, merkantzia edota salerosketa bezalakoan parte hartze zuzenik gabe. Kapitalaren metaketak ezarritako korrante sozial orokorraren barruan gertatzen dira, bai, baina biolentzia pizteko mekanismoek bestelako barne logika baten arabera funtzionatzen dute. Horrek ez du esan nahi biolentzia forma horiek modu banatu edo isolatuan funtzionatzen dutenik egungo jendartean. Dominazioaren Sistemaz ari garenean, garapen historiko konplexua izan duen sistema bati buruz ari gara, geruza ezberdinez osatuta dagoena. Horrela, dominazioa bera ez da kapitalismoarekin inauguratzen; jabetza pribatuak milaka urtetako ibilbidea du, patriarkatua, kolonialismoa, Estatu eta oro har, ekoizpen modu ezberdinen bitartez adierazpen ezberdinak hartu izan dituen. Kapitalismoaren agerpen eta nagusitzearekin batera, aurretik datozen determinazio horiek guztiak kapitalaren logikan azpiratuak geratzen dira; kapitalaren metaketak ezartzen du gertakari sozialek hartuko duten norabide orokorra. Baina aldi berean, kapitalismoak berak, aurretik datozen horien ezaugarriak bar



nebiltzen ditu, horien emaitza baita; patriarkatuak edo arrazismoak kapitalismoaren erroan bizirauten jarraitzen dute, berau elikatuz eta bizitza sozial guztia zeharkatuz.

Beraz, Dominazioaren Sistema osatzen duten geruza guztiak dialektikoki konbinatuak agertzen zaizkigu, errealtate sozial bakar bat osatuz. Ezin ditugu geruzak banatu eta partzialki aztertu (ezta gainditu ere), gaur egun hartzen duten forma zehatza gainontzekoekin duten hartu-eman dialektikoaren emaitza delako. Patriarkatua ez da orain dela 1.000 urte zen gauza bera, baina kapitalismoak ere ez luke gaur egun duen forma izango ez balitz patriarkatuak inprimatu dizkion izaera eta ezaugarriengatik. Horregatik, kapitalismoaren garaian dominazioak hartzen duen forma ulertu ahal izateko kapitalaren logika ulertzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Geruza horien guztien nolakotasuna eta batez ere beraien arteko hartu-emana ulertzea ezinbestekoa da. Ariketa konplexua da, baina ez ezinezkoa; behinik behin, geruza guztiek konpartitzen duten eta dominazio ororen oinarrian dagoen gertakari soziala daukagunean; jabetza pribatua eta mentalitate dominatzailearen arteko konbinazioa, eta horrek posible egiten duen apropiazioa eta boterearen metaketa.

### **Jabetza pribatuaren baitako kontraesana.**

Gure ustez, jabetza pribatuak eta mentalitate dominatzaileak osatzen duten konbinazioa da, zapalkuntza eta esplotazio ororen iturria. Emakumeon gorputz eta lanaren gaineko jabetzatik hasita eta lan sozial guztiaren adierazle den kapitalaren gaineko jabetzara. Horrela, ez da zilegi burgesak kapitalaren gainean lortzen duen jabetza pribatua (hau ageri-agerikoa da), baina ezta ere norbanako langile batek salarioaren gai-

lortzen duena. Testuaren lehenengo atalean azaldu dugun bezala, lana prozesu kolektibo bezala gauzatzen delako gertatzen da hori, familiatik harago ere, metabolismo sozial osoaren emaitza delako. Modu horretan, gutako bakoitzak egiten dugun lana, kolektiboki sortu den gaitasun baten emaitza baino ez da. Lan-indarraren erreproduzioaren kasuan argi geratu zaigu: langile batek lanpostuan ematen duen ordu bakoitzaren jabetza nori dagokio? Ordu horietako bakoitzean, zer proportziotan neurtu dezakegu aurreko gauean bikotearengandik jasotako laztana? Edo igandean lagun artean emandako arratsalde pasa? Edo bere amak, jantzita daramatzen frakak konpontzeko eman zuen goiza? Edo bere zapatak Bangladeshen 14 orduz josi dituenaren lepoko min jasangaitza? Lanak, prozesu banaezin bezala ulertzen badugu (lan erreproduktibo eta gainlana barnebiltzen dituena), ezin du inoiz izaera indibidual hutsa izan. Are gutxiago, gaur gaurkoz sozialki eskala planetarioan banatuta agertzen den fenomeno delat onartuta. Hau da, lanaren dimentsio indibiduala errealitate inkonmensurablea da, neurtu ezin daitekeen errealitatea. Hortaz, ezinezkoa da justiziaz neurtzea sozialki bakarrik gauzatu daitekeen gertakari horretatik norbanako bakoitzari dagokion zenbatekoa. Horregatik, lan prozesuaren gainean ezartzen den jabetza pribatu orok, merkantziaren forma hartzen duen lan prozesu orok, apropiazioa eta injustiziaren logika darama bere baitan. Horrez gain, jabetza pribatuaren errora joz, ezin dugu ahaztu dominazioaren kate guztia elikatzen duen mentalitate dominatzailea eta horri lotua doan alienazioa. Hemen, merkantzien fetitxismoak elikatzen duen pentsamenduaren adierazpen burges eta liberalaz ari gara, baina baita aurreko garai historikoetatik datorren pentsamendu patriarkal eta kolonialaz ere.

Horrek guztiak duen garrantzia ulertu gabe, zaila egingo zaigu Dominazioaren Sistema gainditzea.

### **Klase sozialak eta klase konposizioa.**

Orain arteko guztiarekin, argi dugu dominazioa “ekonomia” bezala ezagutzen dugun horretaz baino askoz haratago doala: ideologia jakin bat behar du orokortua izan, mundua ulertzeko ikuskerara bat, baita bere erara moldatua izan den aparatu judizial, polizial eta legegilea; edota hezkuntza sistema bat. Gobernu sistema bat, oro har, dominazioaren logika erreproduzitzeko duena, denboran luzatu eta espazioan zabaltzeko gai izango dena. Horregatik, Dominazioaren Sistema horren baitan agertzen diren klase sozialak horren guztiaren isla bezala ulertu behar ditugu. Ez du balio, bakarrik, oinarri ekonomiko soilen arabera eraikitzea klasearen gainean daukagun ulerkera; kapitalaren jabe direnak alde batetik, klase burgesa, eta desjabetuak direnak bestetik, langile klasea. Kapitala gutxi batzuen eskuan dagoela ikusiko dugu horrela eta burgesia-  
ren adierazpen horren kontra norabidetu dezakegu gure jarduera. Horrek korapilo asko askatuko dizkigu, baina ez digu erantzun iraultzailea eskainiko. Alde batetik, lana eta kapitala ez daudelako jendartean hain modu argian banatuak; langile klasearen artean badaude kapital frakzio txikiak eskuratzeko gai diren taldeak, “klase ertain” bezala ulertu izan direnak. Zenbat “langile familiek” daukate bigarren etxe bat, enpresaren batean akzioak, pentsio plan bat edo aseguru plan bat? Langile kondizioan bizi dira (lan egitera behartuta jarraitzen dute), baina aurreztu dezakete, eta aurrezki horiek inbertituz (kapital bilakaturaz) posizio burgesa dastatu dezakete. Langile horien kapital txikia kuantitatiboki erabat hutsala da burgesiak

kontrolatzen duenaren aurrean eta gainera, bere bitartez inoiz ezingo du kondizio burgesa eskuratu. Hala ere, kualitatiboki esanahi handia hartzen du langileon subjektibitatea baldintzatzerako orduan, langileria subjektu politiko kohesionatu eta bateratu gisa eraikitzerako orduan, alegia. Bada, europar jendarte kapitalistetan, erdigune inperialistan izan duten posizioak ahalbidetuta, lana eta kapitala modu egonkor baten konbinatu izan dira populazioaren zati esanguratsu batean. Orain arte behintzat. Fenomeno hori ondo ulertzea, egun hartzen duen espresioa eta batez ere, etorkizunean jarraitu dezakeen tendentzia aztertzea ezinbestekoa da jendarte jakin baten klase konposizioa ulertzeko; langile klasearen baitan agertzen diren kontraesanak eta potentzialitateak antzemateko.

Horrekin lotua, klase banaketa ekonomikoaz haratago, pentsamendu liberal-burgesari erreparatzen badiogu ikusiko dugu, berez, aurretik langile bezala definitu dugun klasearen gehiengoa zeharkatzen duela izaera burgesaren ezaugarri horrek. Hots, langile gehienek, egoera kaxkarrenetan daudenek ere, ideologia liberal eta burgesa erraietara arte barneratuta daukate. Eta askoz ere zailagoa da horri aurre egitea, espresio subjektibo bati erantzuten diolako, gu guztion barnean (langileon barnean) erreproduzitzen dena.

Klasea, beraz, bi dimentsioz osatuta dagoen gertakari soziala da; bere konposizio ekonomiko/teknikoari lotua dagoen dimentsioa (klasea bera) alde batetik, eta bere konposizio politiko/subjektiboari lotua dagoena (klasea beretzat) bestetik. Eta klase baten izaera iraultzailea, bi osagai horien arteko konbinazio egokitik eratorriko da bakarrik. Horrela, ekonomikoki langile bezala bizi direnen baitan mentalitate dominatzailea orokortuz eta sakonduz badoa, faxismotik

hurbilago egongo gara askapen iraultzailetik baino. Eta alderantziz, kondizio burgesean bizi diren batzuk (kontzientzia abertzale iraultzaileari jarraiki, esaterako), kondizio horri uko egin eta aurrerapauso iraultzailea eman dezakete.

Horretaz guztiaz gain, kapitalismoa baino lehenago sortuak izan ziren klase banaketarako sistemak ditugu (patriarkatua eta kolonialismoa), beraien oinarri material eta subjektibo propioekin. Goian esan bezala, modernitate kapitalistarekin denek bat egiten dute sistema bakarrean eta ezinbestean kontuan hartu behar ditugu egungo jendartearen klase egitura ulertu nahi badugu.

Beraz eta gaurkoarekin amaitzeko, klase konposizioaz hitz egiten dugunean, hau da, dominazioak gaur egun hartzen duen adierazpen zehatzaz ari garenean, elementu horiek guztiak kontuan hartu behar ditugu.

Alde batetik, konposizio teknikoari lotutako osagaiak, errealtate sozialaren oinarri materialak argituko dizkigutenak:

- Lana eta kapitala egungo jendartean nola banatzen diren aztertu eta horren arabera analisi kategoriak garatu beharko ditugu.
- Azterketa horretan, lan-ekoizpen prozesuaren kate osoa kontuan hartu beharko dugu (lan erreproduktiboa-gainlana-gainekoizpena-gainbalioa), genero eta arraza aldagaiak kate horren analisisian txertatuz.
- Arraza eta genero aldagaiekin lotuta, gorputzen gain ematen diren apropiaziozko eta biolentziazko adierazpen zehatzak ere aztertu beharko ditugu, gorputzak errealtate sozialaren aldagai materialak ere baitira.


Eta beste alde batetik, konposizio ideologikoa ere azterketagai bezala hartu beharko dugu; mentalitate dominatzaileak jendartean duen isla aztertu; pentsamendu burges-liberalak, patriarkalak eta kolonialak jendartean duten errotze eta hedatze maila ikertu. Alegia, klase konposizio politikoa aztertu, kontzientzia iraultzailea pizteko baldintzak ulertu ahal izateko. Oro har, Dominazioaren Sistemaren oinarri materialek eraikitzen duten isla emozional eta subjektiboa konprenitu.

Azkenik, jendarte zehatz baten gain ezarriak diren guber-  
nurako egitura politiko-estatalen analisia barnebildu beharko  
du klase konposizioaren azterketak; testuinguru geopolitikoan  
kokatu eta mundu mailako lanaren banaketan duen posizioa  
aztertu.



# OINARRIZKO HIPOTESIAK

---



**Patriarkatua, Dominazio  
Sistemaren zutabe**





## **PATRIARKATUA, DOMINAZIO SISTEMAREN ZUTABE**

Dominazio Sistemaren ulerkera orokorrari eskaini diogun atalean patriarkatuaren posizioa eta funtzioa nola ulertzen dugun azaldu dugu. Ikusi dugu gaur egun mundu osoan dominazioa egituratzeko ezinbesteko zutabea dela patriarkatua, bere garapen historikoaren fase desberdinetan mantendu delarik bere presentzia. Dominazioaren logikan duen zentraltasuna dela eta, ezinbesteko ikergaia dugu, arretaz aztertu beharrekoa bere dimentsio guztietan. Zenbait eremu geografiko-sozialetan familia-egitura gisa agortzen ari den arren, edo behintzat funtzio zentrala izateari uzten dion pixkanaka, oraindik instituzio honek duen pisua nabarmena da. Baina ezinbestekoa da ulertzea familiatik harago ere patriarkatuak duen papera norbanakoen gorputz eta pentsamenduak definitzerako orduan, bai eta beraien arteko harremanak ere. Zeresanik ez lanaren antolaketa sozialean generoak duen rolaz, horren arabera bereizi eta hierarkizatzen baitira ezagutzen ditugun lan guztiak. Argi geratzen zaigu aurreko ataletik, beraz, jendartean berebiziko garrantzia duela, eta datorren atal honetan ere ideia horren zergatietan sakonduko dugu.

Gainera, ezin ahaztu patriarkatuarena pil-pilean dagoen eztabaida dela. Egun, genero auziari, patriarkatuari edota feminismoari lotutako eztabaidek hautsak harrotzen dituzte, hainbat arrazoi direla medio. Alde batetik, urteetan mugimendu iraultzaileetan ezkutuan egon den gaia izan da, garrantzirik izan ez duena, eta gehienez ere, “benetako iraultzaren” ondorengo etxerako lan gisa atzeratu dena. Azken garaietan, mugimendu iraultzaileetako eta herri mugimenduko emakumeok zein sexu-genero disidenteok zapalkuntza honen garrantzia azpimarratu izan dugu, agendaren lehen lerroa ekarriz. Beraz,

nahiko eztabaidagai berria dugu, ideia asko azaleratu dituen eta oraindik ere eraikitze prozesuan dagoena.

Horrelako gai baten aurrean posizionatzea ez da edozein gauza, eta honako atal honek oinarriak ezartzea du asmo; aurrerago etorriko diren hausnarketa sakonagoak bilduko dituen markoa osatzea. Bestetik, finkatu nahiko genuke edozein proposamen iraultzailetan sekula ahaztuko ez den gai gisa, errealitatearen ulerkerarako eta iraultzarako ezinbesteko giltza bezala. Honek guztiak praktikan inplikazio sakonak izan behar ditu. Patriarkatuari buruz mintzatzeak geure barruari eragiten dio zuzenean, eta horrekin batera, gure egitura militanteei eta bizitzen osotasunari. Alderdi horietan guztietan eraldaketa egokiak egiteko gakoak aurkitu beharko ditugu, eta martxan jartzeko indarra aurkitu. Asmo horiekin guztiekin doaz, bada, ondorengo hausnarketak.

## **1-Patriarkatuaren sorrera eta bilakaera**

Patriarkatuaz ari garenean, lehen klase banaketa eragin zuen apropiazio egitura orokortuaz ari gara. Jabetza pribatuaren hastapenak daude bere erroan, biak ala biak eskutik lotuta jaiotzen: jabetza pribatuaren lehen espresioa gizonen emakumeon gain ezarritakoa izan zela esan dezakegu; aitasuna, matrimonia eta herentziaren bitartez gure gorputza eta lanaren gaineko jabetza titulua inposatu ziguten. Horretarako beharrezkoa izan da historian zehar sexu-genero dikotomian sakontzea, gorputzen eta lanaren banaketa soziala ondo ezarritako geratzeko, eta horien gainean dominaziorako mekanismoak egozteko.

Zaila da zehazki patriarkatuaren sorrera non eta noiz gertatu zen jakitea. Esate baterako, gure espeziea den *Homo sapiens*-aren baitan dimorfismo sexuala (ar eta emearen arteko diferentziazio biologikoa) duela milioika urte hasi zen garatzen. Hala ere, hori horrela izanik, milaka eta milaka urtetan zehar ez zen agertu banaketa biologiko horretan oinarritutako ezberdintasun sozialik. Aztarna arkeologikoetan behintzat, aro luzeetan zehar ez da ageri dimorfismo sexual horri lotutako eta izaera zapaltzailea hartzen duen banaketa kulturalik; ez da ar eta emearen araberrako sexu-genero kategorizazio binarioa esleitzen. Are gehiago, mundu osoan zehar ohikoa izan da, eta oraindik ere bada, kultura ezberdinetan hirugarren genero baten presentzia normalizatua. Horrez gain, gaur egun gauza jakina da, biologikoki ar eta eme bezala identifika ditzakegun gorputzez haratago, tarteko gradiente zabal bat badagoela. Hau da, duela milaka urte abiatutako dimorfismo sexualerako joera ez dago erabat osatua, eta ez du ematen gizakion bizi-raupenerako erabat osatua egon behar denik.

Beraz, abiapuntu bezala badaukagu gauza jakin bat: gizakion artean gorputz batzuk erreproduktiboki ar eta eme funtzioa gauzatzeko aukera potentziala egoteak ez du naturalki horren araberrako sexu-genero sistema binario eta zapaltzailea sortzen.

Zerk ahalbidetu zuen, beraz, modu natural edo espontaneoan eman ez zen sexu-genero banaketa horren agerpena? Aurrekoa ikusita, fenomeno historiko bati buruz ari gara, garai jakin batean eta baldintza sozial batzuen baitan bakarrik posible izan den fenomenoaz, alegia. Eta noiz gertatu zen hori? Teoria askok neolitizazioan jartzen dute begirada.

Horien arabera, Neolito garaiko sedentarizazio prozesura jotzen badugu, ikusiko dugu bizimodu nomada utzi eta neka

zaritza eta abeltzaintza zabaldu ahala, ekoizpen bitartekoak garatu eta ekoizpena eraginkorrago egin zela, soberakinak egoteko aukera zabaldu zelarik. Soberakin horiek preziatuak zirenez gero, zenbait komunitatetan lehia-elementu bilakatu ziren. Horregatik, gainekoizpena babesteko bitartekoak sortu eta hura jabetza pribatu gisa ulertzeko mentalitatea errotzen hasi zen. Erreproduzio biologikorako gizon eta emakumeen paperaz jabetuta, prozesu hori kontrolpean izatearen garrantziaz ohartu ziren, jabetza herentziaren bitartez transmititzeko bitarteko gisa. Hortaz, emakume kategoria ondo definitu eta horren gaineko kontrola inposatzen duen klase dominantea jaio zen: gizon kategoria. Horrela, erditzen zutenak kontrolatu eta apropiatzeko prozesua abian jarri zen, ondorengotza eta jabetza kontrolatzeko bitarteko gisa. Jendarte neolitikotako lehen klase banaketaz ari gara.

Prozesu hori ez zen eman mundu osoan modu paraleloan eta ez dugu ulertu behar neolitizazioaren emaitza zuzen eta bakar bezala. Izan ere, nekazal komunitate askok ez zuten izaera patriarkal hori garatu eta horietako askotan matrilinealtasuna zen nagusi: emakumeen posizio soziala zentrala zen, euren inguruan antolatzen zirelarik jabetza eta ahaidetasun harremanak. Horrek ez du esan nahi matriarkatua existitzen zenik, emakumeek gizonak mendean hartzeko sistemarik inoiz sortu ez den heinean.

Honenbestez, jendarte jakin batzuetan bakarrik agertutako fenomenoak izan zen patriarkatua, inguruko lurralde eta herrietara hedatuz joan zena. Bere baitan zeraman zapalkuntzazko logikak bultzatuta gertatu zen hori, patriarkatuak familiaren mugetatik haratago doazen adierazpenak baititu. Testuinguru sozial patriarkalak mundua ulertzeko modu bat eraikitzen

zuen: mentalitate patriarkal-dominatzailea. Gizakion arteko lehenengo konkista gerrak erro patriarkal horrek bultzatuak izan ziren. Familia barruko emakumeen konkista eta jazarpenaren isla hutsa izan zen inguruko herrien kolonizazioa eta zapalkuntza.

Horregatik guztiagatik, patriarkatua dominazioaren lehenengo adierazpen historiko bezala ulertzen dugu, ondoren eraikiz joango den Dominazio Sistemaren abiapuntua. Mentalitate eta praktika patriarkal horien garapenetik dator Estatua eta erlijio monoteisten sorrera. Garrantzi handia du honek, ordura arte patriarkatuarekin garatutako mentalitate dominatzailearen instituzionalizazioa suposatu baitzuen. Logika horren arabera jendartea antolatzeko eredia findu eta hedatzeko tresna bilakatu ziren Estatua eta erlijioak, eskala sozialean dominazioaren egiturak ezartzeko, eta gerora etorriko ziren klase banaketak oinarritzeko ezinbesteko zutabe. Mekanismo legal eta juridikoak martxan jarri, eta horiek inposatzeko indar militarrek bereganatuz jardun zuten, ahalik eta jendarte eta komunitate gehienetan logika bera inposatzeko indarraren monopolioa erabiliz.

Patriarkatutik jaiotzen den dominazio forma berriak sostengu ideologiko sendoa behar du irauteko eta hedatzeko. Emakumeon gorputzen eta lanaren apropiazioa errotuz joan ahala, pertsonen arteko dominazioa belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta mutiko txikiek ikasiko dute emakumeak umiliatu, zapaldu eta bereganatzea gauza normala dela, euren etorkizuneko rola ikasiz. Mentalitate dominatzailearen has-tapenetan gaude, gerora emakumeei bezala beste subjektu batzuei aplikatu ahalko zaien apropiazioaren eta zapalkuntzaren aukera zabaltzen duena. Dialektikoki elkarlotuta garatu

dira mentalitate eta praktika dominatzailea, eta isla mental zein materiala ikusten dugu genero rol sozialen bereizketan. Horrela, emakume gorputzen gaineko kontrol esplizituaz gain, gorputz horien egiteko soziala inposatu zen; horretarako guztirako, genero rolak bereizi eta transmititzea beharrezko zen, diziplinamendua orokortu eta emakumeon askatasunak murriztea. Era berean, gizon bezala sozializatuak izan arren, gizonaren rol sozial horrekin bat egiten ez zutenak diziplinatzeko prozesua jarri zen martxan, semeek familiaren ondorengotza mantentzeko betebeharra zutenez gero, egiteko horri muzin egitea eragotzi nahi baitzen. Hala ere, diziplinamendu prozesua eta disidentziaren ondoriozko zigorra sexu-genero dikotomiatik at zeuden guztiekiko eman zen arren, nabarmentzekoa da erditzeko gaitasuna zuten gorputzen dominaziorako sortu eta gauzatu zela emakumearen kategoria, dominatuaren kategoria, eta hortaz, profil honen aurka gauzatu izan dela beti diziplinamendu behinena.

Aurretik aipatutako guztia ez da gertatu egun batetik bestera. Patriarkatuaren sorrera prozesu konplexua izan zen, izaera dinamikoa eduki zuena. Dominazioaren Sistema osotasun bezala garatu ahala, patriarkatuak bere baitan hartu izan duen forma eta funtzioak aldatuz joan dira. Horrela, testuinguru europarrean Antzin Aroko Estatu eta Inperioekin (Grezia eta Erroma klasikoak batik bat) ezagutu zuen patriarkatuak lehenengo instituzionalizazio eta formalizazio garaia. Aurreago, Erdi Aroaren bukaeran eta Kapitalismoaren hastapenean, XVI. mendean lurren itxituren prozesua abiatu ahala, patriarkatuak birformulazio garai bat ezagutu zuen. Baldintza are gordinagoak ezarri zituenak emakumeontzat, gizonezkoen kontrolatzaile papera bultzatu eta jendartearen baitan

klase-eraketa konplexutuz joan baitzen. Prozesu horretan emakumeon pobretzea izan zen ondorioetako bat eta pobrezia horrek altxamendu ugari eragin izan zituen, emakumeek gida-tuak edota piztuak. Hortaz, emakumea iraultzarako subjektu aktibo izan da historikoki, eta potentzial horri erantzuten dio emakumeon diziplinamenduan tematzeak.

Garai bertsuan sakontzen da familia instituzio bezala, Euro-pak bizi zituen izurriteen aurrean populazioa mantentzeko tresna, eta zorroztu egiten ziren emakumeon sexualitatearen gaineko kontrol neurriak, haur-fabrika funtzioa gogor txertatzeko. Beharrezkoa zen gure denbora horri eskainiko geniola bermatzeko ideologia-aparatua: etxeko andre figura, familia-rekiko atxikimendua, heterosexualitatea eta bizitza publikoari atek ixtea (bai materialki, bai mentalki); beste modu batera esateko, heteronormatibitatea, familia eredu patriarkala eta lan banaketa sexuala.

## **2-Patriarkatuaren tentakuluak egungo dominazio sistematan**

Orain artekoan, azaletik bada ere, aipatu ditugu jada patriarkatuak historian zehar eta bizitzako arlo anitzetan garatu dituen zapalkuntza forma ezberdinak. Gaur arte biziraun eta oraindik ere garatzen diharduten zapalkuntza erak dira horiek. Egungo Dominazio Sistemaren konfigurazioaren arabera moldaketak gehituta, patriarkatuaren aurpegi desberdinak horrela laburbil genitzake: soldataren apropiazio maskulinoa, emakumeon lan-indarraren salmentaren devaluazioa, gure gorputzen gaineko apropiazioa, heteroarautik kanpoko gorputzen

gaineko bazterkeria eta mentalitate dominatzaile patriarkal orohartzailea, gainontzekoak birproduzitzeko beharrezkoa.

Jaio bezain laster gorputzaren araberako banaketa bitarra egiten da. Horrela, gizonak eta emakumeak identifikatzen dira, gainontzeko identitateentzako inolako zirrikiturik utzi gabe. Sexuak eta generoak bat egiten dutela jakintzat emanez sexu bakoitzari genero zehatz bat esleitzen zaio, gizonari maskulinoa eta emakumeari femeninoa, bakoitzari dagokion rol multzoa barne.

Heteroarau horretatik kanpoko gorputz eta praktiken gaineko jazarpenak gure genero rola ez betetzearen gaineko zigorrari erantzuten dio. Emakume jaio, emakume izan, emakume bizi. Horrek esan nahi du aurreikusitako estereotipo eta eginbeharrak betetzea: izaera eta itxura femeninoa gordetzea, familia heterosexuala sortu eta haurrak izan eta horiez arduratzea. Horietako bat bakarra ez badugu betetzen, emakumetasuna zalantzan jartzen ariko ginatke, guk bete beharrezkoa den ama eta zaintzaile papera alboratzen, beharrezkoa den ondorengotza ez produzitzen, gizona koentzako objektu ez izaten... Zalantzan jartzen du jendartea goitik behera egituratzen duen genero dikotomia, eta horrekin batera, jendartearen egituraketaren zutabeetako bat.

Eta nola ez, bestelako identitate disidenteok ere pairatzen dugu aipatutako zigor eta jazarpena, hala nola, bollerek, gizon homosexualek, genero ez binarioek... Generoaren arabera ezarritako rol sozial dominanteari uko egitearen ondoriozko zigor bezala aurkezten zaigu zapalkuntza hau.

Bestalde, gure gorputzen gaineko apropiazioaren beste zutabe garrantzitsu bat sexualizazioa da. Bai neskato zein mutikoei rol sexual jakina esleitzen digute txiki-txikitatik. Gizonen ka-



suan harrapari, jazarle, erabakidun, eta emakumeon kasuan otzan, seduktore, hautagai. Gizonen jabetza izateko aukera horrek gure bizitza osoa zeharkatzen du, gure eguneroko jarrerara txikiena moldatzen du eta gure autoestimua txokorik txikiena iluntzen du. Bizitzan ditugun xedeak apaltzen ditu, izan beharreko harremanak zedarritzen ditu eta gure desioa deuseztatzen du. Nola ez, ikaraz bizitzera garamatza, autonomiari beldur izatera eta gizonetik harremanak desitxuratzera. Edozein momentutan erasotuak izan gaitzkeela gure garunen eta gorputzen sakonenean txertatua daramagun ideia da, eta horrek mugatu egiten gaitu askotan erabakiak hartzeko edota gure izaera garatzeko. Gure inguruko gizonen (balizko) jabetza pribatu dira gure gorputza eta bizitza, gizonen mentalitatean normalizatuta dagoen aukera baita eraso, bortxaketa eta dominazioa. Gu geu, beraz, gizonen begien arabera objektuak gara. Horrek erabakidun subjektu izateko aukera lausotzen digu, eta gure bizitzaren gaineko gidaritzaren delegatza eraman.

Soldataren apropiazio maskulinoari dagokionez, Dominazioaren atalean azaldu bezala, gizonen etxetik kanpo lan egiten dutenean, bere lan-indarra birproduzitzeko emakume batek edo gehiagok egindako lana apropiatu dutela esan nahi dugu. Hau da, etxean egiten diren lan gehienak emakumeon esku daudela jakinda, gizonen lanera joateko behar duten prozesu guzti hori ezkutuan geratzen da, nomina euren izenean jasotzen dutenean: prozesu kolektibo baten ordaina norbanako gisa jasotzen dutenean. Baliteke askok pentsatzea etxeko lanen banaketan aurrerapausoak eman direla eta hortaz, prozesu kolektibo hori zinez dela kolektiboa. Gizonezkoek lan horietako batzuk egiten dituzten kasu gehienetan, ordea, horien ardura

bere gain dutenak emakumeak izan ohi dira. Soldatapeko lanetik kanpoko lana emakumeon esku dago egun oraindik. Era berean, etxeko kideetako bakarra denean soldatapeko laneko ordaina jasotzen duena, oraindik ere orokortuena da pertsona hori gizonezkoa izatea. Hortaz, generoen araberako lan banaketa, publiko eta pribatuaren arteko bereizketa, oraindik ere oro har patriarkala dela ezin uka.

Emakumeon lan-indarraren salmentaren debaluazioari dagokionez ere, badago esaten duenik gauditutako auzia dela. Hori pentsatzea mendebaldar jendarteko langile klaseko geruzarik altuenei begiratzea da. Izan ere, beheragoko geruzetan gaudenok egunerokoan sufritzen dugu lanean generoaren araberako bereizketa. Zenbat neska gazte ezagutzen ditugu gure inguruan, haurrak zaintzearen truk miseria kobratzen dutenak, oso nagusi izan arte? Gama altuagoko lanpostuetan ere, badira oraindik soldata ezberdintasunak. Zenbat emakume nagusik, ikasketak izan ala ez, lan egiten dute beste etxe batzuetako helduak zaintzen, baldintza kaskarretan? Zenbat emakume ezagutzen ditugu gure inguruan etxe-barneko erregimenean, euren bizitza osoa soldatapeko lan gaizki-ordaindu bati eskaintzen? Kasu honetan, ekidinezina da arrazaren eta migrazio-fluxuen faktorea aipatzea. Noski, kolonializazio eta arrazakeriak oinarrizko papera betetzen du prekarizazioan oro har eta etxeko langileen kasuan bereziki. Milaka emakumek, familia beste emakume batzuen esku uzten dute euren herrialdean eta euren bizitza-denbora osoa salduz, irabazitako apurrak bidaltzen dituzte jatorrizko herrialdera, bertan familiak baldintza hobekak izan ditzan. Kasu horietan, erreproduzio ziklo osoa familiako emakumeen esku geratu ohi da, eta patriarkatuak paper bikoitza jokatzen du: jatorrizko herrian

familien sostengua emakumeak dira eta lan hori bete ahal izateko familia eta herrialdea ere utzi behar dituzte, emakume migratuei esleitutako lan prekarizatuetan murgildu behar dute, bikoizki devaluatuak daudenak, emakume eta migratuek betetzen dituztelako.

Puntu honetara iritsita, kapitalismoan ematen den lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa eta ulerkerari hel diezaiokegu. Orokorrean eta azkar hitz egiten denean, esan ohi da lan produktiboa langileak soldatapeko lanean egiten duena dela eta lan erreproduktiboa, langileak biziraun eta berriro lanera joateko egin behar duena (oro har, emakumeon esku egon diren etxeko lanak: janaria prestatu, etxea garbitu, haurrak eta edadetuak zaindu, erosketak egin...). Bestelako ulerkera bat dugu guk: lan erreproduktiboa da langileok gure burua birproduzitzeko egiten dugun oro, tartean, soldatapeko lanera joatea. Kapitalismoan gure lan-indarra salduz bakarrik gara gai gure existentzia birsortzeko. Hori gabe, ezingo bainekuke janaririk erosi, sukaldatu ezta haurrik zaindu. Horregatik, gure ustetan zuzenagoa da ziklo erreproduktiboaz hitz egitea, lan-indarraren erreprodukzioa posible egiten duten lan guztien multzoa barnebiltzen duena. Hartara, ziklo erreproduktibo horretan lan domestikoa sartzen da, baina baita langileak lanpostuan egiten duen lanaren zati bat ere, “beharrezko lan” bezala ezagutzen dena (lan-indarra birsortzeko beharrezkoa den balio kantitatea sortzen duen lana. Ikus Dominazioaren Sistema atalean “Esplotazioa kapitalismoan” azpiatala).

Kapitalismoan ziklo erreproduktiboa bereziki banatua aurkezten zaigu, bere baitan ematen diren lan batzuk zuzenean ordaintzen direlako eta beste batzuk ez. Eta horrek sistema

ekonomiko bezala ostontzen duen esplotaziozko logika ezkututzen lagundu dezake. Berez gertatzen dena da, ziklo erreproduktiboa gauzatzeko behar den diru guztia lan-indarra saltzen duen norbanakoari ematen zaiola, nahiz eta lan-indar hori ez duen norbanako horrek sortzen, baizik eta prozesu kolektibo baten emaitza den, gehien bat familiaren ardurapean geratzen dena. Baina berez lanpostuan egindako beharrezko lana eta etxean egindakoa ziklo erreproduktibo beraren bi momentu besterik ez dira. Hau da, salarioaren ziklo horretan harrapatuta dagoen oro langile kondizioan bizi da, bizirauteko behar duen salarioa zuzenean zein zeharka jasoz. Horrekin guztiarekin ez dugu esan nahi ziklo horretan denek posizio berdina dutenik. Izan ere, berriki ikusi bezala, salarioaren gaineko jabetzak gizon langileei botere maila handia ematen die ziklo erreproduktibo horren baitan. Oro har, patriarkatuak ziklo horren bi momentuak bere erara moldatzen ditu; emakumeok zuzenean ordaindu gabeko lan gehiago egiten ditugu eta lan merkatura jotzeko aukera daukagunean gure lan-indarra modu debaluatugoa saltzera kondenuatuak gaude.

Honenbestez, kapitalismoan aurkezten zaigun erreproduktzio eta produktzio banaketa hori arazo iturri handia da. Gure ustetan zuzenagoa da ziklo erreproduktiboaz hitz egitea, bere bi momentuak barne (zuzenean ordaindutako lanak eta ez ordaindutakoak). Oinarri hori ezarrita, errazagoa egingo zaigu ziklo horren guztiaren lepotik soilik posible den gainbalioaren ekoizpen eta xurgapena ulertzea. Kapitalismoak, esplotazio sistema bezala, ziklo erreproduktiboa modu ahalik eta eraginkorrean gauzaten dela ziurtatuko du, horrek eskainiko baitio lan-indarra etengabe birsortzea; gainbalioaren ekoizpenerako ezinbestekoa den baldintza. Guk ez daukagu zalantzarik, gaur arte

behinik-behin, patriarkatuaren kategoriek indarrean jarraitzen dutela kapitalismoaren funtzionamendurako beharrezkoak diren bi plano horiek (ziklo erreproduktiboari dagokiona eta gainbalioaren ekoizpenari dagokiona) baldintzatzerako orduan.

Azkenik, atal honekin amaitzeko, azpimarratu nahiko genuke patriarkatuak hartzen dituen aurreko adierazpen guztiak sostengatzeko ezinbestekoa den mentalitate dominatzailea. Dominazioaren erro historikoetara garamatzen mentalitate honek ahalbidetzen du emakumeon zein sexu-genero disidenteon posizioa debaluatua izatea, familian zein familiatik kanpo, lan merkatuan zein hortik kanpo. Harreman pertsonaletan zein kategorizazio orokorretan, emakumeon eta sexu-genero disidenteon gaitasunak mespretxatzea, ahulago eta babesgabe gisa ulertzea, egiten dugun lana baliogabetzea eta gure gorputzekin nahi dutena egiteko zilegitasuna izatea.

### **3-Patriarkatuaren aurkako borroka esperientziak**

Mentalitate dominatzaile patriarkala aski ezaguna da emakume ororentzat, egunerokoan bizi baitugu. Hala ere, gure rola azpiratua izateagatik, gehiegitan zapalkuntza hori ez da zilegizat eta baliozkotzat hartu izan, ez da aztertu eta ez zaio aurre egin. Mugimendu iraultzaileetan ere, barne mailako oztopo eta aitzakia ugari aurkitu ditugu emakumeok patriarkatuaren aurkako borroka lehen lerrora ekartzerako orduan. Hala ere, historian zehar emakume borrokalari ugari izan dira, eta modu askotara egin nahi izan diote aurre sufritzen zuten zapalketari (ez soilik patriarkalari). Horietako adibide batzuk ekarri

ko ditugu hona, garrantzitsua baita emakume gisa borroka desberdinetan izandako parte hartzea, rol garrantzitsua eta inizatiba berreskuratzea, gure memoria kolektiboa eraiki eta presente izatea, egun ditugun erronkei aurre egiten lagunduko digutelakoan.

Lehenago aipatu bezala, lurren pribatizazioari begira itxiturak eraikitzen hasi zirenean, lurra lantzen zuten komunitateetako kideek horien kontra egin zuten. Euren artean emakume asko joaten ziren hesiak erauztera, eurek izaten ziren sarri deialdiak egin eta lehen lerroan zihoazenak. Baina patriarkatua ezarria zegoen jada jendartean: emakumeak ez ziren subjektu juridikotzat hartuak, eta beraz, delitua egin arren, ezin delitugiletzat hartu. Hortaz, gizon asko emakumez mozorrotzen ziren ekintza horiek egiteko, salatuak ez izateko. Baina lege-gileak, tranpa ikusita, gizonen gaineko mehatxuak jaurtitzen hasi ziren, “euren” emakumeak kontrolpean izan zitzaizen.

Emakumeek, hortik aurrera, gizonengandik ezkutuan joan behar izaten zuten hesien kontra egitera. Zigor bikoitza eta borroka bikoitza, beraz.

Sorgin-ehiza bezala ezagutu zen fenomenoaren aipatzea dagokigu hemen, diziplinamendu tresna zorrotz gisa ulertzen baitugu. Hasiera batean Estatuaren eta erlijio hegemonikoaren ordenaren kontra zihoan edozein zen sorgintzat hartua, gizon zein emakume. Denborarekin, emakumetu egin zen sorginaren figura. Sorgin-ehiza, berriz, jendartearen ordena mantentzeko beharrezko zen rol horri eusteko mekanismo bilakatu zen. Horrek erakusten digu emakumeak zirela nagusiki jabetza pribatuaren, klase zapaltzaileen eta gizonen ordenari aurre egiten zietenak. Gainera, izandako epai kolektiboei erreparatuta, ikus dezakegu emakumeek batuta jarduten zutela sistema-

ren kontrako ekintzetan, eta hainbat tortura pairatuta ere, ez zituztela euren ahizpak salatzen sarritan. Tortura horien erresistentzian emakume horien indar fisiko eta ideologikoa islatzen da nabari; euren komunitatearekiko eta bizitza askearekiko maitasuna, eta euren borroka gaitasuna.

Ondorengo mendeetan ere, emakumeen erresistentzia eta politizaziorako saiakera nabaria izan da, baina era berean, zapalkuntza eta diziplinamenduak gora egin izan du; ez soilik emakumeen gainekoak, baizik jendartearen burokratizazio eta alienazio integralak. Horrek zaildu egin du emakumeon izaera propioa eta kolektiboa garatzea. Hala ere, historian zehar emakume asko egon dira autodefentsa zein ekintza aktiborako antolatu direnak, modu lokal eta zabalago batean, era klandestino edo publikoago batean. Beharbada historiografia burgesarri dagokio sufragisten borroka lehen borroka feministatzat hartzea. Izan ere, lehen borroka sufragisten aurretik (1840ko hamarkada), asko izan ziren, aipatu bezala, emakumeen antolakuntza markoak eta aldarriak. Edonola ere, sufragismoari zor diogu emakumeok subjektu politiko gisa errekonozituak izateko ideia ozen entzun izana. Nahiz eta helburua motz geratu eta erreformismo gisa sailkatzen dugun sarri, emakumeen egoera juridikoa aldatzeko beharrezko borroka izan zen. Hortik haratagoko helburuak zituzten emakume iraultzaileak ere inplikatu ziren borroka horretan, haien helburu estrategikoak lortzeko baliagarri baitzen mugimendua hartzen ari zen indarra eta oihartzuna.

Bestetik, langile mugimenduan txertatuta egon izan gara beti emakumeok, alderdi eta talde sozialista, anarkista eta komunistetan, eta askotan egin ditugu ekarpenak patriarkatuari lotuta, dominazioaren esfera hori agerian uzteko. Sarritan

ekarpen horiek, kolektibo iraultzaileetan bertan ere, isilaraziak edo oztopatuak izan direla ukazina da. XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera inguruan emakume langileak greba eta borroka ugari abangoardian egon ziren, batez ere ehungintza industriako langile bezala. Garai hartako langile mugimendu internazionalan aipamen berezia merezi duten emakume ugari dago, burubelarri prozesu iraultzaileak hauspotzen ibili zirenak han eta hemen. Ezagunen artean Rosa Luxemburgo, Emma Goldman, Clara Zetkin edota Alexandra Kollontai aipatu ditzakegu. Orduko borroka eta protestetan aurkituko dugu martxoak 8 Emakume Langilearen Nazioarteko egunaren jatorria.

Periferia kolonialetik datozkigun irakaspenak ere ugariak dira. Inperioen kontrako borroka askotan emakumeak izan dira gidari eta lehen lerro, baita komunitateen eraikuntzarako ezinbesteko erregai ere. Adibide goragarriak ditugu, armak zein idazkiak eskuetan eta ahizpak lepoan hartuta egindako erresistentzia eta eraikuntza lanaren ordezkariak.

Zapatisten artean Ramona komandantea, Kuban Tamara Bunke eta Marianak (Mariana Grajales pelotoia), Kurdistanen Sakine Cansiz eta Beritan eta gizartean zein egitura militarretan antolatutako marko autonomoak...

Era berean, borroka ugari abiatu dira sexu-genero disidentzian posizionatzen diren bestelako identitateen partetik, isilaraziak hauek ere, edo aintzat ez hartuak, eta mugimendu feministaren zein LGTBIQ+ mugimenduaren baitan indarra hartu dutenak. Aipatzekoa da Stonewalleko matxinada, Estatu Batuetako Stonewall Inn tabernan poliziak egindako sarekadaren ondorioz eztanda egin zuen erantzun soziala. 1960ko hamarkadan, Estatu Batuetan, komunitate homosexualaren



eta transexualaren aurkako jazarpena handia zen, eta ohikoa zen identitate honetako pertsonak biltzen ziren lekuetan presentzia poliziala egotea. Stonewall Inn tabernaren aurka egindako sarekadak, ordea, erantzun itzela izan zuen, eta milaka pertsona matxinatu ziren poliziaren aurka egunetan zehar. Eztanda honek, New York-eko LGTBI+ mugimendua indartzeko eta antolatze-ko sugarra piztu zuen, eta hurrengo hilabeteetan borroka komunitate antolatuak sortu ziren, New York-etik Estatu Batuetan barrena. 1970eko ekainaren 28an, New York eta Los Angeles hirietan, Stonewalleko matxinadari omen eginez, “harrota-sunaren” lehen martxak antolatu zituzten, gaur egunera arte oihartzuna dutenak.

Honaino ikusi ditugu borroka esperientzia historiko zehatz batzuk. Jarraian historikoki garatu diren korronte feministen zertzelada batzuk aipatuko ditugu, historian zehar, hainbat ikuspuntutik heldu izan baitzaio genero auziari.

Feminismo marxista edo sozialistak burgesia eta langileriaren klase banaketan jarri zuen arreta, hor identifikatuz jendarte kapitalistaren antagonismo nagusia, eta antagonismo horretan emakume bezala esleitzen zaigun posizioaren azterketan sakonduz. Horri lotua, ordaindu gabeko etxeko lan erreproduktiboak gainbalioaren ekoizpenean eta kapitalaren metaketan duen garrantzia izan dute aztergai. Lan erreproduktibo horientzako soldata formala orokortzea aldarrikatu izan dute zenbaitek, eztabaidagai sakona den arren. Feminismo beltzak interseksionalitatearen eta zapalkuntza hirukoitzaren teoria ekarri zituen. 1970eko hamarkadako feminismo beltzaren kanpainen ardatz nagusiak izan ziren honakoak: eskubide erreproduktiboak, espetxeen deuseztatzea, bortxaketak, lesbien eskubideak, derrigortutako esterilizazioaren salaketa...

Feminismo anarkistak jo puntuan jarri zituen jabetza pribatua, aberria eta familia ereduak. Emantzipazioaren defentsan jardun zuten, askatasuna, sexuen berdintasuna eta maitasun askearen defentsan. Ez ziren tailer eta fabriketako esplotazio ekonomikoaren arlora mugatzen, zapalkuntzaz modu zabalagoan hitz egiten zuten, Estatua, Eliza edota Ejertzittoa bezalako instituzioak barnebilduz, baina baita familia patriarkala ere. Feminismo liberalak 1789ko Frantziako iraultzak ekarritako berdintasun eta askatasun juridikoa zein eskubide politikoak emakumeentzako ere izan zitezen aldarrikatu zuen. Transfeminismoa feminismoaren subjektua irekitzera datorren teoria da, zisgeneroa den emakumetik harago doan subjektuari bide emanez: emakumearen askapenetik harago doa transfeminismoaren xedea. Feminismo erradikalak feminismo liberala kritikatu zuen, berdintasun formala soilik bilatzen zutela leporatuz, botere harremanetan sakondu gabe. Feminista erradikalen aburuz, boterea non, analisi politikoak behar du han egon, eta ez soilik eremu publikoan, baita pribatuan ere; hortik “pertsonek politikoa da” leloa, publiko-pribatu banaketarekin apurtzera zetorrena.

Historian zehar hainbat emakumeren analisi eta esperientziak biltzen dituzte ideia politiko hauek. Gure feminismoan pentsatzean, ezin uka horietako bakoitzak zer pentsatu eta zer ikasi eman digula, presente izan beharreko memoria osatzen dutela.

## **4-Euskal emakumeon borroka ENAMen barruan eta kanpoan**

Ezker Abertzaleko antolakunde mistoetan kontzientzia feministaren garapena 1960ko hamarkadan hasi zen ehuntzen. ETAn, esaterako, nabaria da idatzietan ageri den bilakaera. Hasiera bateko diskurtsoan emakumeak etxeoandre eta ama paperera mugatzen ziren; aldarri hori egiten zen, jendartean hedatzen ari zen emakumeon plazer-objektu izaerari kontrajarrit. Gerora, emakume-gizon rolak ondo bereizita mantentzen baziren ere, emakumeoi espazio publikoan parte hartzea onartu zitzaigun: kultura eta jendarteari lotutako lanetan ardura genuela azpimarratzen zen. Denborarekin betebeharrak politikoaren espektroa zabaltzeko eta nazio askapenerako borrokan subjektu gisa interpelatu zitzaigun. Hala ere, diskurtsiboki emakume-etxeoandre-ama figurak bizirik iraun du egiten ziren aldarrikapenetan; adibidez, etxeo andreentzako soldata existitzea, jendartean betetzen zuen papera errekonozitzea, “etorkizuneko hiritar euskaldunen hezkuntzaren arduradun” gisa. Baina esan beharra dago 1970eko hamarkadarako eztabaidari gogor eutsia ziotela, eta aurretik aipatu bezalako adierazpenak gutxiagotzen joan zirela. Aurrerapen diskurtsibo hori aintzat hartuta ere, kontuan izan behar dugu zein izan den militanteen praktika, euren ekintzak diskurtsoarekin bat zetozen ala ez, eta emakumeek beharra izan zutela egitura propioak sortzeko. Hortaz, diskurtsoari erreparatuz baina praktika begi bistatik galdu gabe aztertu behar dugu historia, irakaspen ugari eskuratu baititugu bertatik.

Euskal Herrian emakumeen askapenaren beharra 1970eko hamarkadan hasi zen antolatzen. Ipar Euskal Herrian izan zuen hastapena, Europatik zetorkion eragin zuzena eta Hegoaldean bizi zen errepresioa medio. Abortu libre eta doakoaren alde

ko borroka izan zen nagusi hastapenetan, frantziar Estatuan 1975ean legeztatu zen arte. Ezker Abertzaleko emakumeek talde autonomoa sortu zuten Iparraldean eta Euskal Emazteak Bere Askatasunaren Alde -EEBAA- taldeari zor diogu ENAMen barneko lanketa feministaren lehen pausoa eta zapalkuntza hirukoitzaren teorizazioa.

Euren hausnarketetan honako galderak zeuden: Zelan ulertu emakumeek pairatzen dugun zapalkuntza? Nola egin aurre era praktikoa zein teorikoa? Zelan ulertu egoera soziala marxismotik zetozen eskema klasikoetatik? Berehala konturatu ziren korpus ideologikoa osatzeko beharraz eta munduko beste leku batzuetan garatzen ari ziren prozesuetara eta teorizazioetara begira jarri ziren. AEBn garatzen ari zen zapalkuntza hirukoitzaren teoriak (arraza, klase, sexu zapalkuntza) eragin handia izan zuen gure herrian gorpuzten ari zen euskal feminismoan. Gainerako herrialdeetako teoriak gurera ekarri eta gure egoera sozioekonomikoari begira moldatu zituen euskal feminismoak.

Euskal emakume iraultzaile horiek marxismoan arakatu zuten eta materialismo historikoak eskaintzen zuen marko teorikoak hemengo arazo sozialei erantzuna ematen ziela ikusi zuten. Materialismo historikoak sexuen arteko botere harremanak egiturazkoak zirela ulertzeko oinarria eskaintzen zien eta zapalkuntza hori ideologikoa eta ekonomikoa, eta beraz politikoa zela ikasi zuten.

Jendarteaz aztertzean, Marxek ikerketen objektutzat zein iraultzaren subjektutzat gizona hartu zuen, gizon burgesa eta gizon langilea, hain zuzen ere. Egoera oso antzekoa zen euskal komunisten edo sozialisten artean. Edozelan ere, teorian eta praxian aldagai berria gehitu zuten: emakumeak.

Teoria marxistan sakondu zuten, azterketaren objektua zein iraultzaren subjektua euskal emakume langileak zirela azaltzeko eta onartarazteko. Horrela, euskal emakume haiek, ukatutako nazio bateko langileak, euren zapalkuntzaren kontzientzia hartu zuten eta hiru zapalkuntzen gaineko teorizazioa garatu zuten.

Hortik aurrera etorri ziren KAS Emakumeak, KASen helburu estrategikoei -Euskadi independentea, sozialista, batua eta euskalduna- “ez patriarkala” gehitu ziotenak. Horrela definitzen zuten borroka anti-patriarkala: sexuaren araberako lan-banaketa indargabetzea, nork bere gorputza kontrolatzea, afektu eta sexu-harremanen garapen librea eta berdintasunezko parte hartzea jendartearen kudeaketa ekonomiko eta politikoan.

Ildo beretik eta borroka berarekin jarraitzeko sortu zen Aizan! (KAS alternatibatik kanpo baina horri eragiten eta antzeko helburuekin), eta ondoren Egizan (KAS alternatibaren barruan). Antolakunde horiek ezker abertzalearen kanpotik eta barrutik jardun zuten, beti ere mugimendu feministari lotuta, eta hainbat topaketa garrantzitsu antolatu zituzten honekin batera.

Azkenik, Euskal Herriko Bilgune feminista sortu zen, egun ere bizirik dagoena, eta talde feministen sartzeko funtzioa egin nahi duena. 2010eko hamarkadatik, ostera, gauzak asko aldatu dira eta espresio antolatu ugari agertu dira, batzuk maila lokalekoak, beste batzuk nazionalekoak. Adi jarraituko dugu horiek daukaten bilakaera, Euskal Herriko eszenatoki politikoan uzten duten arrastoa eta askapen prozesuari egiten dioten ekarpena.

## 5-Feminismoaren ulerkeraz eta beharraz

Gure memoria osatuta, feminismoaren ulerkeraz argitzera pasa gaitezke. Feminismoak konnotazio asko izan ditu eta ditu egun, horietako asko negatiboak. Ez dugu uste kasualitatea denik jo-puntuaren egotea, hasieran aipatu bezala, emakumeon askapena bultzatzen duen mugimendua kontrolpetik ihes egiteko saiakera den heinean, kontrolpean nahi gaituen orok sumo txarrez hartuko baitu. Baina ez dugu horrekin gotorlekua eraiki eta bertan ezkutatu nahi. Argi dago feminismoak aurpegi asko dituela, eta horietako batzuk baino ez zaizkigu baliagarri iraultza integral batean sinesten dugunoi. Alderdi eta mugimendu sozialista ugariak izatera erabat erreformista erakutsi dute, baina horrek ez digu ukatuko sozialismoak potentzialki izan dezakeen espresio iraultzailea aldarrikatzea eta horren alde borrokatzea. Horregatik, hasteko, feminismo iraultzaileaz arituko gara, erro antipatriarkalarekin batera, izatera antikapitalista eta antiarrazista ere baduena. Klasetan banatutako jendartearen patriarkatuak sortu eta sostengatzen du hein batean, beraz, patriarkatuarekin amaitzen dugunean, klase jendartearen bera, jabetza pribatuaren logika, errotik erauzteko bidea zabalduko dugula deritzogu; patriarkatuaren aurkako borroka, beraz, arrakala zabaltzen duela Dominazioaren Sistematan. Era berean, sostengua patriarkatua izango ez balitz ere, ezinezkoa da aske izango garela pentsatzea patriarkatuarekin bukatu duen sistema batean, oraindik ere beste klase bereizketa batzuk mantentzen badira. Hortaz, patriarkatuaren kontrako borroka abiapuntu egokia dela deritzogu, baina ezin begi bistatik galdu bestelako klase bereizketen aurkakoa ere.

Gure ulerkeraren arabera, feminismoak errotik aldatu behar du jendartearen harreman forma oro zalantzan jartzen du eta

jendartearen antolakuntza goitik behera astindu behar du. Horregatik, ez luke inolako esplotaziorik, konkistarik ezta egiturazko botere-harremanik onartuko. Garrantzitsua da zehaztea patriarkaturik gabeko kapitalismo batean aske izango ez ginatekeen bezala, patriarkatua suntsitu ez duen saiakera iraultzaileak ere ez gaituela askatuko (argi ikusi da prozesu iraultzaile historikoen gabezia zentzu honetan).

Feminismoa prozesu, helburu eta borroka da. Prozesua da, mugimendu iraultzaileek, jendarteak bezalaxe, generoaren gaineko irakurketa eta lanketa zorrotza egin behar dutelako. Berehalako egitekoa da emakume langileok bizitzako eta borrokako esparru guztietan jasaten dugun gutxiespena gainditzea. Borroka eskuratuko dugu emakumeok gure askapena, jendarte osoaren askapenarekin batera, eta horretarako, ingurua gure borroka onar dezan prestatu behar dugu. Horri deritzogu despatriarkalizazioa: patriarkatuaren arrastoak pixkanaka-pixkanaka gure izaera eta harremanetatik ezabatzen joatea; gaurdanik hasi beharreko lana. Hemen garrantzitsua da aipatzea denak balio ez duen arren, malgutasun taktikoa izan behar dugula; lehenago sufragisten kasuan adierazi bezala, gai izan behar gara jendarteko gertaerak ondo neurtu eta geure alde aprobetxatzeko. Aldarri batzuk gure helburuen arabera motz geratu arren, horiek aukera berriak zabal ditzakete, eta beharrezkoa da hori ikusteko gai izatea, norabide estrategiko iraultzailea galdu gabe. Proposamen politikoan adierazi bezala, erreforma eta iraultzaren arteko harremana modu egokian konfiguratzeko jakin behar dugu, eta egungo sistemaren mugen baitan gertatzen diren hobekuntza erlatiboak iraultzaren mesedetara jarri.

Gainera, feminismo iraultzailea askapen prozesuaren bermea izango da. Askapen prozesu orokorrak generoaren auzia lehen lerroan, beti begi bistan izango duela ziurtatuko duena. Eta are gehiago, borrokaren ibilbidea zapalduaren begiradatik aztertuko dela ziurtatuko duena, bi, hiru aldiz zapaldua denak, hobeto ulertuko baitu Dominazio Sistema bere osotasunean. Horregatik, emakume iraultzaileok izan behar dugu borrokaren gidari, gure baitan daramagu askapen arnasa.

Eta noski, feminismoa helburua da; deskribatu bezala, feminismoak klase eta zapalkuntzarik gabeko jendarte bilatzen du; baina gainera, esplizitu egiten du emakumeon askapena ezinbestekoa dela jendarte aske bat sortzeko, orain arteko askapen prozesuetan zenbaitetan ahaztu egin baikaituzte.

Lan hori guztia egiteko emakumeon subjektibazio eta ikuspegia azpimarratzen dugu: lehenago aipatu bezala, alde batetik zapalduaren begirada txertatua daramagu, emakume jaio izanagatik beragatik bizi osoa hartzen digun diziplinamendura jazarriak gaudelako. Bestetik, zapalduaren kulturaren, sarritan jotzen dugulako gure artean saretzera, sufrimendua eta lana elkarbanatzera, egoismoa eta protagonismo beharra gutxiago garatzera, indibidualtasunean eta lehiakortasunean murgilduago egon den gizonen (zapaltzailearen, menperatzailearen) kultura baino. Jabetza pribatua gu geu garenez, beste batzuk jabetza gisa ulertzeko joera ez daramagu horren barneratua.

Elementu horiek kultura kolektibo eta umil baterako oinarriak izan daitezke; finean, kultura askerako oinarri egoki.



## **6-Aurrera begirako zenbait lan lerro**

Behin patriarkatuaren historiari, hartzen duen egungo adierazpenari eta bere kontrako borrokei buruz hitz eginda, aurrera begira jar gaitezke, eta egiteko dugun lanaren zirriborroa marraztu. Horietako batzuk epe laburrean ebazteko moduko lanak izango dira; jada aipatu ditugun elementuak argitzen eta egunerokoan jorratzen joan beharko gara, gure jarrera eta harremani dagozkien ezaugarriak deseraiki eta berriak eraikitzea, edota behar materialak asetzeko modu kolektiboak eraikitzen joatea, emakumeon askapenerako behar espezifikoak kontuan izanda. Beste batzuek, ordea, pentsamenduaren geruzan ondu beharko dute denbora luzeagoz, larba fasean, herri mugimenduaren ekinak fruitu helduak eman arte, momentu horretan bakarrik izango baita posible zenbait ekinbide gauzatzea. Hala ere, gaurtik irudikatzea dagokigu etorkizuneko egoera sozialean garatu beharreko sintesia, horrek erakutsiko baitigu bidea eta esango digu nola prestatu zorua.

Proposamen politikoan aurkeztutakoaren arabera, hortaz, badagokigu pentsatzea Euskal Herriko Komunien Sistemaren generoak izango duen forma. Komunetan ematen den lan banaketa botere eta dominaziozko harremanak galarazteari begira egituratu beharko dugu, eta hori nola bermatu iker-tu beharra dago: Nola banatuko dira lanak? Zein irizpideren arabera? Nola ekidingo dira dominaziorako aukerak? Nola kudeatuko da ekoizpena? Nola kudeatuko da gainekoizpena, balego? Komuna autonomo ez mistoak beharrezkoak izango dira?

Era berean, ugalketa prozesuari arreta berezia eskaini beharko diogu, auzi honek Dominazio Sistemaren sorreran eta iraupean duen esanguragatik. Giza gorputzak agortu, zaharkitu

eta hil egiten dira eta nola edo hala, gorputz horiek erreproduzitu behar dira. Gaur egun dominazioak, eta bereziki, patriarkatuak inposatutako ezarpenen arabera gauzatzen da gorputzen ugalketa hori, egiturazko biolentziak zeharkatuta. Horri erantzun bat eman behar zaio, jendarte aske baten erai-kuntzak bere erroan eraman behar baitu gorputzen ugalketa biologikoa modu askean gauzatuko denaren bermea. Hori posible ez balitz, giza espeziea, Dominazioaren Sistematik kanpo, iraungi egingo litzateke. Beraz, ezinbestekoa da auzi honen inguruan sakontzen hastea, galderak planteatzea eta erantzunak bilatzen tematzea. Nola erdituko lirateke umeak Bizitza Askean? Eta Bizitza Askerako bidea eraikiz joango den Komunen Sistemari? Nola bermatuko da komunitatearen biziraupena? Nola bermatuko dugu ez dela erditu dezaketen gorputzen azpiratzea emango? Erditu dezaketen eta erditu ezin duten gorputzen arteko genero bereizketa kulturalik egongo al da? Generoa existitu beharko litzateke, desagertu beharko litzateke edo genero berriak eraiki behar ditugu? Eta familiarekin zer? Familia eredu berriak, edo familia instituzioaren desagerpena? Umeen zaintza nork bermatuko du, komunitateak? Eta nola? Erreprodukzio biologikoaren gaiari lotuta, badago esaten duenik ugalketa biologikorako prozesua gero eta gehiago automatizatuz joango dela eta momentu batetik aurrera garapen teknologikoak ahalbidetuko duela umeak umetoki artifizialetan “ekoiztea” (ektogenesisia). Ikuspuntu iraultzaile batetik, horrek zentzua dauka? Zein inplikazio izango lituzke sexu-genero banaketa patriarkalaren gairak? Zein gairak?

Beste ikerketa lerro bat gorputzen apropiazioaren jatorrian eta zergatietan kokatzen dugu, mentalitate dominatzaile patriarkala sortzeko baldintza material eta biologikoek duten

garrantzian: zergatik gertatzen dira gorputzen gaineko biolentzia eta apropiazio praktikak? Zelan definitzen dugu bortxaketa, eta horri lotua, noiztik ematen dira bortxaketak? Gure espeziearen aitzindari diren ugaztunetan bortxaketak daudela esan dezakegu? Edo gizakioi dagokigun gertakari kulturala da?


Azkenik, Giza historia, honen jatorria eta eboluzioa, gizonezkoen ikuspegitik ikertu eta idatzi izan da, eta galdera guzti hauen erantzuna lainopean daukagu, mentalitate dominatzaile patriarkalak eraiki duen egiaren atzean ezkutatuta. Lainope hori arakatzea dagokigu; giza historia hori, eta bereziki Euskal Herriko historia, emakumeen ikuspuntutik aztertzea; isilarazitako emakume figurak eta horien erresistentzia borrokak argitzea. Bere iragana ezagutzen ez duen herri batek nekez hel diezaioke bere etorkizuna eraikitzeari, eta iragan horretan emakumeek jokaturako papera inspirazio iturri ezin hobea bilakatu dezakegu.

Ikerketa lerro horiek guztiak urratzea pixkanaka baino ez dugu lortuko, eta hor topatuko dugu gure egia, hor topatuko ditugu iraultzarako eta bizitza askea eraikitzeko gakoak. Bitartean, erantzun borobilak eman baino, galdera egokiak egin eta erantzunak bilatzea da gure eginbehar iraultzailea.



# GINARRIZKO HIPOTESIAK

---



**Materia, bizitza, lana.  
Ekologia politikoaren  
irakurketa iraultzailerako  
hainbat ekarpen**



## MATERIA, BIZITZA, LANA. EKOLOGIA POLITIKOAREN IRAKURKETA IRAULTZAILERAKO HAINBAT EKARPEN.

Dominazioari eskaini diogun atalean, giza existentzia ezaugarritu dugu, gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena barnebiltzen duen kate edo prozesu bezala definituz. Prozesu horren emaitza Giza Kultura da, osotasun bezala ulertuta, orotariko adierazpen material zein sinbolikoak barnebiltzen dituena. Horrela, eske-ma kontzeptual horretan lana modu integralean ulertzen dugu eta pentsamenduaren bitartez ematen den errealitatearen eraldaketa litzateke; lan erreproduktibotik gainbalioaren ekoizpenera arteko adierazpen guztiak barnebiltzen dituen *continuum* bat bezala. Bere oinarritzko adierazpenetan (lan erreproduktiboa eta gainlanerako aukera) giza kondizioari dagokion gertakari unibertsala.

Aurreko atal horretan, beraz, lanaz eta ekoizpenaz aritu gara, modu integralenean ulertuta. Baita harreman sozialez eta horien baitan ematen diren apropiazio, zapalkuntza eta biolentziazko gertaerez ere. Horien guztien oinarrian, baina, badago orokorragoa den prozesu bat, errealitate sozialaren azterketarako tresna soilekin antzeman ezingo duguna. Izan ere, lan-ekoizpen prozesuaren abiapuntuan giza gorputzaren izaera biologikoa dagoela azpimarratu dugunean, edota prozesu hori aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren lehengai eta energia iturriei erreparatzen diegunean, giza existentzia orokorragoa den prozesu bati lotua dagoela ikusiko dugu: bizitza prozesuari, hain zuzen ere. Bizitza prozesua bera materia eta energiaren lege eta zikloi lotua doan bezala. Gure ustetan, materia, bizitza eta lanaren arteko harremana ulertzea ezinbesteko pausoa da; ez bakarrik harreman sozialen esparruan ematen diren gatazkei erantzun egoki bat emateko, baizik eta

gizakion eta inguratzen gaituen bizitzaren existentzia bera bermatzeko.

Mundu mailako larrialdi ekologikoa gorenean dagoen garaio-tan ezarpen hauek are garrantzitsuagoak egiten zaizkigu. Giza jarduerak eragindako desoreka ekologikoak metatuz joan dira azken hamarkadetan, eta horren ondorioz, bai ekosistema, zein giza talde osoen biziraupena kolokan dago. Gure ustez gai konplexua da, aldagai ugari parte hartzen baitute krisi ekologiko bezala ezagutzen den fenomenoan. Horregatik, ondorengo hausnarketaren bitartez ez dugu gaiari buruzko proposamen osatu eta itxi bat aurkeztuko. Oro har, ekologia politikoaren marko teorikoa aberastu dezaketen ekarpenak egin nahi ditugu. Edozein proposamen iraultzailek ekologia politikoari lotutako teoria eta praktika bat beharrezkoa du, eta ondorengoak norabide horretan ekarpen bat izan nahi du.

## **1-Unibertsoaren oinarriko indarrak eta bizitza prozesua. Lanetik haratagoko errealitatea ulertzearen beharra.**

Aurreko testuetan eman dugun lanaren definiziora joz, ikusiko dugu “pentsamenduaren bitartez ematen den errealitatearen eraldaketa” bezala ezaugarritzen dugula. Gizakioi dagokigun jarduera espezifikoa ari gara, pentsamendua eta materiaren arteko harreman dialektikoaz. Harreman horren azterketan sakontzeak mundua ulertzeko gako asko eskainiko dizkigu, baina ez digu ahalbidetuko, inondik inora, mundu horren konplexutasun osoaren ulermena. Giza existentzia bera ere ulertzeko ez da nahikoa, gizakiok ez gaudelako soilik lanaz “osatuta”. Lanerako gaitasuna gizakion ezaugarri unibertsala bada ere (pentsatzeko gaitasuna, eta horren bitartez, mundua

eraldatzeko gaitasuna), giza existentzia gure baitan lanaz haratagoko errealitate geruza ezberdinak konbinatzearen emaitza da.

Zentzu horretan, “pentsamenduaren bitartez ematen den errealitatearen eraldaketaz” ari garenean, lehenengo eta behin, ulertu beharra daukagu errealitatearen eraldaketa pentsamendua eta gizakion agerpena baino askoz ere zaharragoa den gertakaria dela. Horrela, Lur planetaren historiari erreparatzen badiogu ohartuko gara materia eta energiaren transformazioa Lurraren genesiaren oinarrian dagoela. Ura, mineralak, gasak, arroak, eguzkia, beroa, indar grabitazionalak... Pentsamendurik ez zegoen duela milaka miloi urte, baina errealitatea transformazio konstantean aurkitzen zen, fisikak ikertu dituen oinarritzko legeen arabera. Energia eta materia hutsa nagusi ziren garai hartan, oinarritzko indar edo interakzioek gidatzen zuten errealitatearen transformazio hori (grabitate indarra, indar elektromagnetikoa, nuklear ahula eta nuklear gogorra). Ez gara hemen sartuko unibertsoaren oinarritzko indar eta interakzio horien arteko harremana argitzen, ezta fisikaren abangoardian azken urteotan egon diren aurrerapen eta aurkikuntzak aztertzen. Hemen azpimarratuko duguna da indar fisiko horien existentzia biluzia besterik ez zegoela eta horiek gidatzen zutela errealitatearen eraldaketa. Izarren hautsa, alegia.

Eraldaketa etengabe horretan, baina, momentu batetik aurrera (duela 3.500 miloi urte, gutxi gora behera), jauzi kualitatibo bat gertatu zen: bizitza agertu zen. Aurrerago pentsamenduaren “agerpenarekin” ikusiko dugun bezala, bizitza ez zen “momentu” batean agertu, milioika urtez luzatu zen prozesu konplexu baten emaitza izan baitzen. Hala ere, ez



da testu honen helburua bizitzaren jatorrian sakontzea, baizik eta prozesu bezala duen izaera argitzea. Beraz, momentu batetik aurrera, bizitza agertzen da. Materiak eta energiak transformazio etengabe jarraitzen dute, lege berdinei jarraiki, baina transformazio horren mugen barruan, errealitatearen eraldaketa modu kualitatiboki berri batean ematen hasten da. Modu askotan definitu izan da bizitza, baina guk honakoa hartuko dugu:

Autoantolatutako gorputz organikoa, “barrua” eta “kanpoaren” arteko muga definitua duena, muga horren bitartez materia eta energia trukaketa bat ematen delarik. Trukaketa horren emaitza, energia eta materia metaketa da (nutrizioa), Unibertsoaren entropiarako joera orokorraren baitan. Bere inguruarekiko ordena maila altuago bat lortzeko jarduera biologikoa dago bizitzaren abiapuntuan. Hori du bizi-iraupe nerako bermea. Azkenik, bizitza hori posible egiten duen informazio genetikoa, gorputz berri batera transmititzeko aukera legoke (ugalketa).

Lur planetan agertu zen lehenengo zelula prokariotatik, azken landare eta animalietara, izaki bizidun guztien existentziak printzipio horiei erantzun die. Oinarrizko indarren baitan auto-eratzten den indar berri bat, bizi-indarra. Entropiaren kontrako norabidean, materia eta energia metatzeko joerarekin diharduen indarra; bere burua birstortu eta hedatzeko gai dena, gorputz batetik bestera transmititzeko gai.

Bizitza sortu zen momentu berean, heriotza ere sortu zen. Izaki bizidun oro jaiotzeko, bizi eta hil egiten da (bere osagaiak berriro desordenatu egiten dira, hauts bilakatu), etenik ez duen zikloan. Bizitzak Lur planetan egindako ibilbideari erreparatzen badiogu, ohartuko gara bizitza-heriotzaren zi-

klo horrek gorabehera handiak izan dituela, batzuetan izaki bizidunen iraungipen masiboak ezagutu dituen, zenbaitetan bizitza beraren jarraipena kolokan jarri dutena. Hala ere, esan dezakegu, gaur arte behintzat, bizitzak bere baitan daraman biziraupenerako pultsioa nagusitu dela eta bizitzak aurrera egitea lortu duela. Eta ez hori bakarrik; aurrera egite horretan gero eta espresio konplexuago eta anitzagoak sortzeko gai izan da. Bizitzaren garapenak orain arte zentzu edo norabide bat erakutsi izan badu, konplexutasuna eta aniztasuna sortzeko joera nagusitzea izan da, bere baitan heriotzarako eta sunsiketarako tendentzia ere badaramala ahaztu gabe (aurreago ikusiko dugun bezala). Azpimarratu nahi dugu hemen, bizitzaren “zentzuaz” ari garenean ez diogula bizi-indar horri inolako kontzientzia edo izaera metafisikorik esleitzen. Izaki bizidun bakoitzak bere baitan daraman biziraupenerako eta heriotzarako pultsio horrek, gainontzeko izaki guztien konbinazioarekin, eta ibilbide ebolutiboan zehar, konplexutasunerako eta aniztasunerako joera duela diogu. Bizitzak berezko duen ezaugarria dela diogu, materia eta energia bere baitan konfiguratzeko diren modu zehatzetik eratorria.

Modu horretan, belaunaldiz belaunaldi, ibilbide ebolutiboan zehar, bizitza espresio ezberdinak hartuz joan da, denetarikoko forma eta organismoak eratuz. Gero eta konplexuago eta aberatsagoa egin den zuhaitz erraldoi baten legez garatuz joan da milioika urtetan zehar, enbor, adar eta adaxka kontaezinezkin. Bizitzaren garapen ebolutibo hori ulertzea ezinbestekoa da ondoren emango den salto kualitatibo berria ulertzeko. Alegia, bizitzaren adar horietako batean animaliak agertu ziren. Ehun eta organo sistema diferentziatuak, eta horien artean nerbio sistema; lehenengo difusoa, eta ondoren zentrala. Gorputza

eta ingurunearen arteko hartu-emana gidatzeko sortu zen sistema hori, gero eta konplexuago bilakatuz joan zen. Ikusmena, entzumena, ukimena, burmuina... eta momentu batean pentsamendua agertu zen. Errealitatea, bere magnitude zehatzetatik haratago, modu abstraktuan irudikatze gaitasuna; errealitatea esanahitzeko gaitasuna, ideiak sortzeko eta transmititzeko gaitasuna. Hizkuntza. Eta esanahiarekin, lanerako aukera: ideia eta materiaren arteko dialektika.

Bizitzaren agerpenarekin bezala, asko dago esateko pentsamenduaren agerpenari buruz, eta nahi izanez gero, milaka orrialde beteko liriateke. Guk zenbait argipen egin nahiko genituzke. Lehenengo eta behin, agerpena diogunean ez gabiltza “momentu” batean agertzen den zerbaitetaz. Milioika urtez “agertzen” egon zen gertakariaz ari gara (bizitzarekin gertatu zen antzera), aurrerapauso eta atzerapausoz josia egon zena. Prozesu interespezifiko bezala ere ulertu behar-ko genuke, *Homo* generoko beste espezie batzuetan ere eman zena, zein *Homo* generotik kanpo. Horregatik, lerro ebolutibo bakar baten emaitza denik ere ez dugu uste, sare ebolutibo baten emaitza baizik. Historia ebolutibo horri lotuta, gizakiongan ematen den pentsamenduaren espresio garatuena ere ezin dugu modu arrazional hutsean ulertu. Azken finean, animaliak izaten jarraitzen dugu eta gure pentsamenduaren baitan animalia izaera horri lotutako oinarritzko geruzak ere badaramatzagu, adierazpen irrazional eta emozionalagoa izan dezaketenak. Gizakion pentsamendua aztertzerako orduan, berau moldatzen duten aldagai inkontziente/subkontziente eta kontzienteak kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Horrez gain, ez gabilta hemen giza pentsamenduaren egokitasuna epaitzen, bizitza prozesuaren gertakari gorena denik esanez, ez hoberena, ezta txarrena edo desegokiena ere. Bizitza eta Lur planetaren historian gertakari esanguratsua dela uste dugu, aurretik egondakoarekiko kualitatiboki ezberdina dena, baina ez diogu hemen zeinu positibo edo negatiborik esleituko. Era berean, Unibertsoaren oinarrizko lege fisikoez eta bizitza prozesuaz haratago (lege fisiko horiei erantzuten diena), ez dago giza pentsamenduaren agerpena gidatu duen bestelako “indarrik”. Prozesu erabat naturala izan da, fisikoa, eta hortaz, ez dauka izaera supranaturalik edo metafisikorik.

Azkenik, uste dugu ezin dugula pentsamendua gorputzaren materialitatetik banatu; gorputzarekiko dikotomiarik onartzen ez duen gertakaria da pentsamendua. Materia eta energiak giza gorputzean hartzen duten konfigurazio zehatzetik eratorzen den ezaugarri naturala da, eta hortaz, gorputzarekin bat, errealitate integral bakarra osatzen du. Zentzu horretan, pentsamenduak giza gorputz guztiak nolabait elkarrekin lotzen dituela esan dezakegu. Gorputz bakoitzaren ezberdintasunaz haratago (kolorea, tamaina, sexua, adina...), pentsamendua giza gorputz guztiak konpartitzen duten ezaugarri kualitativoa da. Gizakion arteko berdintasuna ezaugarritzen duen aldagaia da pentsamendua.

Beraz, pentsamenduaren agerpenarekin, materia eta energiaren transformazioak bigarren salto kualitatibo bat ezagutu zuen Lur planetaren historian (lehenengoa bizitzak eragindakoa izan zen): lehenengo aldiz, errealitatearen transformazio hori ideia batek bultzatuta eman daiteke. Materiak eta energiak beraien existentziaren kontzientzia har dezakete. Lan-indarra agertzen da: errealitatea pentsamenduaren bitar

tez eraldatzeko gaitasuna eta bultzada. Ideia eta materiaren arteko dialektika horretatik “tresna” sortzen da, bitarteko produktiboa. Pentsamenduak errealitatea eraldatzeko duen bitartekoa.

## **2-Materia, bizitza eta lana. Hiru plano, errealitate bakarra**

Orain arteko guztiarekin, errealitatearen konfigurazioan hiru plano ezberdinek parte hartzen dutela ulertzen dugu; materia eta energia hutsari dagokion plano, bizitzari dagokiona eta pentsamenduari dagokion plano (lana, ekoizpena eta kultura barnebiltzen dituena). Hemen, hala ere, kontu handiz ibili behar gara plano edo dimentsio horien arteko harremana interpretatzerako orduan, interpretazio horretatik eratorriko baita mundua eta bertan dugun papera ulertzeko modua. Erabateko garrantzia duten ezarpenak dira honakoak.

Esate baterako, pentsamolde moderno eta okzidentalaren baitan, gaur egun hegemonikoa dena, errealitate hori era banatu edo bereizian ulertu izan da. Alde batetik, Kulturari edo gizakioi dagokigun errealitatea legoke; pentsamendu arrazionala, lana, ekoizpena eta errealitate soziala barnebilduko lituzkeena. Bestalde, Naturari dagokion errealitatea legoke, materia eta energiaren adierazpen espontaneoek osatuko luke tena (eguzkia, fenomeno atmosferikoak, geologia...), errealitate kulturaletik haratago leudeken bizitza forma “basatiekin” batera. Kultura Vs Natura dikotomian oinarritutako ikuspegi honetatik akats ugari eratortzen dira, egun bizi ditugun arazo ekologiko zein sozial askoren muinean aurkituko ditugunak. Besteak beste, gizakioi dagokigun errealitate kulturala “Natura” bezala identifikatzen den horrekiko modu emantzipatuan ematen dela ulertzera bultzatzen gaitu dikotomia horrek. Eta

horrekin lotuta, “kanpoan” geratzen den mundu hori, gure kontrolpetik at geratzen dena, aurkakotasunean eraikitzera, gure nahietara menperatu beharreko exterioritate bat bezala.

Gure ustetan, aurrekoa bezalako eszizioan eta banaketan oinarritutako ikusmoldeak arazo iturri etengabea dira, errealtatearen ikuspegi erredukzionista eta partziala izatera kondenatzen baikaituzte. Horren aurrean, errealtatea osotasun bezala ulertzea ahalbidetuko diguten ikusmolde edo kosmobioloak garatzen saiatu behar gara uneoro. Eta horretarako, lehenengo eta behin, ulertu beharra daukagu ezberdintasuna eta banaketa ez direla gauza bera. Hau da, gure ustez, ukaezina da errealtatea konfiguratzeko duten eta goian ikusi ditugun indar horiek (unibertsoaren oinarrizko indarrak, bizi-indarra eta lan-indarra) izaera kualitatibo ezberdina dutela. Baina aldi berean, horrek ez du esan nahi indar horien existentzia modu banatuan ematen denik. Kontrara, elkarlotuak egoteaz gain, errealtate bakar eta banaezina osatzen dutela uste dugu.

Jar dezagun adibide bat hori hobeto ulertzeko. Eguzkiari erreparatzen badiogu ikusiko dugu zelan bere baitan oinarrizko indarrek diharduten (grabitatearen indarra, nuklearra, elektromagnetikoa). Baldintza horietan ematen den materia eta energiaren konfigurazio zehatzaren ondorioz, eguzkiak erradiazio elektromagnetikoa igortzen du norabide guztietan. Honaino oinarrizko indarren existentzia soilatik adierazten da.

Erradiazio horren zati batek, ordea, Lur planetarekin topo egingo du, bere atmosfera zeharkatu eta zuhaitz baten orrien aurka joko du. Demagun, haritz baten orrien aurka. Haritzak, fotosintesiaren bitartez, eguzki izpi horien energia elektromagnetikoa energia kimiko bilakatuko du, eta horrekin, CO<sub>2</sub> molekuletatik abiatuta, egurra sortu. Hemen, lehenengo geru

zatik abiatuta, bizi-indarra errealitate geruza berri bat eraikitzeko gai da. Hots, bizitza prozesua, bere ibilbide ebolutiboan zehar metatuz joan den gaitasun metabolikoei esker, errealitatearen eraldaketa modu kualitatiboki ezberdin batean egiteko gai da; aurreko geruzan existitu izan ez diren indar metaboliko biologikoek dihardute oraingoan materia eta energia metatzen eta ordenatzen. Horrela, materia eta energia horrek berez izango lukeena baino ordena maila altuagoko konfigurazio berri bat eraikitzen du bizitza prozesu horrek. Oinarrizko indar horien baitan existitzen diren indar metaboliko biologikoek errealitatearen konfigurazio berri bat sortzen dute. Aldi berean, baina, errealitate berri horrek oinarrizko indar horietara lotua jarraitzen du, ez da gertatzen horiekiko modu banatua. Izan ere, zuhaitzaren baitan espresio biak konbinatzen dira, materia eta energiaren oinarrizko legeei dagozkionak eta bizitza prozesuari dagozkionak: esate baterako, hazi ahala zuhaitzak hartuko duen formaren parte da grabitateak bere gain eragindako indarra; edota, egurra metabolizatzerako orduan, karbono, hidrogeno, oxigeno eta abarren arteko lotura molekularrak elementu horien baitan ematen diren lege atomikoen arabera gertatuko dira.


Gauzak horrela, zuhaitzak metabolizatutako egurra gizaki batek ebaki dezake eta erabilera ezberdinak eman; egurraren baitan metatutako energia eta materia etxea berotzeko erabili dezake, edo etxea bera eraikitzeko, edo eskultura bat sortzeko. Momentu horretan, errealitatea kualitatiboki modu ezberdin batean eraldatzen da; pentsamenduak gidatuta gertatzen da, alegia, lan-ekoizpen prozesuaren baitan. Egurrezko etxe bat, edota egurrezko eskultura bat ikusten dugunean, agerikoa da errealitatearen konfigurazio berri baten aurrean gaudela,

oinarrizko indarren eta bizi-indarren konbinazio soilaz (lan-indarraren parte hartzerik gabe) ezinezkoa izango litzatekeena. Era berean, zuhaitzarekin gertatu bezala, lan-ekoizpen prozesu horrek bere baitan daramatza aurretik datozen indar horiek guztiak. Ezin da horiekiko modu banatuan gauzatu, eta ezinezkotasun hori, gutxienez, bi zentzutan adierazten da. Alde batetik, gizakiak eskuartean darabilen egur hori (eta oro har edozein lehengai edo bitarteko produktibo) oinarrizko indarren eta prozesu biologikoaren emaitza da; indar horiek determinatutako gertakaria da. Gizakiak, horietatik abiatuta, errealitate geruza berri bat ekoiztu dezake, baina bakarrik aurreko indarrek ezarritako muga potentzialen barruan. Esate baterako, egur zati batek 2.000 kcal energia gordetzen badu bere baitan, egur hori erreta energia horrek hartzen duen forma eralda dezake gizakiak (energia kimiko bezala dagoena, energia termiko transformatu), baina ezingo ditu inoiz 5.000 kcal sortu. Beste alde batetik, gizakiak berak, izaki biziduna den heinean, bere baitan darama uneoro aurreko bi planoen determinazioa. Ezin du ezer pentsatu, ezta lan egin, ezta ekoiztu ere, ez bada oinarrizko indarrek eta bizitzak bere baitan sortzen duten konfigurazio zehatz horretatik abiatuta (eguzki sistemako Lur planetan bizi den bi hankadun tximinoa, esku eta atzamarrekin, begi, aho, azal, bihotz, ile, garun, eta horrek guztiak eskaintzen dizkion gaitasun kognitibo zehatzekin).

Honenbestez, errealitatea eta bere baitan ematen diren gertakariak aztertzerako orduan, gutxienez, hiru plano horiek kontuan hartu beharko genituzke, baina ez modu banatuan, baizik eta modu elkarlotuan. Egokiena esfera batean pentsatzea izango litzateke, geruza ezberdinez osatutako matrioshka batean. Lehenengo, eta gertakari guztien oinarrian, materia



eta energiari dagokion oinarrizko geruza; ondoren, bizitza, eta azkenik, lana-ekoizpena eta kultura. Esfera horretan hiru indar leudeke elementuen arteko hartuemana baldintzatzen: Unibertsoaren oinarrizko indarrak, bizitza eta lan-indarra. Bestalde, horien guztien arteko harremana ulertzerako orduan, geruzen arteko dependentziatzko harremanak identifikatu beharko ditugu. Eta hori egiterakoan ohartuko gara dependentziatzko loturak daudela, baina modu asimetrikoan gertatzen dela dependentzia hori.



Esate baterako, kanpotik barrurako norabidean, posible da lehenengo geruza bakarrik agertzea (eguzkiaren nukleoan gertatzen den bezala edota Lur planetan bizitza agertu baino lehenagoko garaian). Behin bizitza agertzen dela, berriz, bizitzak hartzen duen edozein formak beti eramango du bere baitan aurreko geruzaren determinazioa, azken finean aurre

ko indar horiek hartzen duten adierazpen berri bat baino ez delako. Era berean, behin bizitza agertzen delarik, bere jarduerak oinarritzko geruzaren gain eragina du (esate baterako, baso batek sortzen duen ur lurrunak hezetasun atmosferikoa handitzen du, berez gertatuko liratekeen patroï metereologikoak moldatuz). Aldi berean, bizitza hirugarren geruzarekiko modu independentean eman daiteke, pentsamendua eta lanaren existentziarik gabe (horrela izan da milaka milioi urtetan zehar). Azkenik, hirugarren geruza posible izango da soilik aurreko bi geruzen konfigurazio zehatz bezala. Pentsamenduaren eta lanaren edozein espresio aurreko bi geruzek ezarritako determinazioen arabera gauzatuko da beti, ezingo da gertakari emantzipatu bezala gauzatu. Eta bizitzarekin bezala, lanaren planoan ematen den errealitatearen eraldaketak aurreko bi dimentsioen konfigurazioa ere moldatzen du (ikus giza jarduerak ekosistemengan eta mundu mailako materia eta energia zikloengan duten eragina).

Matrioshkaren eta geruzen analogia Lur planetaren existentziara eramanez, modu honetan irakur genezake: lehenengo, geruza abiotikoa (harriak, ura, atmosfera, eguzki argia, grabitatea...), ondoren biosfera (izaki bizidunez eraikitako geruza), eta azken honen baitan kultura (lana eta ekoizpenaren bitartez jendarte ezberdinek sortutako geruza kulturala). Gehitzen den geruza berri bakoitza ez da aurrekoetatik banatzen, aurrekoak oinarrian dituela bakarrik baita posible geruza berri horren existentzia. Horrekin guztiarekin ikusten dugu lana, eta ondorioz, kultura, naturaren prozesu orokorren espresio bat baino ez dela. Askotan “Natura” lehenengo bi geruzak barnebiltzeko kontzeptu bezala erabili izan da, kultura hortik kanpo kokatuz. Baina gure ustez giza existentzia

ez dago “naturatik” kanpo edo bere aurka. Hori bai, lanaren bitartez sortzen den geruza, lanik gabe sortzen direnekiko kualitatiboki ezberdina da, besteak beste, lan-indarrak kontzientzia maila bat daramalako bere baitan, ez da indar “itsu” bat. Hori kontuan hartzea berebizikoa da.

Zuhaitzaren adibidera bueltatuz, fotosintesiaren bitartez lortzen den energia metaketari ezin diogu “lana” deitu. Agian “lan biologiko” deitu ahalko genioke horri, baina ez “giza lana”. Esanahirik edo pentsamendurik gabeko errealitatearen eraldaketa da hori. Gertaera espontaneo. Eguzkian gertatzen diren erreakzio nuklearrak eta berauek igorritako erradiazioarekin berdina gertatzen da. Era berean, horrek ez du esan nahi gure baitan horrelako prozesurik ematen ez denik; gure ilea etengabe hazten da, espantaneoki, eta hor ez dago pentsamenduaren bitartekaritarik. Ezarpen genetikoa da hori, gertakari biologikoa; gure baitan daramagun bizi indarraren espresioa da eta ezingo genioke horri “lana” deitu. Era berean, haritzaren orriak grabitatearen eraginez lurrera jausten diren bezala, gure gorputzaren masak lurrazalera lotuta mantentzen gaitu. Gure baitan daramagun energia eta materiaren legeen adierazpena litzateke hori, eta horri ere ezingo genioke “lana” deitu.

Laburbilduz, gizaki orok du lanerako gaitasuna, pentsamendurako gaitasuna duen heinean; eta hori da gizaki bezala gainontzeko izaki bizidunekiko ezberdintzen gaituena. Giza kondizioari dagokion gertakari unibertsala da lana, bai, baina gizakiak ez gaude bakarrik lanaz osatuta. Bizi prozesua eta materia eta energiaren oinarritzko legeak giza existentziaren parte ukazina dira, lanak ekoizten duen geruzaren osagaiak baitira. Gure gorputz organikoaren aldagai esentzialak dira,

pentsemenduaren abiapuntu; baita pentsemenduak aldatzen duen errealitatearen osagai esentzialak ere. Lan-indarrak osagai horiek hartu ahalko ditu errealitate geruza berri bat ekoizteko. Ilean adibidearekin jarraituz, orrazkera batean pentsatu eta artazi eta pigmentu batzuekin ile orrazkera hori ekoiztu ahalko dugu. Ilean horrek gure gorputzak espontaneoki sortu duen keratina metaketa izaten jarraitzen du, baina lan-indarraren bitartez, forma eta kolore berri bat eman diogu: errealitateak konfigurazio berri bat hartu du. Era berean, hegan egitean pentsatu eta hegazkin bat ekoiztuz hegan egin ahalko dugu. Hegazkinean gaudenean grabitate indarra ez da desagertu, bere horretan dirau, hegazkina lurrazalera erakarrituz, baina lan-indarrak grabitate indar horrekin oreka berri bat sortzeko aukera ekoiztu du.

### **3-Krisi ekologikoaren nozioa**

Errealitatearen ulerkerarako oinarritzko eskema ezarrita, krisi ekologikoaren azterketara pasa gaitezke. Goian esan dugun bezala, bizitzaren sorrera azaldu dugunean esan dugu bizitzarekin batera, heriotzarako aukera ere zabaltzen dela. Alegia, bizitzak aurrera egin ahala gora behera handiak izan ditu eta kasu batzuetan iraungipen masiboak pairatu izan ditu, bizitza prozesuaren existentzia bera kolokan jarri dutenak. Bada, krisi ekologikoaren lehenengo zantzuak garai zahar hauetan agertzen dira. Goian azaldu bezala, bizitza, bere oinarrian dauden materia eta energiaren zikloekiko erabat menpekota delako gertatzen da hori. Atmosferaren konposizioa, ozeanoena, tenperatura, eguzki energia, elikagaien eskuragarritasuna... Materia eta energia fluxu horiek luzaroan orekan egon ba

daitezke ere, aldiro-aldiro, perturbazio baten eraginez, oreka hautsi egiten da eta bizitza sostengatzen duten baldintza horietan aldaketa erradikalak ematen dira. Horrek izaki bizidunen heriotza masiboak eragiten ditu, krisi ekologikoak sortuz, mundu mailako dimentsioa hartu dezaketenak.

Perturbazio horiek jatorri abiotikoa izan dezakete (sumendi bat, meteorito bat, eguzkiaren jardueran aldaketak), baina izaki bizidunek eragindakoak ere izan daitezke. Ziu-rrenik Lur planetak bizi izan zuen lehenengo krisi ekologiko globala bizi forma batek eragin zuen. Duela 2.500 milioi urte bakteriar mota batzuk (zianobakteriak) fotosintesi oxigenikoa egiten hasi ziren lehen aldiz, oxigenoa ( $O_2$ ) masiboki askatuz atmosferara. Gaur egun landare eta algek fotosintesi hori egiten badute ere, garai hartarako berrikuntza handia izan zen, arazo larri bat ekarri zuena; orduko izaki bizidunentzat oxigenoa hondakin toxikoa zen, oso konposatu erreaktiboa delako. Hortaz, zianobakteriak masiboki oxigenoa askatzen hasi zirenean, Lur planeta goitik behera oxigenoz “kutsatu” zen, ondorio larriak eraginez: oxigenoarekin kontaktuan, gairontzeko bakteriar anoxikoak hil egiten ziren. Era berean, atmosferako konposizioa erabat aldatu zen, aldaketa klimatiko larria eraginez eta Lur planeta glaziaziorantz bultzatuz. Garai zahar horietan bakteriak baino ez ziren bizi, baina Oxidazio Handia bezala ezagutzen den krisi hori lehenengo iraupen masiboa izan zela uste da. Ondorio larriak izan bazituen ere, bizitzak eragindako oxigenoaren leherketa horrek bide metaboliko berriak ireki zituen, energia kimikoaren aprobe-txamendua hobetuz eta bizitzak har zitzakeen formak eta izan zezakeen potentziala handituz. Orduetik, krisi ekologiko, desagertzen masibo eta gertaera katastrofiko ugari gertatu dira Lur

planetan; ezagunenen artean, dinosauroen garaiarekin amaitu zuena edo Kanbrikoko desagerpen masiboa eragin zuena.

Beraz, krisi ekologikoaren fenomeno bizitza bera sortzen den momentu beretik agertzen da, zenbaitetan bizitzak berak eraginda. Ez da gizakiok asmatu dugun ezer. Bizitzak bizirau-penerako pultsioa darama bere baitan (eta orain arte behintzat hori nagusitu da), baina pultsio hori, desoreka eta desagerpen masiboa eragiteko gai ere bada. Zentzu horretan, gizakiok eragindako krisi ekologikoa ez da bizitzaren historian zehar emandako iraungipenekiko ezberdina. Suntsipena eragiteko gaitasunak ez gaitu naturaz kanpoko fenomeno bilakatzen, sumendi bat edo meteorito baten indar suntsikorrak naturaz kanpoko fenomeno bilakatzen ez dituen bezala. Are gehiago, unibertso oinarrizko indarrek gizakiok garatu dezakeguna baino gaitasun suntsikor askoz ere handiagoa dute.

Gure ustetan, analisiaren gakoa suntsipen hori eragiten duen indarraren izaeran aurkituko dugu, gure kasuan lan-indarraren izaeran. Hartara, lan-indarra, aurretik existitutako indarren aurrean kualitatiboki ezberdina dela ondorioztatu badugu, berak eragindako suntsiketa ere kualitatiboki ezberdina izango da. Hau da, pentsamenduak bultzatutako errealitatearen eraldaketaz ari gara, nolabaiteko kontzientzia duen mugimenduz, bere jarduerak etorkizunean izan ditzakeen ondorioak proiektatzeko gai dena. Eta horrek berebiziko garrantzia du gizakiok eragindako krisi ekologikoa interpretatu eta ulertzerako orduan. Meteoritoak ez bezala, suntsiketarako dugun traiektoria ikusi eta berau etetea erabaki dezakegu. Horregatik ez gara meteorito bat, edo sumendi bat, edo zianobakteria multzo bat. Eta hortik abiatu beharko dugu errealitatea eraldatzeko dugun gaitasunaren gaineko irakurketa kritikoa.

## 4-Bitarteko produktiboen garapena. Lanak errealitatea eraldatzeko duen gaitasunaren magnitudea.

Gauzak horrela, pentsamendua “agertu” zenean bere eskura zituena errealitatea eraldatzeko tresna edo bitarteko produktiboak oso mugatuak ziren; hau da, pentsamenduak errealitatean esku-hartzeko gaitasuna mugatua zen. Egurra, hezurak, harriak, pigmentoak, lumak... eta sua. Suaren kontrolarekin, errealitatea eskala handiagoan eraldatzeko gai da gizakia. Suarekin eta ehi-zarako gaitasun produktibo aurreratuekin (ezagutzak eta tresna materialak), giza espeziea (*Homo sapiens*) planeta guztitik zehar hedatzen da, bizitzaren gain lehenengo desagertzen masiboak eraginez. Australiako adibidea agian esanguratsuenetako bat da. Gizakia duela 40.000 urte heldu zen Australiara lehen aldiz eta bere presentziarekin batera, bertako megafauna marsupialaren desagertzea gertatu zen. Oro har, azken glaziazioaren amaierarako (duela 10.000 urte inguru) Eurasia eta Amerikako megafauna gehiena desagertua zen. Klima aldaketak desagertzen horietan eragina izan bazuen ere, gero eta onartuago dago giza presioa ezinbesteko aldagaia izan zela. Gizakia lehen aldiz mundu mailako eragile bilakatzen da eta horrekin, gizakiok eragindako krisi ekologiko globalaren lehenengo zantzuak antzeman ditzakegu. Hala ere, garai horietarako presioa oso selektiboa zen; batik bat ehizaren ondorioz desagerrarazten ziren animalia handiak. Oraindik lan-indarra ez zen energia eta materia fluxuak modu esanguratsuan eraldatzeko gai. Lanak errealitatea eralda zezakeen, baina oso magnitude txikian.

Neolitoarekin gauzak aldatzen hasten dira. Esan bezala, garai horietan lanak errealitatearen geruza oso mehea eraldatu zezakeen, ekoiztu zezakeen. Zenbait tresna material eta kontzeptu sinboliko, hizkuntza, artea... Landare eta animalien etxekotzearekin hori aldatu egiten da. Momentu horretatik

aurrera, gizakia bizitza prozesuaren genesisia interbenitzeko gai da eta ekoizpen bitarteko bilakatu; lana gainontzeko bizitza espresioetan aldagai eratzailerik bilakatzen da. Hemen ere, hasiera batean gaitasunak mugatuak dira; komunitate bat lur sail gutxi batzuk lantzeko baino ez zen gai, edo animalia gutxi batzuk erdizka etxekotzeko. Dena modu oso azalekoan. Baina belaunaldiek aurrera egin ahala, ezagutzak metatuz joan ziren, ikasiz eta transmitituz, teknika eta tresna berriak asmatuz. Lan-ingar unitate bakoitzeko (lan egun bakoitzeko, esaterako), elikagai gehiago ekoiztea lortzen zuten horrela. Hau da, produktibitatea handitu, lan erreproduktiboak (bizirauteko beharrezkoa den lana) lan prozesu osoan duen proportzioa murriztu, eta beraz, gain-ekoizpen/soberakin gehiago sortzeko aukera.

Lan-ingar berdinarekin, gero eta gainekoizpen gaitasun handiagoa; gaitasun horrek sortutako soberakinekin, gero eta populazio handiagoa; populazio handiagorekin, gero eta espezializazio maila handiagoa. Pentsamendurako gaitasun gehiago liberatuta, ekoizpenaren adar berriak irekitzeko eta dauden adarretan, gehiago ezagutu eta hobetzeko. Ekoizpena kualitatiboki hobetu eta aldi berean ekoizpen bitartekoen efiizientzia handitu; hau da, lan-ingar unitate bakoitzak sortutako gainekoizpenaren proportzioa handitu. Eta berriro katea elikatu egiten da. Bizitzaren zuhaitzarekin gertatu bezala, lanaren zuhaitza ere garatuz joan zen. Lanaren banaketa sozialak abia-dura hartu zuen, lana prozesu sozial orokor eta interkonektatua bilakatu. Gero eta jende gehiago elkarri lotuta; lehenengo ehunka pertsona, gero milaka, gero milioika. Historian zehar aurrerapauso eta atzerapausoak izan dituen prozesua da hau, iraultza industrialarekin bultzada definitiboa jaso zuena.



Lanaren garapenak berak (ezagutza zientifiko eta teknikoaren garapenak) erregai fosilen aurkikuntza eta ustiaketarako baldintzak sortu zituen, Lur planetak gordetzen zuen materia eta energia gordinetik gero eta proportzio handiagoa askatuz. Lanak gero eta indar handiagoarekin eraldatzen zuen errealitatea; gure gorputzarekin bat egiten zuten tresnek eta ezagutzek gero eta proportzio handiagoan eraldatzen zituzten materia eta energia fluxuak. XX. menderako lan-indarra eskala geologikoan eraldaketak sortzeko gai da; 50-60ko hamarkadetan burutzen diren froga nuklearrekin isotopo erradiaktiboen geruza bat sortzen da lurrazalean mundu mailan. Giza lorratza denbora geologikoan (milioika urte) txertatuta geratzen da. Zenbaiten ustetan antropozenoaren irekiera suposatzen du horrek, gizakion aro geologikoa.

Gaur egun, gizakiak errealitatea eraldatzeko duen gaitasunak mundu mailako dimentsioa hartu du. Bitarteko produktiboen garapenak eskaini dion gaitasuna da hori. Materia eta energia zikloen eraldaketa erradikalek bizitza sostengatzen duten baldintzak kolokan jarri dituzte: berotegi efektua duten gasek eragindako klima aldaketa; ozeano, lurrazal eta atmosferaren kutsadura globala; habitat osoen suntsiketa materiala; baliabideen gehiegizko ustiapena; espezie inbaditzaileen zabalpena... Heriotza masiboak eta iraungipen masiboa. Mundu mailako krisi ekologikoa.

Behin hona helduta, azpimarratu beharko genuke giza espresio guztiak ez direla zertan suntsikorrak izan. Neolitoan, lan-indarrak giza espezieetik haratagoko bizi espresioekin bat egin zuenean, sinbiosi moduko bat gertatu zen, bizi forma berriak sortu zituena; milaka espezie eta aldaera berri sortu ziren. Nekazal bioaniztasuna. Milaka barazki, lekale, zekale, fru-

ta-arbola eta animalia berri. Horrez gain, nekazal-komunitate horietako asko ehundaka urtez beraien inguruarekin harreman orekatu bat garatzeko gai izan ziren, aurretik zeuden ekosistemei geruza kultural berri bat gehituz eta horrekin, ekosistema berri eta aberatsagoak sortuz. European, esate baterako, babestuta dauden naturgune gehienak nekazal-komunitateek ehundaka urtez moldatutako ekosistema eta paisaiaz osatuta daude. Kulturgune deitu beharko genieke beraz. Bestalde, pentsamenduak, errealitatearekin hartu-emanean, edertasun forma kontaezinak sortu izan ditu: hasi kobazuloetako margoketekin eta XXI. mendeko koadroetara; sutondoan kontatu diren milaka istorio edota egun ikus ditzakegun zinema pelikulak; txori baten hezurrarekin egindako txirula batek eraiki dezakeen doinua edo taberna zulo batean sortutako jazz melodiak. Lan-indarra denetariko espresio artistiko eta ederrak ekoizteko gai izan da gizadiaren historian zehar. Beraz, giza existentziak edertasuna sor dezake, bizitza ugaritu eta oreka ekologikoa uztartu. Hau ezinbesteko abiapuntua da, gure ustez, ezin delako giza existentzia bera ukatu, naturaz kontrako edo kanpoko fenomenoak bailitzan. Giza existentziak askatasunerako eta edertasunerako daukan potentzialitatea ulertzeko gai izan behar gara. Gizakia, bizi indarrekin eta oinarrizko indarrekin batera, aniztasuna, bizitza berria eta oreka sortzeko aktore bezala.

## **5-Giza hedapena, industrialismoa eta kapitalismoa**

Hortaz, gizakiok eraikitako adierazpen batzuk suntsikorrak dira; beste batzuk, aldiz, eraikitzaileak. Askok adierazpen suntsikor horien jatorria identifikatzeko kapitalismora jotzen dute.

Zentzu horretan, argi dago sistema kapitalistak, bere baitan daraman hazkunde eta hedapenerako logikagatik, beti eragin izan duela krisi ekologikoa. Hala ere, gizakiok eragindako krisi ekologikoak ez dira beti testuinguru kapitalista batean gertatu. Esate baterako, zibilizazio aurrekapitalista ugariren hedapenak krisi ekologiko larriak eragin izan ditu. Gehienetan, botere metaketa, Estatuak, espantsionismoa eta dominazioari lotutako dinamiken emaitza ziren, eta askotan, zibilizazioaren desagertzea bera bultzatu zuten (adibide ezagunenetakoa *Rapa Nui* irlakoa izanik, beste asko ere badaude). Hala ere, garai horietako gaitasun produktiboekin krisi ekologikoek eskualdeko eskala har zezaketen, asko jota.

Bestalde, behin garai industrialetan murgilduta, kapitalismoarekiko oposizioan eta dominazioa gainditzeko saiakeran eraikitako bestelako antolakuntza ereduak zeinu potentziala izan da eskala handiko hondamendi ekologikoa. Horrela, sozialismo erreala bezala ezagutu ziren esperientzia historikoetan ezaugarri esanguratsua izan zen krisi ekologikoa. Chernobilleko leherketa edota Aral itsasoaren lehortzea horren adibide argiak dira. Beraz, bitarteko produktiboen garapenaren neurriak ematen digu krisi ekologikoak hartu dezakeen eskala. Eta horrekin, argi geratzen da bitarteko produktiboen adierazpen industrialari lotua dagoela krisi ekologikoaren dimentsio globala. Industrialismoari lotuta, hain zuzen ere. Eta hor bai, kapitalismoak zeresana izan zuen; bere baitan bakarrik posible izan baitzen XIX. mendean zehar piztu zen bitarteko produktiboen garapenaren leherketa; lehen iraultza industrialak, alegia; eta beraz, gizakiok eragindako eraldaketek eskala globala hartzea.

Era berean, kapitalismoari buruz hitz egiterakoan, ez ditugu nahastu behar krisi ekologikoa eta kapitalismoak bere baitan daramatzan berariazko kontraesan eta krisiak. Elkar elikatu eta zenbaitetan batera ager daitezke, baina izaera ezberdina dute. Adibidez, kapitalismoak bere baitan daraman krisi primarioa lana eta kapitalaren artean ematen dena da: langilearen etengabeko krisira bultzatzen du kontraesan horrek, desjabetzan eta salarioan harrapatuta, lan-indarra saltzera behartuta; sortzen duen aberastasuna beste batek bereganatua izateko. Kapitalismoaren baitan behin eta berriro birsortzen den krisi hori, krisi ekologikoarekiko independentea da; krisi ekologikoaren afera gaindituta ere (demagun hori posible dela), kapitalismoak bizirautean duen bitartean klaseen arteko krisi eta gatazka horrek bere horretan jarraituko du. Aldi berean, kompetentzia interkapitalistak enpresa bakoitza gainontzekoekiko krisian edo krisian erortzeko arriskuan jartzen du behin eta berriro. Etengabeko mekanizazio, zabalkunde eta automatizazioak irabazi tasak mantentzea zailtzen du. Hori ere beti izango da horrela, aurrekoa bezala, kapitalaren barne logikari darion kontraesan inmanentea baita.

Hala ere, irabazi tasak mantentzeko beharrak badu lotura zuzena krisi ekologikoarekin. Izan ere, kapitala modu anpliatuan birsortu behar da beti, irabaziak eskaini behar ditu; bestela, kapital izateari uzten dio. 100 inbertitu eta bueltan 110 jaso; edo 120, edo 150. Logika horretan, kapitala inbertitu eta irabazia erauzi bitartean gertatzen denak ez du garrantzirik kapitalistarentzat. Botere metaketa da kapitalaren funtsa, eta bitartean gertatzen dena erabat sekundarioa da. Externalitatea. Balioa handitu, beraz. Hazi. Etengabeko hazkundera behar du kapitalismoak, eta horretarako, orain arte behintzat, ekoizpen

kapitalistak gero eta baliabide gehiago xurgatu behar izan ditu. Gero eta energia eta materia gehiago transformatu behar du, gero eta merkantzia gehiago ekoiztu, garraiatu eta kontsumitu, gainbalioaren ekoizpen tasari eusteko.

Beraz, kapitalismoak beti behar izango du hazkundera. Eta horra hor egin beharreko hurrengo galdera: posible da mugarik gabeko hazkundera, mugatua den planeta batean?

## **6-Lan-indarren emantzipazioa eta errealitateak inposatzen dizkion mugak**

Lan-indarraren izaera aske edo mugatura lotua doan galdera da hori. Askok ulertu izan dute bitarteko produktiboen garapenak aurrera egin ahala, lan-indarra gero eta askeago bilakatzen dela. Bere oinarrian dauden indarrekiko (bizi-indarra eta oinarrizko indarrak) gero eta emantzipatuago. Eta hortaz, “naturarekiko” loturak gero eta malguagoak, muga gero eta lau-soagoekin. Alegia, mugarik gabe?

Aurretik esan dugun bezala, lana pentsamenduaren araberako jarduera da, nahia eta erabakiaren araberakoa. Beraz, nolabait askatu egiten dela esan dezakegu; biologikoki eta materialki determinatua zaigunaren gainean erabaki dezake eta berau moldatu (aurreko adibideetara joz, ilea apaindu edo hegazkin batean hegan egin). Baina aldi berean, ezin die materialitate horrek inposatzen dizkien oinarrizko baldintzei uko egin; horietatik abiatuta eraikitzen baita pentsamendua, eta horietatik abiatuta eraikitzen baitu pentsamenduak bere ekoizpena. Aurretik esan bezala, lan-indarrak aldagai horiek osagai bezala hartu ahalko ditu errealitate geruza berri bat ekoizteko, baina inoiz ezingo da oinarrizko indar horiekiko

emantzipatu. Lanak errealitatearekin duen harremana erabat dialektikoa da, banaezina. Eta horrek krisi ekologikoaren ulermenerako ondorio garrantzitsuak ditu: alde batetik, eta lehen adierazi bezala, lan prozesua naturaren baitako prozesu bat da, ez du izaera supranaturalik; eta bestetik, lanak errealitatean eragindakoa aldaketek lanerako gaitasuna bera baldintzatzen dute, modu positiboan, zein negatiboan.

Jar dezagun hau hobeto ulertzeko adibide bat. Chernobileko zentral nuklearra eraiki, martxan jarri eta leherrarazi genuenean, ez genuen naturaz kanpoko ezer burutu. Uranio atomoak beti egon dira hor, baita atomo horien hausturaren bitartez erreakzio exotermiko bat eragiteko aukera ere. Lanaren garapen historikoaren bitartez (ezagutza zientifiko eta teknikoaren garapena), aukera horiek topatu eta gauzagarri bilakatu genituen. Aldi berean, erreakzio horretan askatutako erradiazio ionizanteak gure ehun organikoak zeharkatu eta suntsituko ditu. Gainontzeko gorputz biziekin egingo duen bezala. Hori ez da naturaz kanpoko prozesu bat; materia eta energiaren legeen mugen baitan ematen den gertakaria da. Hori bai, prozesu horren ondorioz, gure gorputzak hil egingo dira, gorputzik gabe ezingo da pentsamendurik egon, eta pentsamendurik gabe ez dago lanerako aukerarik. Hau da, lanak bultzatutako prozesuak (energia atomikoaren garapenak) lanerako gaitasuna bera kolokan jartzen du.

Era berean, lanaren bitartez, gure gorputza erradiazioaren-gandik babestuko duen traje antierradioaktiboa ekoiztu dezakegu. Hau da, gaindiezina zirudien muga baten aurrean (erradiazio ionizanteak materia organikoa suntsitzen du), lanak errealitate geruza berri bat eraiki dezake (materia organikoaren aurrean, berunezko geruza bat), oinarrizko baldintza

horien ondorioak desbideratuz edo deuseztatuz. Hegazki-naren adibidearekin ere ezin hobeto ikusten da fenomeno hau: gizakiak milaka urtez hegan egitearekin amets egin ahal izan du, baina duela ehun urtera arte muga gaindiezin bezala aurkeztu da aukera hori. Momentu horretatik aurrera, aldiz, gizakiok hegan egin dezakegu; bitarteko produktiboen garapenak muga hori gainditzea posible egin du. Ez du grabitate indarra deuseztatu; bere baitan gertakari indartsuago bat sortzeko gai izan da. Ondorioz, 85 tonako aparatu batek hegan egin dezake. Beraz, giza existentzia errealitate materialari lotua dago, baina errealitate hori eraldatu dezake. Beraz, errealitateak aurkezten dizkigun mugak absolutuak dira, ala erlatiboak?

Esate baterako, gaur egun bizi garen milaka milioi pertsonak Neolito hasierara eramango bagenitu (orduko bitarteko produktiboen garapenarekin) egun gutxitan gehienak gosez hilko lirateke; energia sarrera nahikorik gabe gorputzen jarduera biologikoa agortuko litzateke. Etengabeko presio entropikoaren aurrean amore emango lukete gorputz horiek. Berez, orduko Lur planetak, gaur egungo planetak duen energia gordin berdina aurkezten zuen. Ezberdintasun bakarra lanerako gaitasunean dago; energia gordin hori energia aprobetxagarri bilakatzen dugun lanerako gaitasunean. Hau da, Lurraren muga absolutuen eta erlatiboen arteko ezberdintasunean.

Erregai fosilekin kontua are argiago geratzen da. Erregai fosilek izaera mugatua dutela esaten denean, adierazpen erabat zuzena da. Kontua da petrolioa energia iturri bezala erabiltzeko aukera (petrolioa aurkitu, ustiatu, transformatu eta erregai bezala erabiltzeko motor egokiak ekoiztu), bitarteko produktiboen garapenak berak sortutako aukera dela. Bitarteko produktiboen garapenik gabe energia gordin guzti hori

ez litzateke inoiz eskuragarri egongo; horrela izan zen milioika urtetan zehar Lur planetako bizitza forma guztientzat. Gasa, petrolioa eta ikatz minerala hor egon dira, baina ezerk ezin izan du horien baitan gordea zegoen energia mobilizatu. Gizakiok ere ez, duela 150 urtera arte. Beraz, errealitateak aurkezten dizkigun muge nolakotasuna ulertzeko, ezin ditugu errealitate horren oinarrizko baldintzak bakarrik kontuan hartu: duela milioika urte landareek metatutako energia, indar geologikoen erreduzitu eta kontzentratu dutena. Horiek ezinbesteko baldintza dira, baina horiekin hartu-emanen lanak berak sortutako aukerak zein oztopoak ere kontuan hartu behar ditugu.

Horrela, bitarteko produktiboen garapen historikoa lasterke-ta moduko batekin alderatu dezakegu: errealitatearen mugekin topo egin eta aurrera egin ahal izateko, muga horiek moldatzeko aukera berriak ireki. Energiari dagokionez, Lur planetak gizakiok gaur egun beharrezkoa duguna baino askoz ere energia gordin gehiago jasotzen (eguzkiaren aldetik) eta sortzen du (Lur planetak berak gordetzen duen energia telurikoa). Horri energia nuklearrak sor lezakeena gehitzen badiogu, eskuragarri egon litekeen energia praktikan infinitua izango litzateke. Esan dezakegu muga absoluturik ez dagoela hor. Baina hori ez da galdera egokia; moduren batean eskuragarri egon daiteke energia hori guztia? Eta hor bai, agerikoa da gaur gaurkoz muga erlatibo bat dagoela, egungo kontsumo eta hazkunde maila ikusita gero eta hurbilago daukaguna eta gainera, momentuz, gaindi ezina ematen duena. Hortaz, bitarteko produktiboen garapena gai izango da oraingoan muga erlatibo horiek hausteko? Pentsamendu modernoak beti izan du fedea irtenbide teknologiko horretan. *Deus ex machina* moduko



bat, gizadiak mugaren batekin topo egiten duenean agertzen den ebazpen teknologikoa; aurrerako ihesian denbora gehiago irabazi, hurrengo momentu kritikoan berriro baloiari ostikoa emateko. Pentsamendu horren izaera erredukzionista eta positibistak errealitatearen gaineko kontrol absolutua aurreikusten du; goian deskribatu dugun lan-indarraren erabateko emantzipazioaren gaineko sinesmena. Eta hor dago egungo pentsamoldearen arazo nagusietako bat.

Lanak, historikoki izandako garapen guztiarekin ere, oraindik ezin dezake errealitatearen konplexutasun osoa neurtu. Gizakiok, egungo zientzia eta tresna aurreratuenekin ere ezin dugu inguratzen gaituen munduaren konplexutasun osoa antzeman. Eta ondorioz, ezin dugu horren gaineko aurreikuspen egokirik egin. Sinergia eta konplexutasun maila ikaragarria du egungo errealitatearen konbinazioak Lur planetan. Gure gorputzaren funtzionamendua ulertzeko ere oraindik zailtasun handiak ditugu; burmuinaren funtzionamendua, esaterako. Neurona bakar baten funtzionamendua ulertzea lor dezakegu; baina milaka miloi neurona elkarlotuk duten funtzionamendua, elkar komunikatzeko moduak, erregistroak, gainontzeko gorputzarekin bat eginez eragiten dituen hartu-emanak eta horrek guztiak osotasun bezala hartzen duen izaera... Horren ulermen integralera hurbildu ere ez gara egiten. Gure gorputza osatzen duten zelula, ehun eta organo guztien batasunak duen konplexutasuna ulertzeko oraindik ez gara gai. Eta hala ere, ekoizpen prozesuak askatzen dituen ehundaka material eta konposatu gorputzaren konplexutasun horretan txertatzen dira (nahita edo nahi gabe), interferentzia larriak eraginez: minbizi bat, gaixotasun endokrino bat, infekzio bat, immunologia sisteman eraldaketak... Gainontzeko Lur plane-

tarekin berdina gertatzen da, baina eskala eta konplexutasun askoz ere handiagoarekin. Esate baterako, zirkulazio atmosferikoa ikaragarri konplexua den fenomeno da, gaur egungo ezagutza guztiakin ere, astebeterako aurreikuspen zehatza egitea ezinezkoa delarik. Aitzitik, atmosferaren konposizioa hurrengo hamarkada edo mendeetarako eraldatzen gabiltza, neurtu ezin ditzakegun ondorioekin.

Errealitatea sistema konplexuz osatuta dago, elkarlotuak eta menpekoak direnak; eta horien arteko garapen konbinatua ez da modu linealean ematen. Pentsamendu erredukzionista eta mekanizista batetik hori ulertzea zaila da. Esate baterako, ekosistema bateko espezie bat desagerrarazi dezakegu. Eta ez da ezer gertatzen. Beste bat desagertu daiteke, eta ez da ezer gertatzen. Hirugarren bat, laugarren bat, bosgarren bat. Baina hamazazpigarrenean, metaketa kuantitatiboaren ondorioz salto kualitatibo bat ematen da eta ekosistemak kolapsatu dezake. Ordura arte ekosistema horrek betetzen zituen hainbat funtzio (materia eta energia fluxuen konfigurazio zehatz bat) desagertu daitezke, ura eta elikagaien eskuragarritasuna, esaterako. Bertan bizi den jendea eta animaliak gosez eta egarriz hilko dira, edo ihes egin beharko dute.

Horrela, bitarteko produktiboen garapenak zenbait aukera zabaltzen dituen bezala, beste batzuk ixten ditu. Esaterako, erregai fosilen aprobetxamenduak lan-indarraren gaitasuna hamarkadetan zehar biderkatu izan du. Baina aldi berean, horrek negutegi efektua duten gasen kontzentrazioa handitu du, atmosferaren beroketa eraginez. Beroketa horrek lurrazal, ozeano eta atmosfera sistemen baitan kalkulatu eta aurreikusi ezin ditugun kate sinergikoak askatu ditzake. Horien artean itsas mailaren igoera katastrofikoa. Irla eta kosta eremu ugari

desagertuko dira. Horietan ez da egongo ez pentsamendurako, ez lanerako, ez ekoizpenerako aukerarik. Energia nuklearraren kasuan fenomeno berdintsua eman izan da, Chernobilen, Fukushiman, eta istripuez haratago, hondakin erradiaktiboen kudeaketak aurkezten dituen arazoei lotuta. Eta beste hamaika adibide jarri ahalko genituzke. Bitarteko produktiboen lasterketa horretan, aurretik bidea zabaltzen goaz, baina atzetik ere ixten doakigu. Eta ez izan zalantzarik: momenturen batean heldulekurik gabe gera gaitezke. Gure azpian biderik utzi ez dugula ohartu eta amildegian behera jausi. Irtenbide teknologikorik aurkitu ez, eta hondamendia gerta daiteke. Gaur egun krisi ekologikoak hartu duen dimentsioa ikusita, hori gertatzeko gero eta aukera gehiago daude. Hondamendia dagoeneko gertatzen ari dela esan dezakegu, alegia.

## 7-Krisi ekologikoaren adierazpen zehatzak

Orain arte ikusitakoarekin, elementu ugari mahai gaineratu ditugu, krisi ekologikoaren ulerkerak eta interpretazioan lagungarriak izan daitezkeenak. Orokorrean ekologia politikoaren irakurketa iraultzaile bat elikatzeko lagungarriak direla uste dugu. Hausnarketarekin amaitzen joateko, krisi ekologikoak erakusten dituen adierazpen zehatz batzuk zerrendatu nahiko genituzke. Aurrerantzean suertatu daitezkeen eztabaida edo hausnarketetan abiapuntu bezala erabil daitezke. Honakoak lirarteke:

- **Kapitalismoari dagokionez.** Sistema kapitalistak bi arazo nagusi ditu krisi ekologikoari lotuta: baliabideen agorpena eta bizi baldintzen okertzea. Lehenengoari dagokionez, lehen-

gai material eta energetikoen agorpena gero eta ageriagokoa da, bai baliabide berriztagarrien kasuan (erauzte tasa, berriztatze tasa baino altuagoa), zein ez berriztagarrien kasuan. Bigarren arazoari dagokionez, aldaketa klimatikoa, kutsadura orokortua, ekosistemen desagerpena... populazio osoen bizi baldintzen okertzea dakar eta oro har, lan-indarraren erreproduktzioa zailtzen du. Arazo batek zein besteak, kapitalismoak bere horretan dituen barne kontraesanak elikatzen dituzte: produktibitatea murrizten du, gainbalioa erauzteko gaitasunarekin batera, langile klasearen egoera gaiztotu... Oro har, klase gatazka elikatzen dute eta kapitalismoaren bideragarritasuna, botere metaketarako eta dominaziorako mekanismo bezala, kolokan jarri.

Horregatik guztiagatik, kapitalismoa momentu kritiko baten aurrean dagoela uste dugu. XIX. mendean piztu zen iraultza industrialetik bizi izan duen momentu erabakiorrena ziur aski. Lehen aipatu dugun garapenaren lasterketa horretan, gero eta muga gehiagorekin topo egiten dabil, bere garapen egokirako gero eta espazio murriztagoa duelarik. Aukera handiak daude muga horiekin behin betiko talka egiteko. Baina ez dira dauden aukera bakarrak. Azken hamarkadetan bitarteko produktiboen ekuazioan badaude aldagai berri ugari, jauzi kualitatibo bat bultzatu dezaketenak: nanoteknologia eta material/propietate berriak; ordenagailu kuantikoak, inteligentzia artifiziala eta robotizazioa, fusio nuklearrean egon daitezkeen aurrerapenak, energia berriztagarrien merkatzea eta efizientzia handitzea, hidrogenoaren teknologia, konbustiorik gabeko garraio sistema, ingineritza genetikoak, komunikazio teknologiak eta gauzen interneta, elikagai ekoizpen hidropoiko eta sintetikoak... Aldagai guzti horien kombina

zioak izan dezakeen emaitza aurreikustea ezinezkoa da erabat: hutsala izan daiteke eta ondorioz kapitalismoaren porrota elikatu. Edo jauzi kualitatibo hori eragin dezakete, egun dituen mugak hautsiz eta berri batzuk ezarriz. Kapitalismo berdea; hedapen eta loraldi kapitalista berri baterako aukera. Ez da iraultzaile batek entzun nahiko lukeen pronostikoa, baina gure ustez aukeren artean dago.

Edozein modutara ere, aukera batean zein bestean (eta bien arteko konbinazioetan), iraultzarako aukerak egon badaude, eta horiek identifikatzen eta politikoki probesten jakin beharko du mugimendu iraultzaileak.

**- Zibilizazioari edo giza antolakuntza forma konplexuei dagokienez.** Erabateko krisi sistemikoa eta kapitalismoaren porrotaren aukera nagusituko balitz, antolakuntza forma berrietarako ateak irekiko lirateke. Baina horrek ez du esan nahi dominazioa gaindituko denik, ezta giza hedapenak krisi ekologikoak sortzeko duen joera ere. Mugimendu politiko eta iraultzailearen gaitasunen arabera antolakuntza forma berri horrek norabide bat edo bestea hartuko du. Horrela, maila sozialean ondo antolaturiko indar iraultzailerik ezean, litekeena da egungo kapitalismoaren fasearen kolapsoa oraindik latzagoa eta krudelagoa izango litzatekeen basakerian amaitzea

Edozein modutara, gure ustetan, prozesu iraultzaileak posible egin beharko lituzke giza antolakuntza forma konplexuak, milioika pertsona elkar lotzen dituztenak; ez modernitate kapitalistak egiten duen bezala, noski. Barne mailan askatasunean eta berdintasunean oinarritzen direnak, eta bestelako bizi formekin harreman eraikitzailea eta aberasgarria dutenak. Materia eta energia zikloak orekatu eta aberastuko dituztenak.

Gizakiok ekoizten dugun errealtate geruza hori edertasun eta aniztasun iturri izatea lortuko dutenak, ez heriotza eta suntsipen iturri.

Bestalde, bere hondoratzearekin batera, kapitalismoak eragiten duen hondamendiaren eskala handiegia bada, baliteke kolokan jartzea orokorrean giza antolakuntza konplexuak gertatzeko aukera. Materia eta energia fluxuak modu erradikalean eraldatzen badira eta oreka puntu berriak egonkortu, baliteke Lur planetako zenbait lekutan epe ertain-luzerako jendarte konplexuak antolatzeko aukera desagertzea.

- **Giza existentziari dagokionez.** Edozein kasutan, eta hondamendi ekologikoa oso larria izanda ere, zaila ikusten dugu giza existentzia kolokan egongo litzatekeenik. Giza espezieak bere historian zehar izaera oso moldakorra erakutsi du, eta gatazka nuklear deskontrolatu edo antzerako hondamendi erraldoi batekin ez bada, zaila ikusten dugu berau desagertzea. Giza talde txikietan ez bada ere, munduko zenbait lekutan biziraun ahalko luke, eta epe luzean berrantolatzeko aukera eduki.

- **Bizitza prozesu orokorrari dagokionez.** Bizitzaren historia ebolutiboan zehar bizi-indarrak denetariko hondamendiei aurre egitea lortu du: sumendi leherketa masiboak, meteorito erraldoien talkak, aldaketa klimatiko larriak... Gerra nuklear masibo baten aurrean ere, zenbait bizi formek irautea lortuko lukete, bizitzaren hari historikoari jarraipena emanaz. Zalantzarik ez dago, azken mendeetan zehar kalte handia jasan duela biosferak, espezieen desagertzen eta desplazamenduarekin, ekosistemen suntsiketarekin eta zatiketarekin. Iraungipen

prozesu masibo batean aurkitzen garela ukaezina da. Baina desagertu daitezkeen espezie eta ekosistema zehatzez aparte, gizakiok eragindako krisi ekologiko larrienean ere, bizitzak aurrera egitea lortuko luke. Gizakiontzat egoera zailagoa izango da.

- **Materia eta energiari dagokionez.** Gertatzen dena gertatzen delarik, materia eta energiaren etengabeko transformazioak bere horretan jarraituko du. Bere oinarrizko legeei jarraiki. Lanaren garapenak aurrera egiten badu, oinarri horietan elementu berriak aurkitzen jarraitu dugu eta horien aprobe-txamendu ezberdinak eman ahalko dira. Desagertzen bagara, bere horretan jarraituko dute. Hori bai, inork ez du gehiago beraiei buruz pentsatuko.

## **8-Eranskina. Bitarteko produktiboen garapenari lotu-tako beste kontraesan batzuk**

Krisi ekologikoaren azterketan bitarteko produktiboen garapenari lotutako analisia egin dugu. Honako eranskinean garapen horrekin lotuta doazen, baina krisi ekologikoarekin zerikusirik ez duten zenbait kontraesan azpimarratu nahiko genituzke. Espazio gehiago beharko luketela uste dugu, horregatik, aurrerago tira egiteko hari-muturrak dira honakoak. Lau kontraesan azpimarratu nahiko genituzke:

1. Bitarteko produktiboen garapena gizakion askatasunerako aukera bezala aurkeztu daiteke; gure oinarrizko bizi baldintzak ekoizteko (lan erreproduktiboa), gero eta lan inbertsio txikiagoa behar badugu, gero eta denbora aske gehiago

izan beharko genuke. Baina aldi berean, ezinbestean jaso behar duguna murrizten denez, beste batek apropiatu dezakeen gure lanaren proportzioa ere handitzen da; lan-indarrak gehiago ekoizten du, baina arinago erreproduzitzen da, eta beraz, gainlanaren proportzioa (apropiatu daitekeena) handitzen da. Hau da, bitarteko produktiboen garapenak apropiatua, meta-tua eta zentralizatua izan daitekeen boterearen proportzioa handitzen du.

2. Garapen horrek errealitatearen ezagutza zehatzago eta zuzenagoa ekarri du arlo batzuetan; ezagutza zientifikoak aurrerapauso ikaragarriak egin ditu azken mendeetan. Baina eraikitako ezagutza sistema erredukzionista eta positibista izan da askotan, lehen ikusi dugun bezala, errealitatearen zenbait espresio eta gertakari ikusezin bilakatu. Gainera, ezagutza zientifiko aurreratua ikaragarri lagungarria izan daiteke bizi baldintzak hobetzeko, baina baita kontrol sozialerako bitartekoak garatzeko ere.

Teknologia armamentistiko berriak garatzeko lagungarri. Altxamendu, insurrekzio eta iraultza saiakerak obsoleto eta teknikoki gauzaezin bilakatu ditzaketenak.

3. Lan prozesuak zenbat eta dimentsio erraldoiagoa izan, bertan parte hartzen duten norbanakoek gero eta izaera hutsalagoa dute. Osohasunak gaitasun handiagoa lortzen du, baina norbanakoa espezializatuago eta hortaz osohasunarekiko menpekoago bilakatzen da. Garrantzirik gabekoa. Norbanako bezala duen esangura politikoa deuseztatuz, subjektu politiko bezala izan dezakeen potentzialitatea murrizten du. Izaera indibidualari uko egiteko aukerak handitu daitezke horrela, batasun kolektiborako aukerak zabaldu. Baina horrekin batera alienaziorako baldintzak erraztu ere. Bestalde, norbanakoak




gero eta garrantzi gutxiagokoak bagara prozesu horretan, zerk gidatzen du prozesua? Zer da, bada, osotasun hori? Norbanakotik haratago, lanaren garapenak sortutako giza espresio berri bat al da? Osotasun hori eratzen dugun gorputz eta pentsamendu bakoitzetik haratago, gorputz eta pentsamendu sozial bat antzeman daiteke? Indar propio bat du, autonomia propioa? Pentsamendutik abiatzen den lan-ekoizpen prozesuak gero eta pentsamendu gutxiago dauka, gero eta modu automatikoagoan, itsuagoan gauzatzen du bere burua. Kapitalaren funtzionamendua aztertzen badugu, lan-ekoizpen prozesuaren azken espresio historiko bezala, argi geratzen da hori; oraindik norbanako baten botere gosea behar du, baina behin zirkulazioan dagoela automatikoki erreproduzitu eta handitzen du bere burua. Eta kapitalaren garapenaren baitan, efizientziarako duen tendentzia itsuan, bitarteko produktiboek gero eta izaera automatikoagoa dute, robotizatuagoa. Gero eta lan-indar gutxiago behar da ekoizpen prozesua burutzeko. Puntu honekin, galdera eta abiapuntu ugari ezarri genitzake; inteligentzia artifizia, robotizazioa, lan-indarraren iraungipena...

4. Azkenik, ekoizpenaren garapena materialitatea zuzenki baldintzatzeko gai da, baina horrek ez du zertan gizakion ongizatean islada zuzena izan. Garapen maila batetik aurrera ematen diren hobekuntza eta gaitasun produktiboak erabat superfluoa izan daitezke, batez ere gainbalioa metatzeko asmoitsuarekin ematen badira, errealki guzti horrek duen erabilera-balioa kontuan izan gabe. Ongizatea eta aberastasunaren adierei buruz sakondu beharko genuke, baina gaurkoz nahikoa izan dugu. Hurrengo baterako utzi beharko dugu hori.



# OINARRIZKO HIPOTESIAK

---



**Etika iraultzailea eta  
antolakuntza**



## **ETIKA IRAULTZAILEA ETA ANTOLAKUNTZA**

Liburuxkaren azken kapitulu honek sarrerako atalean paradigma iraultzailearen nolakotasunari buruz esandakora garatzen da. Bertan adierazi dugu paradigma iraultzaile batek ezin duela teoriaren garapen soil bat izan eta proposamen integral bat barnebildu behar duela. Alegia, teorikoki ematen diren ezarpenez gain, paradigma iraultzaile batek espresio praktikoko eta organizatibo zehatz bat ere barnebildu behar duela; pentsatzen duguna, esaten duguna eta egiten duguna norabide berean lerrokatu behar dira. Horretarako, gure ustetan etika iraultzailearen eta antolakuntza ereduaren afera erdigunean jarri behar du paradigma berriaren eraikuntzak.

Borroka prozesu askoren baitan, etikari dagokion auzia aurreragoko gai bezala utzi izan da. Gutariko guztiak zeharkatzen gaituzten dominazioaren adierazpenak (indibidualismoa, jarrera matxista eta patriarkalak, izaera liberala, arrazismoa...), iraultzailearen motxilan sartu izan dira maiz, aurrerago, iraultza egiten dugunean edo, landuko ditugulakoan. Gure ustez, horiei gaurdanik erreparatu eta gure baitako eraldaketa iraultzaile hori gauzatzen hasi gabe, herren ekingo diogu bide iraultzaileari. Guk geuk ez badaramagu gure baitan aldarrikatzen dugun iraultza horren isla, nori ari-tuko gataizkio iraultzaz?

Beraz, Kimua proposamenari etikaren gaineko hausnarke-tarekin emango diogu itxiera, antolakuntza eredu iraultzaileak hartu beharko lukeen adierazpenarekin eta hau guztia prakti-kara eramateko zenbait gakorekin.

## 1-Etika eta egia iraultzailea

Edozein giza taldek berau osatzen duten kideen jarduna gidatuko duten irizpideak behar ditu; zer den egokia eta zer ez adierazten duten balio zehatz batzuk. Horien arabera moldatuko da kideetako bakoitzaren pertsonalitatea, norbanako bakoitzaren izaera. Grezia klasikoan, *ethos* hitzarekin, esantzia definitzen zen, bizitzeko lekua edo espazioa. Denborarekin, *ethos* hori bakoitzaren izateko modua adieraztera pasatu zen; portaera eta jokamoldeek sortzen zuten gure barruko espazio hori. Espazio estatiko bat izatetik urrun, gure barruko bizileku hori, *ethosa* edo izaera, norabidetzea eta moldatzea posible zela uste zuten, egokiak iruditzen zitzaizkien balioen arabera. Hor kokatu dezakegu etikaren jatorria. Baita moralarena ere, moral hitza, *ethos* grekoaren itzulpen latinoia baita. Finean, moralak ere, etikak bezala, bizitzan egokia zer den eta zer ez antzemateko irizpideak eskaintzen dizkigu.

Abiapuntu horretatik hasita, etika edo moralari buruzko irakurketak norabide ugari har ditzake, beraien artean kontrajarriak izan daitezkeenak. Esate baterako, etika iraultzaileari buruz hitz egiten amaitu dezakegu, baina baita moral erlijiosoari buruz ere. Horregatik, ezer baino lehen, zenbait elementu argitzea ezinbesteko ikusten dugu. Lehenengo eta behin, gure ustez, etikak politikoki eraikia izan behar du beti; prozesu kontziente, kritiko eta hausnartu bezala gauzatu behar da. Moral erlijiosoarekin gertatzen ez den bezala, alegia, zeinetan sozializazioa erregulatzen duten balioak aldez aurretik ezarrita dauden eta horiekiko obedientzia soila exijitzen den. Zentzu horretan, prozesu politiko batean eraikitako kodigo etikoarekiko kontrola galdu, guk geuk sortu dugula ahaztu eta autonomia propioa hartzen badu, alienazioan harrapatuta

geratuko gara. Moral erlijiosoaren alienazioan, alegia. Horregatik, kontuz ibili behar gara etika eta moralari buruz dihardugunean. Pertsonok pentsatutakoa ezin da inoiz jainkoaren hitza bilakatu.

Hori argi izanda, laster ohartuko gara abiapuntu horrekin ere ez dela nahikoa. Kode etikoa edukiontzia baino ez da; barnebiltzen dituen edukien arabera, norabide batean edo bestean gidatuko gaituena. Hau da, etikaren adierazpen abstraktuak ez du berebiziko esangura politikorik, eta hortaz, ez du zertan adierazpen iraultzailea izan. Alegia, burgesiak ere badu bere etika propioa, liberalismo, indibidualismo eta konpetentzian oinarritutakoa. Jendarte kapitalistan funtzionalak diren balio etikoak. Horregatik, gu ez gara edozein etikaz ari. Helburu jakin baten bidean kokatuko gaituen etikaz ari gara; jabetza pribaturik gabeko sintesi sozialerantz zuzenduko gaituen etikaz ari gara, inongo dominaziorik gabeko Bizitza Askerantz gidatuko gaituena. Eduki horiek gorpuzten joango den etika beraz. Etika iraultzailea.

Baina nola ekin etika iraultzailearen eraikuntzari? Berez, Bizitza Askea iparrorratz, ematen du etika iraultzaileak baduela norabide argi bat, euskarri sendo bat. Baina zein da zehazki norabide hori? Zelan antzeman euskarri hori dominazioaren logika nagusi den egungoa bezalako jendarte eredu batean? Galdera horri erantzuteko etikarekin zerikusia daukan beste kontzeptu batera jo behar dugu: egia. Testuinguru ideologiko postmodernoa egiaz ez dagoela aldarrikatu da ozen, dena erlatibo dela. Ez gara hemen eztabaida horren sakontasunean murgilduko, baina badaude errealitatean ematen diren zenbait gertakari, ukaezinak direnak. Esaterako, egungo munduan dominazioa eta zapalkuntza existitzen direla ukaezina da. Errea

litatean gertatzen den zerbait da, egiazkoa. Dominazioaren egia da hori.

Egia sozial horrek ez du izaera ahistorikoa; hau da, biolentzia eta dominazioaren bitartez harremantzea ez da gizakioi dago-kigun ezaugarri naturala. Kontrara, gertakari historiko zehatz batzuen emaitza da. Historiari erreparatzea baino ez daukagu oartzeko dominazioa ez dela beti eta edonon existitu den fenomeno soziala izan, eta horrek honakoa ondorioztatzera garamatza: dominazioa sortu zuten gertakari sozial zehatz batzuk egon ziren bezala, berau gainditu dezaketen bestelako batzuk ere suerta daitezke. Hori horrela izanda, giza existentzia dominaziorik gabe gauzatzeko aukera potentziala egon badago. Hau guztia garrantzi handikoa da; egungo dominazio egoeratik abiatuta, moduren batean edo bestean, norabide bat existitu behar da jendarte aske horretara eraman (edo behintzat hurbildu) ahalko gaituena. Arazoa hemen, hala ere, bide horretan aurrera egiteko gakoak ezagutzean datza. Horri buruz ari gara egia iraultzailea aipatzen dugunean.

Hartara, dominazioa antzematea erreza da, egunero sentitzen baitugu gure bizitzetan, gure gorputzetan. Dominazioa suntsitu eta jendarte aske bat eraikitzea posible egingo duen egiaz jabetzea, aldiz, askoz ere zailagoa da. Nork daki zein den Dominazioaren Sistema gainditu dezakeen bide iraultzailea? Hamarkada eta mende luzeetan zehar saiakera askatzaile ugari egon dira, mundu guztitik zehar, helburu hori erdiesten saiatu direnak. Horien guztien esfortzu kalkulaezina gutxietsi gabe, onartu beharra daukagu batek ere ez duela helburu iraultzailea erdietsi (inolako dominaziorik gabeko jendarte antolatzea). Horregatik, tentuz ibili behar gara borrokari eta prozesu iraultzaileari ekiten diogunean:

dominazioaren egia antzematearekin, egia iraultzaileaz jabetu gara pentsatzeak akats larrietara eramanez gaitzake. Dominazioak zelan funtzionatzen duen zehaztasunez ezagutzeak, ez dakar hori gainditzeko gakoak ezagutzea. Askoz ere ariketa konplexuagoa da azken hau, modu egokian gauzatzen ez badugu, gainditu nahi dugun hori birsortzera eramanez gaitzakeena. Baliteke hori izatea klase borrokaren historiaren analisitik atera dezakegun irakaspen baliotsuenetako bat.

Eta hala eta guztiz ere, egia iraultzailearen aukerak bere horretan dirau. Gaur egun ditugun gaitasun politiko eta organizatiboekin antzemanezina irudituko zaigu, ia ezinezkoa, baina egon badago. Uneoro sumatzen dugu egia horren silueta; ikusi eta pairatzen ditugun zapalkuntzen aurrean gure bihotzeko taupada bakoitzean sentitzen dugu. Eta sufrimendu, injustizia eta egiturazko biolentzia horietaz haratago gure bizitza gauzatzeko aukera bat dagoenaren ziurtasuna da silueta horren atzetik joatera bultzatzen gaituena. Ziurtasun hori da gure gaitasun organizatiboak garatzera bultzatzen gaituena, egia iraultzaileari apurka-apurka forma emateko pultsioa pizten duena gure baitan. Ez gabiltza, ez, hilabete baten buruan lortuko dugun zerbaitez, ezta urte edo hamarkada batzuen buruan eskuratuko dugunaz. Bizitza iraultzari eskainiz bakarrik hurbildu gaitzake egia iraultzailea begiztatzerara. Eta horrekin ere, ziurrenik ez litzateke nahikoa izango; antolakuntza iraultzailearen baitan, kolektiboki, eta belaunaldi ezberdinen irakaspenak metatuz bakarrik lor daiteke Bizitza Askerako bidea ezagutu eta maila sozialean orokortzea.

Hortaz, egia iraultzaileaz ari garenean bilaketa bati buruz ari gara, norabide bati buruz; inguratu eta zeharkatzen gaituzten kontraesan sozialetatik eratortzen den aukera bati buruz.



Alegia, bakarrik borroka prozesuaren bitartez eta kontraesan horiekin kontaktu zuzenean jarriz lor dezakegu aukera horretara hurbiltzea. Hori da egia iraultzailearen kondizioa; etengabeko bilaketa, jarduera paziente bat, ziurrenik inoiz amaituko ez dena. Horregatik, egia iraultzailea ez da erabat eduki, jabetu dezakegun zerbait. Aukera horretarantz hurbildu gaitzke (eta hurbildu behar gara) eta zenbait egia frakzio eskuratu ditzakegu, horiek izango baitira gure bidea gidatuko dutenak. Baina berez, jarrera bati buruz ari gara, deskantsurik gabe arakatzuz eta zizelkatuz gauzatuko den ibilkera bati buruz. Bada, egia iraultzailearen etengabeko bilaketa horretan topatuko ditugu etika iraultzailea eraikitzen joateko gako nagusiak.

## **2-Orain eta hemen, iraultzaren izaera etikoaz**

Berez, historikoki prozesu iraultzaile askotan etikaren aferak garrantzi nabarmena izan du. Errusiako eta Kubako iraultzetan, esaterako, bizimodu komunistaren nolakotasunari buruzko eztabaida ugari eman ziren, baita militantearen izaerari buruzkoak ere. Kurdistanen (PKK), Brasilen (MST) edota Mexikon (EZLN) ere etika eta militantzia iraultzaileari lotutako garapen sakonak eman izan dira. ENAMen ere hausnarketa asko egon izan dira militanteak izan behar dituen jarrerari buruz, konpromiso mailak, betebeharrak... Oro har, Bizitza Askerako printzipio etikoak herri zapalduen eta klase borrokaren historian zehar transmitituak izan diren balioen sistema dira. Bere aztarnak topa ditzakegu komunismo primitiboa nagusi zen Estaturik gabeko jendarte aurremodernoetan, oraindik ere mundu osotik zehar bizi diren komunitate indigena askotan, Erdi Aroko bizitza forma nekazari eta komu-

nitarioetan, heresia erlijiosoetan (judaismo aurremodernoak, anabatistak eta antinomianoak...), eta nola ez, XIX. eta XX. mendeko langile mugimendu internazionalaren baitan.

Gure ustetan, iraultza bera ulertzeko moduarekin lotua dago etikari ematen zaion garrantzia. Iraultza pentsatzeko orduan, normalean taktika eta estrategiaz aritzen gara eta askotan, taktika eta estrategia bi momentu banatu bezala aurkezten zaizkigu. Horrela, helburu estrategikoa bide luze baten amaieran egongo litzatekeen helmuga izango litzateke; helburu taktikoak, aldiz, helmuga horretara hurbilduko gintuzketen pausoak. Ikuspegi etapista horren arabera, iraultza momentu zehatz bezala gorpuztuko litzateke eta zenbait aldaketa eta aurrerapausok balizko “momentu iraultzaile” horri itxaron beharko liekete. Gure ustez, mugimendu iraultzaile askok egin izan duten akatsa da hori. Utopismoan erori gabe, gure ustetan, taktika eta estrategia egungo borroka prozesuaren errealitate banaezin izan behar dira. Gure proposamen politikoan azaldu dugun bezala (Bizitza Askea eta Euskal Herriko Komunen Sistema), pauso taktikoak ematearekin batera, eduki estrategiko iraultzailea izango duten pausoak ere eman beharko ditugu, aldi berean, dialektikoki elkar elikatzen. Bide iraultzaileak bere baitan barnebidu beharko du helburua, etorkizuneko momentu hori, eta hortaz, egunero ematen ditugun pauso txikietan mundu berriaren isla ere jaso behar da.

Isla hori gauzatzeko ardura, inori baino lehen, militante iraultzaileari dagokio; suntsitu nahi dugun oraina eta eraiki nahi dugun etorkizunaren tentsio dialektikoa barnebidu behar du militanteak. Dominazio Sistemak gutariko bakoitzaren baitan txertatu dituen balioak hautsi, mentalitate dominatzailearekin hautsi, eta horren ordeztasun pertsonalitate iraultzailea

eraiki. Eta horretan etikak berebiziko garrantzia hartzen du, bide horretan gidatuko baikaitu. Pertsonalitatearen eraldaketa bat suposatzen du horrek, etorkizuneko balizko momentu iraultzaileari itxaron ezin diona, gainera. Gehiegitan egin izan den utzikeria da hori; hitz handien pean norbere baitan eman beharreko eraldaketak iraultzailearen motxilan gorde izan dira, beste “egiteke” askorekin batera, aurrerago (ez dakigu oso ondo noiz) ebatziko ditugunak.

Zentzu horretan, azpimarratu behar dugu prozesu etikoak norbanakoaren gain eragiten badu ere, prozesua beraren subjektua kolektiboa izan behar dela; prozesu etikoaren abiapuntu zein helmugak izaera kolektiboa eduki behar duen subjektu eta antolakuntza forma bati erantzun behar diola. Horrela, balio etiko iraultzaileen eraikuntza hausnarketa kolektibotik abiatu behar da, norbanakoen pertsonalitatearen transformazioa eragingo duena bai, baina norbanako horiek logika kolektiboan eta ortzi-muga iraultzailean oraindik indar handiagoarekin txertatzeko helburuarekin. Hau argi eduki ezean, etikaren lanketa ariketa autokonplaziente eta liberal bat bilakatzeko arriskua dago.

Era berean, argi daukagu etorkizuneko jendarte askean biziko den “persona berria” ezingo dugula gaurdanik osatu, prozesu sozial orokor baten emaitza bakarrik izan daitekeelako hori. Eta baldintza sozial orokor horiek ez dira gaur egun betetzen. Aurretik esan dugun bezala, ezin dugu etika iraultzailea gertakari indibidual bat bezala ulertu, iraultza bera, soilik eskala sozialean eta mundu mailan, gauzatu daitekeen prozesu historikoa delako. Baina era berean, jardun iraultzailea etorkizuneko bizitzaren prefigurazio bezala gauzatzea lortu behar dugu. Azken finean, dominazio eta klase sozialik

gabeko jendartea aldarrikatzen dugunean, ez baditugu sozializazio forma berri horren arrastoak argitzen, ezer gutxi aldarrikatzen gabilta. Ez dugu sortuko “pertsona berri” hori, baina bai sortu beharko dugu “pertsonalitate iraultzailea”. Eta horretan datza militante iraultzailearen betebeharrak nagusietako bat; eredugarri izan, oraindik itzalpetan dagoena arakatu eta sozializazio forma berria zizelkatu. Hori da abangoardiaren adiera iraultzailea: aurrerago joan, beste inork ikusten ez duena antzematen saiatu, bere baitan gorpuztu eta jendartera ekarri. Arrisku, esfortzu eta dedikazioz jositako bidea onartzen du aurrerapauso horrekin, abangoardia hartzarekin, baina existentzia berri baterako ateak irekitzen ditu.

### **3-Etika iraultzailearen edukiaz: zer gara, zer izan nahi dugu**

Etika iraultzaileak izango dituen edukiak definitu beharko genituzke orain, egia iraultzailea iparrorratz hartuta. Hori baino lehen, baina, azken pauso bat eman beharko dugu; gu geu, bizi garen Dominazio Sistemaren emaitza gara eta sistema horren balioak errotuak ditugu gure pertsonalitatearen sakonenean. Horrek esan nahi du, gure pertsonalitatea ez dela edukiontzi huts bat, besterik gabe nahi dugun edukiaz bete dezakeguna. Horregatik, ezer berria eraikitzen hasi baino lehen, aurretik datozen eta eraldatuak izan behar diren balioak identifikatu behar ditugu. Izan nahi dugunari buruz hitz egiten hasi baino lehen, orain garenaz mintzatu beharko gara. Mentalitate dominatzailearen nolakotasuna argitu, alegia.

Eguno jendartea patriarkala, arrazista eta liberala dela deritzogu. Oro har, haren gidarritza jabetza pribatuak eta egoismoak du, horien baitan egituratzen direlarik denetariko

zapalkuntzak. Momentu oro, logika beraren arabera funtzionatzen dugu, guk nahi izan gabe ere. Pentsamolde horren jatorria arakatu dezakegu historian, sistema ekonomikoen sorrera eta garapenean, zapalkuntza patriarkalaren lehenengo hazian eta ondorengo espresio guztietan, kolonialismoaren praktika basati zein sotiletan...

Kontua da jendartea egituratzeko eta historia garatzeko modu zehatzak haren baitan eratu duela mundua; eta gu, mundu horren parte gara. Goian aipatutako elementuak txertatuak daramatzagu; horrela gaude eraikita. Etekin pertsonala bilatzen dugu edozein ekintzatan (izan diruzkoa, posizio sozialari dagokiona, produktibismoa...), askatasun indibidualaren aldeko joerak topatzen ditugu geugan, ekibalentziaren legearen arabera trukatzeko edozer, harremanak eta objektuak merkantilizatzeraz jotzen dugu, gure azpitik kontsideratzen ditugun subjektuak umilatzeko joera dugu, botere-harremanak erreproduzitzen. Harreman liberal, patriarkal eta kolonialistek norbanako bakoitzarengan dute eragina; ez da langile klasearengandik aparte dagoen ezer, ezpada eratzeko gaituen zerbait.

Gaur egun, mentalitate dominatzailearen eraikuntza hori hainbat mekanismoren bitartez gauzatzen da, bai Estatuek, bai burgesiaren, bai burgesiaren, usadioen transmisioetik zein bizipenetatik eratorritako subjektibaziotik datozenak: hezkuntza (bai etxekoa, bai instituzioengandik jasotzen duguna, zein inkontzientea, jendarteko ideia orokorrak barnatzean jasotzen duguna), osasuna (nori, nola eta zein baldintzatan eskaintzen zaion osasunaren kudeaketa, zein ulerkeraren arabera egiten den hori...), komunikabideak, soldatapeko lana (bere diziplina zein askatasun liberalaren ideiekin)... Kon-

takizun hegemonikoaren emaitza gara. Eraikitzen gaituzte, pentsatzen gaituzte, gidatzen gaituzte, hitz egiten gaituzte, idazten gaituzte, asmatzen gaituzte. Horrek guztiak barneratua dugun iruditegi kolektiboa sortzen du, norbanakoen arteko harremanak norabidetuz, zapalkuntza eta esplotazioak irau-naraziz, jarrera pasibo eta konformistak errotuz... Behin eta berriz barneratu eta birsortzen dugun subjektibitate hori, mentalitate dominatzaile hori, Dominazioaren Sistema sostengatzen duen zutabe nagusietako bat bilakatzen da.

Mentalitate dominatzailearen birprodukzio horrek, jendartearengan bezala, militanteengan ere badu eragina. Birproduzitzeak esan nahi du gu geu ere bilakatzen garela zapalkuntzen eragile. Bizi dugun momentu historiko-politikoak ikusarazten digunez, genero zapalkuntza da gure artean dugun arrakala handienetako bat. Milaka izan dira genero zapalkuntzaren teorizazioak eta konponbide proposamenak; milaka dira, baita ere, jarrera patriarkalak daudenean, militanteen justifikazioak. Borroken lehentasuna dela, izaera desberdinen kontua dela, egoera konkretuen zehaztasun berezia dela... gure artean gertatzen diren zapalkuntza patriarkalaren zantzuak ezkutatzeko joera argia dago. Justifikazio horiek ez diote inolako onik egiten iraultzarako bideari; beharrezko prozesu bat (despatriarkalizazioa) atzeratu baino ez dute egiten, injustizia betiketuz. Zapalkuntza patriarkalarekin gertatzen den hori, berdin-berdin gertatzen da arrazismoarekin, are gehiago normalean subjektu zuri eta europarra nagusi den testuinguru militanteetan.

Hortaz, garrantzitsua da ulertzea eta onartzea gutako bat ere ez dagoela mentalitate dominatzailetik salbu; indibidualismoa, liberalismoa, matxismoa, arrazismoa, lehia... Denok

jaso dugu kultura menperatzailearen herentzia hori. Horregatik, lehen bala beti geure buruari bota behar diogu. Horretaz kontziente izatea, aldatu nahi izatea, eta prozesu horrek eskatzen duen dedikazio eta esfortzua onartzeko prest egotea ezinbestekoa da.

Horrekin guztiarekin, baina, ez dugu esan nahi ukazio hutsean murgildu behar garenik. Gure baitan badaude gaurdanik indartu eta oinarri bezala hartuko ditugun ezaugarriak ere; dagoeneko gure artean elkar zaintzera bultzatzen gaituztenak, kolektiboki elkartasunezko harremanak eraikitzea ahalbidetzen digutenak, albokoa sufritzen ikusi eta laguntzera bultzatzen gaituztenak. Dominazioak zeharkatutako jendar-tean azaleratzen diren kontraesanetan aurkituko ditugu, dominazioaren funtsa alde batetik, baina baita berau gainditzeko abiapuntua ere. Poliziak laguna jipoitzen duenean, emakume bat erasotua denean, familia bat etxerik gabe geratzen denean, enpresariak lankide bat kanporatu edo lan baldintzak okertzen dituenen... Gure kontzientzia pizten da eta elkartasunez aritzeko bultzada indartzen du gure artean. Dagoeneko gure baitan bor-borka ditugu horiek. Bestela ez ginateke borrokan arituko. Bestela historiaren hari gorria aspaldi legoke hautsia.

Hala ere, borrokatzen hasteak, edota gure burua militantetzat hartzeak, ez ditu Dominazio Sistemak gure baitan txertatu dituen ezaugarriak besterik gabe ezabatzen. Prozesu askoz ere konplexuagoa da hori, zentzu askotan traumatikoa, militantearen determinazioa eta konpromiso irmoa exijituko duena. Alde batetik, traumatikoa da gure barnean haustura bat beharrezkoa duelako, gure baitan bizirik dirauen mentalitate dominatzailearen herentzia deseraikitzea bermatuko duena. Baina bestetik, berreraikuntza bat ere behar du: subjektiba-

zio kolektibo berria, identitate kolektibo berriaren erai-kuntza; etika iraultzailearen inplementazioa.

Horregatik guztiagatik, jendartea irauli nahi dugun bezala, gure pertsonalitatearen transformazio iraultzailea gauzatzea ardura atzeraezina da. Hori egin ezean dominazioaren isla gu-rekin eramango dugu eta modu batean edo bestean birsortu egingo da.

#### **4-Kode etiko iraultzaile baterantz**

Honekin, etika iraultzaileak izango dituen balioak definitzera pasa gaitezke. Zentzu horretan, kode etiko iraultzaile bat ez da ordenagailuko edo telefonoko pantaila aurrean irakurriz ezarri ezta barneratu daitekeen zerbait. Sakonki eztabaidatu eta asimilatu beharreko elementuak dira, prozesu kolektibo antolatu baten baitan egin beharreko bidea da. Era berean, ezin dugu kode etiko bat modu erabat itxi eta estatikoan ulertu; jardun militantea bera eta egia iraultzailearen etengabeko bilaketa kode horren edukia moldatuz eta birdefinituz joango da. Edozein modutara ere, behin sakontasun eta zehaztasun nahikoa lortuta, gure jardun militantea balio etiko horien araber a egituratuko da. Helburu iraultzailea duen edozein mugimenduk eduki beharko lukeen erreferentea da; bere baitan diharduten militanteen jarduna zuzendu eta aberastuko duena. Eta militanteen bitartez, jendarte guztian zehar barreiatu, kutsatu eta sustraituko dena.

Horregatik guztiagatik, ondoren zerrendatzen ditugun balioak proposamen bezala plazaratzen ditugu, hausnarketa eta eztabaida pizteko helburuarekin; Euskal Herriko herri mugi



menu eta espresio iraultzaile ezberdinentzat erabilgarri izango direlakoan. Balioak banan-banan deskribatzen baditugu ere, ez dira modu isolatuan ulertu behar; elkarri lotuak daude, eta azken finean, osotasun bat eratzen dute.

Hortaz, honakoak dira, gure ustez, kode etiko iraultzailean garrantzi zentrala izan beharko luketen balioak:

- **Kidetasuna eta zaintza.** Jabetza pribatua eta egoismoaren logika gaudituz nahi badugu, kidetasunak zentralitatea hartu behar du. Hau da, zaintzan eta elkartzunean oinarritutako harreman formak, berekoikeria gaitzeko gai izango direnak. Kideen arteko maitasunari buruz ari gara hemen, baina ez ohikoa zaigun maitasun erromantikoaz. Elkarlaguntzan oinarritutako harremantzeko modua da kidetasuna; ahizpatasun-anaitasun iraultzailea, batek arazo bat duenean gainontzeko kideok bere alboan bultzaka edukiko gaituenaren ziurtasuna. Egun nagusi den hipersexualizazioan eta merkantilizazioan oinarrituta egongo ez den kideen arteko maitasun iraultzailea; errespetuzko eta parekidetasunezko harreman kritikoak garatzeko oinarrian egongo dena.
- **Umiltasuna.** Borrokak ezin du interes pertsonala oinarrian izan: kideen arteko fama ona, kapital soziala... Prozesu kolektibo baten parte gara eta horrekin bat egin behar dugu, umiltasunez. Galdetzea eta zalantzak izatea etengabekoa izango da; eta akatsak egitea, ulertzekoa. Besteengandik ikastea, errespetuz jokatzeko, entzutea, isilik egotea, bigarren planoan gelditzea... egoera batzuetan aukeratu behar ditugun posizioak dira, horrek guregan ondoezik eragin gabe.

- **Diziplina.** Edozein antolakuntza formak funtzionatzeko beharrezkoa da. Antolakuntza horren baitan ezartzen zaizkigun betebeharreko borondatez konprometitzen gara; eta hartutako konpromisoak diziplinaz bete behar ditugu. Hala ere, diziplina ez da soilik puntualtasuna, dis-krezioa, ez hutsik egitea, lanak betetzea... Iraultzarekiko diziplina, antolakunde zehatz batetiko diziplinaren gainetik egon behar da. Horrek esan nahi du zintzoak izatea balio eta ideia iraultzaileekiko, uneoro. Mugimendua norabide eta balio iraultzaileetatik desbideratzen bada, hori identifikatu eta zuzentzeko diziplina. Diziplina kontzientea edo kritikoa deritzogu horri. Antolakunde baten esanetara dagoen obediencia soila, sektarioa izatera irits daiteke, korporatibismora eraman gaitzakeen diziplina itsua.
- **(Auto)kritikotasuna.** Iraultzailearen begiradak kritikoa behar du izan; bai kanpora, bai barrura begira. Besteei errua bota baino lehen, norbere ardura zorroztasunez aztertu beharko dugu. Baina ez da soilik momentu puntualetan erabili beharreko metodoa, baizik eta errealitatea ikusi eta gure burua ulertzeko etengabeko jarrera. Edozein mugimendu antolaturen baitan, kritikek lekua izan behar dute, eta kritika horiei konponbidea emateko tresnak izan beharko ditugu, prozesu kolektiboa eta eraikitzailea izan dadin. Kritikak ez du balio, arazoak konpontzeko bidean ez badaude; autokritikak ez du balio, egoa elikatuko duen konfesio gisa egiten bada. Kritiken ondorioak ulertu, onartu eta erantzuna emateko mekanismoak izatea da gakoa. Gainera, kritiken oinarrian kolektiboki erabakitako balioak eta funtzionamendua egon behar dira, egoen arteko borroka bilaka ez dadin.

- **Iraultzapoza.** Iraultzak eskatuko dizkigun sakrifizio eta ukazioek ezin gaituzte izaki gris bilakatu. Ezta inguratzen gaituen biolentzia eta zapalkuntzekiko izan behar dugun gorrotoak ere. Argi daukagu militantzia hautua ezin dela desio hutsetik etorri eta jendartean “normaltzat” hartzen den bizimoduaren ezaugarri ugari alde batera uzteko prest egon behar garela. Baina borondatek egiten dugun hautua da hori, existentzia berri bati ateak irekitzen dizkiola jakinik. Bizitza maite dugulako, prest gaude bizitza hori eskaintzeko eta hori maitasunetik baino ezin da gauzatu. Herriarekiko eta Bizitza Askearekiko maitasunak gidatu behar du jardun iraultzailea.
- **Sormena.** Dogmatismotik urrundu, kritikoak izan, ideiei bueltak eman, proposamen berritzaileak garatu... kolektiboki eta indibidualki landu beharrekoa, militante iraultzaile izan gaitzen, eta ez burokrata.
- **Pazientzia.** Bizimodu kapitalistan ezinegona eta abiadura dira nagusi. Existentzia azeleratu horrek noraeza eragin ohi du, estimulu hutsalez asebetetzen saiatzen garena (sexua, drogak, kontsumismoa, turismoa...). Horren aurrean, pazientziaz jarduteko gai izan behar gara: erritmoa pausatu eta zerumuga begiztatu; ikuspegi estrategikoa garatu eta arin batean zeharkatzen gaituen koiunturatik haratago, ibilbide luzeko pausoak ematen ikasi. Hortaz, epe laburreko emaitza ezak eragiten duen frustrazioa alde batera uzteko gai izan behar dugu.
- **Polibalentzia eta formakuntza integrala.** Militanteak testuinguru desberdinetara egokitu eta horietan iraultzailetasuna transmititzeko gaitasuna izan behar du; erregistro desberdinak maneiatu behar ditu.

Edozein egoera da egokia jakintza eta balioak transmititzeko edota ikasteko.

Azkenik, azpimarratu nahiko genuke balio etiko jakin batzuk zehaztearekin ez dela nahikoa izango. Konplazentzia hutsa litzateke hori, intelektualismo antzua. Etika iraultzailearen ezagutza berak ez baitu ezertarako balio, ez bagara gai gutako bakoitzaren baitan etika hori gorpuzteko. Etikak jardun bat suposatu behar du. Eta horretarako, kritika eta autokritika metodologia kolektiboak inplementatzea ezinbestekoa da. Funtsean, konfiantzan eta zintzotasunez aritzeko marko kolektiboak sortzean datza; egunerokotasunean militanteek izandako jarrerak irekitasunez kritikatu eta auto-kritikatu ahal izango diren markoak. Pazientziaz eta jarraikortasunez egin beharreko lana da eta pertsonalitate iraultzailearen eraikuntza hauspotzeaz gain, borroka prozesuan sor daitezkeen barne tentsioak kudeatu eta askatzeko ere erabilgarria da. Berez, sakontasun maila eta testuinguru ezberdinetan garatu daitezke ariketa hauek, baina gure ustez etika iraultzailearen adierazpen erradikalena bermatzeko, tresna bakarra daukagu eskuragarri: koadro antolakunde iraultzailea. Bere baitan bakarrik izango da posible hau bezalako prozesu batek exijitzen duen konpromiso eta diziplina maila lortzea. Gainera, antolakunde iraultzaile baten baitan bakarrik bermatu ahalko da militante iraultzaileen formakuntza integrala; teoria politiko iraultzailea barneratzeaz haratago, pertsonalitate iraultzailea eraikitzeko gai izango dena.

## 5-Antolakuntza eta militantzia eredu

Amaitzen joateko, antolakuntza ereduari buruz hitz egitea dagokigu. Liburuxka honen sarrera atalean adierazi bezala, paradigma iraultzaile orok praxi politiko eta antolakuntza forma zehatz baten beharra dauka. Eta hemen aurkezten gabiltzan paradigma berriaren kasurako ere hala da. Kasu honetan, baina, gure burua lerro ideologiko bezala aurkezten dugun heinean oraindik ez dagokigu antolakunde bezala hitz egitea. Hala ere, bagara gai eraikitzen joango garen antolakuntza espazio horrek izango dituen ardatz eta ezaugarri nagusiak aurkezteko. Eta helburu horrekin, lau elementu azpimarratu nahi ditugu: zentralismo demokratikoa, marko autonomo ez mistoak, antolakuntza iraultzailea eta herriaren arteko harremana, eta militantzia eredu.

### **Zentralismo demokratikoa.**

Gure ustetan, antolakunde iraultzaile orok erdigune edo erabakimen espazio zentral bat behar du izan. Iraultza prozesua, besteak beste, irakaspen prozesu bat da eta bertara batzen diren kideek gaitasun eta ezagutza maila ezberdinak dituzte. Formakuntza eta borroka prozesuaren bitartez, kide batzuegan paradigma iraultzailearen barneratzea sakonagoa eta argiagoa da, eta kide horien gain dago gidaritzaren lanak egitea, iraultzarako bidea argitzen joatea, alegia. Bada, hori da erdigune horren helburu nagusia: gidaritzaren bitartez paradigma iraultzailearen isla inprimatzea, bai antolakundearen egitura eta jardueran zein kideengan. Gure ustetan, paradigma iraultzailea modu sakon eta argienez barneratuta duten kideek osatuko dute erdigune hori. Horrez gain, antolakuntza prozesua hazi ahala eta kide kopuru batetik aurrera, ezinezkoa

da partaide guztiek uneoro erabakimen espazio guztietan jardutea. Puntu batetik aurrera, antolakuntza prozesuak eraginkorra izan nahi badu, arduren banaketa eta mailaketa bat beharrezkoa da. Maiztasun jakin batekin gauzatuko liratekeen erabakimen marko kolektibo eta demokratikoez haratago, kideek delegatzen jakin beharko lukete, dagozkien ardurak betetzeari buru-belarri ekin eta gainontzeko kideengan eta antolakuntza egiturengan konfiantzaz jardun.

Berebiziko afera da honakoa, kontu handiz jorratu beharrekoa. Izan ere, jakin badakigu zentralismoan oinarritutako planteamendu hau arazo iturri izan daitekeela eta hala gertatu da historian zehar mugimendu iraultzaile askotan: bertikalismo eta hierarkia itsuek, autoritarismoak, burokratizazioak, barne demokrazia ezak... porrotera edo asimilaziora bultzatu ditu. Goian ikusi bezala, dominazioa gutako bakoitzaren barnean txertatuta daramagun errealitate konplexua da eta berau birsortzeko joera ekidinezina zaigu. Horrela, mugimendu iraultzaile bertutetsuena ere kondenatua legoke, ideia eta proposamen argienetatik abiatuta praxi politiko errealki iraultzaile eta demokratikoa gauzatzeko gai ez balitz. Bere proposamen teorikoak barnebiltzen dituen eduki iraultzaileak ezerezean geldituko lirateke aurrera egin ahala barne mailako izaera zapaltzailea garatuko balu, lehenago edo beranduago kanporantza ere islatuko litzatekeena.

Etika iraultzaileak eskaintzen dizkigun irakaspenen artean hori dago; egiten dugun bidearen nolakotasuna gure helburu estrategikoaren parte ere izan behar da. Horregatik uste dugu zentralismoak demokratikoa izan behar duela eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak eraiki behar ditugu. Horizontaltasun hutsean ere ezin jausi, sarri ikusi dugun bezala in

efikazia eragiten baitu. Beraz, nola edo hala bertikal-tasun-horizontaltasunaren arteko oreka topatzen asmatu behar dugu. Eta zelan egin hori? Hor dago eskuartean dugun erronka nagusietako bat.

Gure ustez, etika iraultzaileari eskainitako honako kapitulu honetan afera honi heltzeko zenbait gako daude eta horiek izan beharko dira gure bidea gidatuko dutenak.

### **Marko Autonomo ez mistoak.**

Egiturazko zapalkuntza patriarkala jasaten dugun heinean, emakumeon ahotsak izaera kolektibo eta autonomoa izan behar du antolakuntza prozesu iraultzailean, eta horretarako Marko Autonomo ez mistoen existentzia ezinbestekoa da. Emakumez gain, genero disidenteek ere hori bezalako espazioetan lekua izan behar dutela uste dugu.

Marko Autonomo honen funtzio nagusiak bi izan beharko lirateke. Alde batetik, emakumeon ahotsa sistematikoki isildua eta gutxietsia izan da, jendartean oro har, baina baita antolakunde iraultzaile gehien (guztietan ez bada) barnean ere. Beraz, Marko Autonomoak ahots hori erabakigune zentraletan bermatua egongo dela ziurtatu behar du. Horretarako, erabakigune zentralen maila berean egon beharko litzateke eta bertan erabakitzen denarekiko beto eskubidea izan. Ez gabiltza hemen paraleloki funtzionatuko luketen bi erabakigune zentral egon behar direnik aldarrikatzen; Marko Autonomoak emakumeon ahotsa autonomoki eraikitzen dela bermatu beharko du, gure ikuspuntua indartu eta garatu, ikuspuntu hori erabakigune zentrolean presente egon dadin, patriarkatuak sistematikoki ukatzen dion pisua eta espazioa bereganatuz.

Beste alde batetik, Marko Autonomoa emakumeon for-

makuntzan eta gaitasun politiko orokorretan (ez bakarrik genero auziari lotuak doazenak) sakontzeko espazioa izan beharko litzateke. Horrela, geure buruengan konfiantza handitzeko espazioa izan behar da, jendaurrean hitz egiten ikasi edo hobetzeko, idazteko gaitasunak hobetzeko, paradigmen edukietan sakondu eta ikerketa lerro berriak zabalitzeko, ikuspuntu taktiko eta estrategikoaren garapena bultzatzeko... Militante orok garatu beharreko gaitasunak dira horiek, baina gure gain patriarkatuak inposatzen digun egiturazko biolentziak etengabe txikitzen gaitu, subjektu debalutu bezala sozializatzen gaitu. Horregatik, gizonen kontrol eta presentziatik kanpo formakuntza prozesu hori indartu beharra daukagu.

Era berean, Marko Autonomoa ezin da gizonen despatriarkalizazioaz arduratuko den komisio bihurtu, eraso matxisten eta maskulinitatearen kudeaketarekin lanez gainezka arituko dena. Eraso horien aurrean autodefentsa mekanismo bezala jardungo du, baina lanketa horren pisu nagusia ezin da emakumeengan jarri. Horregatik, garrantzitsu ikusten dugu horrelako Marko Autonomo ez mistoak biltzen diren guztietan gizonak ere beraien aldetik biltzea despatriarkalizazio lanei ekiteko. Edozein modutara ere, Marko Autonomoak despatriarkalizazio prozesu horretan ikuskaritza lanak egitea garrantzitsu ikusten dugu, lan lerroen norabidea eta hausnarketan helburua desitxura ez daitezen.

### **Antolakuntza iraultzailea eta herriaren arteko harremana.**

Antolakunde iraultzaile batek abangoardia izateko apustua egin behar du; defenditzen duen ikuspuntu eta paradigma iraultzailea jendartean txertatu, barreiatu eta zabaldu. Hala ere,



zentralismoarekin gertatzen den bezala, abangoardia modu askotara uler daiteke. Askotan ikusi dugu zelan antolakunde batek jendartearen zenbait geruza antolatu eta geruza horiek antolakundea beraren mugen barruan xurgatzen dituen. Edo are txarrago, aldez aurretik antolatuak diren geruzak antolakundearen helburu eta beharrianen arabera azpiratuak izan dira. Gure ustez, xurgatze eta azpiratze horretan oinarritutako hazkuntza forma hori ez da jarduteko modu egokia.

Gure ustez, herri mugimendua antolakunde iraultzaile baten mugetatik haratago dagoen espazio politikoa da, eta hortaz, horren gainean “legislatzeko” gaitasunik ez luke izan beharko. Nolabait esateko, antolakundea bere militante organikoekin amaitzen da. Kide horiek herri mugimendu horretan parte hartuko dute, noski, baina modu irekian antolakunde edo paradigma horren kideak direla esanez eta paradigma horri lotutako planteamenduak defendatuz. Militante horiek ezin dute beraien izaera ezkutatu eta atzetik hariak mugitzen ibili. Militante horien eta oro har antolakundearen helburu nagusia jendartearen baitan dagoen potentzial iraultzailea askatzea izan beharko litzateke, ez potentzial hori antolakundearen mesedetara jartzea. Horregatik, herri mugimenduari izaera autonomoa aitortzen diogu.

Horrekin, baina, ez diogu herri mugimenduak maila lokalean bakarrik antolatu behar duen espazio politikoa izan behar duenik. Aurrean duen etsaia eskala sozialean antolatua dagoen heinean, jendarteak horri aurre egin nahi badio, gero eta maila handiago eta konplexuagoan antolatu behar du bere burua. Eskalan handituz joango den antolakuntza horrek ikuspuntu eta helburu estrategiko batzuei erantzun beharko die, baina hor dago gakoa: ikuspuntu eta helburu estrategiko ho-

riek ez dira “gure” helburuak izan behar. Herriak barne garapen bat izan behar du, bere kontzientzia maila, antolakuntza gaitasuna eta potentzial iraultzailea askatuko dituenak. Aitzitik, horrek guztiak barne prozesu eta denbora batzuei erantzun behar die, ez guk kanpotik ezarritako helburu eta determinazioei.

Guzti horretan gure helburua barne garapen eta gaitasun horiek hauspotzea da, hor lanean ibiliko diren beste eragile iraultzaileekin batera. Bertan gure ikuspegia txertatuz, noski, baina prozesu konplexu bat izango dela ulertuz eta honakoa argi izanez: herriak momentu eta leku zehatz batean garatuko dituen determinazio iraultzaile horiek (antolakuntza forma eta helburu zehatzak) oraindik ezezagunak zaizkigu. “Herria” edo “langile klasea” edo dena delako “subjektu iraultzaile” hori zelan antolatu behar den zehaztea ez dagokigu guri. Hori dialektikoki eraikiko den errealitatea izango da, eragile iraultzaile eta jendartearen geruza ezberdinen konbinazioarekin emango dena, indar eraldatzaile horiek aurrera egin ahala, bere burua moldatuz joango den Dominazio Sistemarekiko oposizioan. Guri, horri ekarpena egitea baino ez dagokigu, gure militanteak eraikuntza prozesu horretan indarrak husteko prestatu eta gure paradigman sakontzeko gogoia dutenei atek ireki.

### **Militantzia eredu.**

Azkenik, militantzia ereduari buruz hitz egitea dagokigu. Azken urteotan (salbuespenak salbuespen) militantzia gero eta modu lausoagoan ulertzeko joera nagusitu da Euskal Herrian, eta oro har, Europako ezker mugimendu askotan. Militantzia likidoa aldarrikatzen dute batzuek, ardura eta konpromiso gogorrik gabekoa, “garapen pertsonalari” lekua utzi behar diona. Denbora librean burututako militantzia, askotan

aisialdiari lotua. Kapitalismoaren mugen barruan gauzatzen den aisialdia gainera. Militantzia baino, aktibismoa. Eta guzti hori, aurreko belaunaldietako militantzia eredu zahar eta neketsuak ukatuz. Oro har, borroka politikoa modu partzialean interpretatzen dutenei, eta partzialtasun horren isla den “aktibista” modu zentral eta esklusiboan aldarrikatzen dutenei, liberalismo usaia darie.

Gure ustez, prozesu iraultzailea konpromiso maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar da; asko egongo dira, mugimenduari babesa adieraztearekin nahikoa izango dutenak, ekarpen ekonomikoa eginez edota manifestazio edo mobilizazio zehatzetara hurbilduz... Oinarri sozial zabal hori ezinbestekoa da edozein mugimendu politikotan; funtsezko sostengua da. Aldi berean, baina, bizitza prozesu iraultzaileari eskainiko diotenak ere egon beharko dira. Baita konpromiso maila gorena hartzeko prest dauden horien eta oinarri sozialaren artean geratzen diren militantzia espazioak ere. Edozelan ere, koadro iraultzailearen figura hori ekuazio iraultzailean beti egon izan den aldagaia da eta ez dugu uste iraultza soziala hori bezalako figurarik gabe gauzagarri denik. Deitu diezaiokegu koadro politiko, militante iraultzaile... Figura horren bitartez bakarrik izango da posible hautu hori hartzen duten militanteak formakuntza prozesu integral eta erabatekoan murgiltzea, beraien baitan pertsonalitate iraultzaile berria eraikiko dutenak.

Horrek ez du esan nahi etika iraultzaileari lotutako baliok bakarrik militante iraultzaileek bete beharko dituztenik. Etika iraultzaileak mugimendu osoa zeharkatu beharko du, bakoitzak hartzen dituen konpromiso eta betebeharren arabera. Prozesu iraultzailea konpromiso maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar dela diogunean, konpromiso maila horien arte-

ko lotura, komunikazioa eta hartu-eman bermatzeaz ari gara. Geruzetako bakoitzak funtzio zehatzak betetzen ditu, denak behar-beharrezkoak; denen arteko konbinazioak eta orekak bakarrik lor dezake prozesu iraultzailearen arrakasta. Beraz, mailaketa hori modu dialektikoan ulertu behar dugu, ez modu banatu eta bereizian.

Horretaz guztiaz gain, gure ustetan, gaur egun ez dago militante iraultzailearen figura posible egiten duen baldintzarik. Baldintza horiek eraiki egin behar ditu mugimendu iraultzaileak, bai ideologikoki, organizatiboki, materialki, ekonomikoki... Esate baterako, historikoki emakumeoi egokitu izan zaizkigu “militantziatik kanpo” bezala ulertu izan diren zaintza lanak. Zer esanik ez testuinguru militanteetan birproduzitzen diren jarrera patriarkalei buruz. Tamalez, horrela izaten jarraitzen du. Ondorioz, emakumeoi askoz ere zailagoa egin zaigu aurrerapauso hori ematea eta gehienetan ikusezinak izan diren iraultzaren geruza horietan egon gara. Hil ala biziko funtzioak bete izan ditugu posizio horietatik, baina salbuespenak salbuespen, iraultzak gizon aurpegia izan du beti. Hartara, mugimendu iraultzaileak lehentasun bezala hartu beharko du horri erantzun bat ematea eta emakumeok jasan izan dugun karga horretatik askatzea. Emakumeok militantzia iraultzailearen erdigunea eta gidaritza hartzeko baldintzak sortu arte (eta gaur egun ez daude), ezer gutxi aurreratuko dugu norabide horretan.

Honenbestez, etika eta militantzia iraultzailearen inplementazioak (edo berreraikuntzak) baditu bere zailtasun eta arriskuak. Prozesu konplexu eta gorabeheratsu bezala ulertu beharra daukagu. Genero problematikatik haratago, etika iraultzailearekiko atxikimendua eta erantzukizuna modu

desegokian ulertzeak prozesu iraultzailea kolokan jar dezake. Hartara, muturreko koherentziak hiperideologizaziora eraman gaitzake, eta horrek, etika iraultzailearekiko atxikimendu itsuak, militantearen isolamendua ekar dezake, ghattizazioa eta elitismoa. Erradikalismoaren eskutik, militantzia identitate joko huts bat bilakatzeko arrisku larria dago, posmodernitatearen tendentzia nagusietako bat, alegia.

Horregatik guztiagatik, herriarekiko lotura eta maitasuna inoiz ahaztu ezingo dugun oinarrizko elementua da. Militante iraultzailearen azken helburua jendartea eraldatzea da, eta hori herriaren alde borrokatuz, herria maitatuz eta berarekin bat eginez bakarrik lortu daiteke; lanpostuetan, kaleetan, gune sozialetan, etxeetan... jendartearen parte izan behar da militantea (ez berau zanpatzen duen Dominazio Sistemaren parte, baizik eta sistema horren baitan aske izateko borrokan erresistitzen duen jendartearen parte). Etika iraultzailearen arabera jardungo badu ere, kontraesanarekin topo egin beharko du eta horiekin bat egin. Dominazio Sistemaren lokatzetan bizirauten duelako herri zapalduaren askatasun arnasak, eta hor, ez beste inon, aurkituko ditugu egia iraultzailea zizelkatuko duten osagaiak.

